

I KASTETXEAREN HIZKUNTZA PROIEKTUA EGITEKO GIDA



Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua egiteko gida

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>.

Dokumentuaren egileak:

- Berritzegune Nagusia
- Zonako berritzeguneak
- Hezkuntza ikuskaritza

Argitaraldia 1.a, 2016ko apirila

Ale-kopurua 800 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

Argitaratzailea Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa Gráficas Dosbi, s. l.

Lege-gordailua: VI 33-2016

Aurkibidea

| | |
|---|-----------|
| AURKEZPENA | 7 |
| 1. Sarrera | 9 |
| 1.1. Zer da Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua? | 9 |
| 1.2. Zergatik eta zertarako Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua? | 9 |
| 1.3. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren aurrekariak EAEn | 10 |
| 1.4. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren ezaugarriak | 11 |
| 1.5. Hizkuntza Proiektua egitea: faseak, edukiak eta kudeaketa | 12 |
| 1.6. Hizkuntza Proiektua eta ikastetxeko beste dokumentuen arteko erlazioak | 15 |
| 2. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua egitea | 17 |
| 2.1. Planifikazio fasea | 17 |
| 2.2. Sentsibilizazio fasea | 21 |
| 2.3. Diagnostiko fasea | 25 |
| 2.4. Garapen fasea | 31 |
| 2.5. Ebaluazio fasea | 39 |
| 3. Gehiago jakiteko | 43 |
| ERANSKINAK | |
| Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua egiteko tresnak | 47 |
| Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua idazteko txantiloia | 103 |
| Adibideak | 113 |
| Gogoetarako eta ideiak trukatzeko orientabideak | 141 |
| Diagnostikorako beste tresna batzuk | 155 |

Aurkezpena

Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua egiteko Gida Heziberri 2020 Planetik eratorritako argitalpenetako bat da. Gida honen aurretik, Heziberri 2020 Planaren lehendabiziko egitasmoa den *Hezkuntza Eredu Pedagogikoaren Markoa* burutu da, eta horrekin batera, *Hezkuntza Proiektua egiteko Gida* (argitalpen bata eta bestea, 2014 urtekoak dira).

Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua, berriz, Hezkuntza Eredu Pedagogikoan aurreikusitako curriculum-lerroak garatzen dituzten Dekretuek aratu berri dute, bai *236/2015 Dekretuak, abenduaren 22koak, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak*, eta bai *237/2015 Dekretuak, abenduaren 22koak, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoak*. **Batak eta besteak xedatutakoaren arabera, Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuan** adierazi behar da hizkuntzak irakastearekin eta erabiltzearekin lotutako gai guztien plangintza.

Eremu eta jatorri desberdinetako adituek goraiatu dute azken hogeita hamar urteotan euskal hezkuntza sistemak bete duen eginkizuna EAEko bi hizkuntza ofizialak ikasteko eta irakasteko prozesuan (Euskararen Aholku Batzordea, 2009), eta iritzi hori berresten dute, besteak beste, aldiro egin diren ikerketa soziolinguistikoen emaitzek, PISA probek eta Ebaluaziorako eta Hezkuntzaren Ikerkuntzarako Euskal Institutuak (ISEI/IVEI) egiten dituen Ebaluazio Diagnostiko-probek.

XXI. mendeko euskal gizarteak, baina, dinamikoa izan behar du eta gero eta eleaniztunagoa. Ezaugarri horietara egokitu beharra du eskolak eta herritar eleanitzak lortu. Beraz, euskal eskolaren erronkari, elebitasuna indartzea, hau da, irteera profilean, ikasleak bizitzako eremu guztietan euskaraz eta gaztelaniaz, ahoz zein idatziz, modu egoki eta eraginkorrean komunikatzea, egun, beste erronka bat gehitu behar zaio: gutxienez, atzerriko hizkuntza batean ezagutza nahikoa duten gizabanako eleanitzak lortzea.

Hizkuntzaren izaerak berak eragin nabaria eta anitza dauka curriculumean. Alde batetik, Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia hizkuntzen eta literaturaren konpetentzia espezifikoa da; eta, bestetik, konpetentzia digitalarekin batera, konpetentzia globala, orokorra, da, komunikatzen jakitea, alegia. Horrez gain, konpetentzia horrek beste oinarrizko konpetentzien garapena definitzen du: pentsatzen eta ikasten jakitea, egiten eta ekiten jakitea, elkarrekin bizitzen jakitea eta izaten jakitea. Bestela esanda, komunikaziorako konpetentziaren azpian dago norberaren eta curriculumaren garapenaz gain, ikasleen irteera profilean islatzen diren konpetentzia guztien garapena.

Hala ere, konpetentziak ez dira, soilik, gela esparruan garatzen, hau da, gune formaletan; izan ere, oinarrizko konpetentzien garapenean berebiziko garrantzia dute aisialdiko jarduerak, inguru ez-formalek eta bizitzako hainbat egoera informalek ere. Horiek guztiek konpetentzia guztien garapenari eragiten diote eta, batez ere, komunikaziorako konpetentziari. Konpetentzia honetan, hizkuntzen ezagutzak, haien erabilerak eta hizkuntzekiko zein hiztunekiko jarrerak zehazten dute hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia espezifikoaren garapen maila.

Horrenbestez, Hezkuntza-komunitate bakoitzak, bere ikasleen hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia maila zein den jakinik, eta ikasleen inguru soziolinguistikoa abiapuntu izanik, ikastetxeko hizkuntzei dagozkien antolaketa eta didaktika esparruko erabakiak hartu behar ditu, bertako jardunbideei koherentzia emateko eta, hala, ikuspuntu eleanitzaren baitan, ikasleei hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia garatzen laguntzeko, betiere euskara ardatz hartuta, bi hizkuntza ofizialak ezagutzeko eta erabiltzeko aukera-berdintasun handiagoa eta benetakoa lortze aldera.

Hizkuntzen irakaskuntzari eta haien erabilerari dagozkien alderdien planifikazioa ikastetxearen Hizkuntza Proiektuan jasoko da. Proiektu honek garatu egingo ditu hezkuntza-komunitateak onartu eta Hezkuntza Proiektuak biltzen dituen irizpideak hizkuntzak ikasteari eta irakasteari buruzkoak, eta hizkuntzen trataeraren ildoak markatuko ditu Curriculum Proiektuan.

Hizkuntza Proiektuak balio behar du, beraz, ikasleek hizkuntzak hobeto ikasi eta erabiltzeko, euskararen erabilera sustatzeko eta hizkuntzen arteko bizikidetzajarreretan aurrera egiteko.

Gida honek lagungarri eta erabilgarri izan nahi du hezkuntza-komunitate guztientzat, denek, modu koherentean eta sistematikoan, bertako ikasleen ezaugarriei eta beharriari egokitutako euren Hizkuntza Proiektua egin dezaten. Irakasleen formazioaren planifikazio eta antolaketa koherenteak, ikasleen hizkuntza-komunikaziorako konpetentziarekin eta haien errealitate soziolinguistikoarekin bat, modu eraginkorrean lagunduko du ikasleen hizkuntza-eskubideak eta familien nahiak egia bihurtzen.

Azkenik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eskerrak eman nahi dizkie gida hau egiten parte hartu duten Berritzeguneetako eta Ikuskaritzako lankideei.

Arantza Aurrekoetxea Bilbao
Hezkuntza Sailburuordea

1. Sarrera

Nire hizkuntzaren mugak nire munduaren mugak dira

Ludwig Wittgenstein

1.1. Zer da Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua?

Hizkuntza Proiektua Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztiek egin behar dituzten erakunde-proiektuetako bat da. Indarrean dugun araudiaren arabera, Hizkuntza Proiektua hizkuntzen irakaskuntzari eta erabilerari lotutako alderdien planifikazioa da, ikastetxe bakoitzak bere esparruan garatuko duena.

Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua dokumentu bat da. Bertan jasotzen dira hizkuntzen erabilerari eta haien ikas-irakaskuntzei lotutako erabakiak, eta hizkuntzen trataerari koherentzia ematea du helburu. Hizkuntzen inguruko gogoeta eta erabakien dokumentu profesionala da ikastetxeko komunikazio-esparru zabalari eragiten diona (hizkuntzak eta hizkuntza horien bidez ikastea eta irakastea, hezkuntza-komunitatearen harremanak eta eskolako gizarte-inguru hurbila).

Proiektu guztietan bezala, prozesua dokumentua bera bezain garrantzitsua da, ikastetxeko kide guztien arteko gogoeta eta denek hartutako erabakiak eskatzen baititu. Hizkuntzen presentziari, erabilerari eta haien ikas-irakaskuntzei dagozkien alderdi guztiak hobetzeko aukera ematen du. Horregatik, esku-hartze didaktikoa ez ezik hizkuntzen arteko bizikidetzeta eta kohesioa ere hobetzea dakar.

1.2. Zergatik eta zertarako Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua?

Duela hamarkada batzuk, euskal hezkuntza sistemak bere gain hartu zuen gure erkidegoko ikasle guztiei bi hizkuntza ofizialen ezagutza erreala eta, horrez gain, atzerriko hizkuntza batean ezagutza nahikoa bermatzeko erronka. Helburu horri begira garatuz joan dira hainbat esperientzia, ekimen eta jardunbide emankor, eta, horietako asko, tokian tokiko Hizkuntza Proiektuetan zehaztu eta islatu dira.

Hamarkada hauetan zehar, ikastetxeek aurre egin izan diote gero eta anitzagoa, konplexuagoa eta aberatsagoa den egoera soziolinguistikoari. Gizabanakoen mugikortasunak, ezagutzaren gizartearen eta informazio-eta komunikazio-teknologiaren garapenak hizkuntza-profil gero eta anitzagoak dituzten ikasleentzako hizkuntza-formazio gero eta zabalagoa eskatzen du.

Egun, gure hezkuntza sistemak elebitasuna sendotzea du erronka eta horrez gain, ikasle eleaniztunak lortzea, beren irteera profilean bizitzako eremu guztietan euskaraz eta gaztelaniaz egoki eta eraginkortasunez

komunikatzeko gaitasun nahikoa izango dutenak eta horrez gain, atzerriko hizkuntza batean, gutxienez, gai izango direnak esparru akademikoan, pertsonalean eta gizarte esparruetan modu egokian komunikatzeko.

Helburu horiek erdiesteko, baina, ikastetxe bakoitzak aztertu eta zehaztu egin behar du zein izango den emango duen hezkuntza-erantzunik egokiena; betiere bere ikasleen beharrianak eta ezaugarriak kontuan hartuta. Erantzun hori zehazteko tresna Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua da, gogoeta bidez eta erabaki adostuen bidez, alderdi didaktiko-metodologikoei zein antolaketari dagozkien alderdietan eragiteko tresna, hain zuzen. Proiektu honek irakasleen eta hezkuntza-komunitatearen esku-hartzei koherentzia ematen lagunduko du, ikasleek hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia ikuspuntu eleanitzetik gara dezaten eta, herritar gisa, bete-betean parte har dezaten XXI. mendeko euskal gizartean.

Hizkuntza Proiektuaren garapenak aukera emango du ikastetxe bakoitzaren ingurura eta haren aldaketetara egokitzeko eta, ikastetxearen ibilbidetik abiatuta, eskola birpentsatzeko eta hizkuntzen trataera aberasteko. Hartara, ikastetxeek jardunbide koherenteak finkatzeko aukera izango dute ikasleen hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia garatze aldera.

1.3. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren aurrekariak EAEn

Hezkuntza elebiduna ezarri zenetik, hezkuntza-esparruko araudi guztiek islatu dute ikastetxeek hizkuntzen presentziari, haien erabilerari eta irakaskuntzari lotutako erabakiak hartu behar dituztela, betiere euren inguruaren ezaugarriei egokituta.

Hezkuntza elebiduna hedatu eta sendotu egin da (murgiltze- eta mantentze-ereduen bitartez) eta hezkuntza eleanitza garatzeko urratsak eman dira. Egoera honek ikastetxeak behartu ditu hizkuntzei buruz hartuta zituzten erabakiak berrikustera, gizarte, kultura eta hezkuntza munduko egoera berrietara egokitzeko. Euskal hezkuntza-administrazioak, bere aldetik, eskolako hizkuntzen erabilerari eta haien irakaskuntzari lotutako zenbait ekimen abiarazi ditu, hala nola Hizkuntza Normalizazio Programa, Hezkuntza Eleanitza, Hizkuntzen Trataera Bateratua, Hezkuntza Marko Hirueleduna, Hizkuntza Indartzeko Prestatutako Irakasleak... Horrez gain, gure Erkidegoan egiten diren hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren kanpoko ebaluazioek datuak ematen dituzte, datu horietatik abiatuta, gure hizkuntza-errealitate konplexu eta aberatsari erantzuteko eta, hala, ikasle guztientzat eta hezkuntza sistema osoarentzat hizkuntzen inguruko helburu handiagoak diseinatzeko.

Modu batera edo bestera, ikastetxe guztietan hartu dira hizkuntzen inguruko erabakiak. Hizkuntza Proiektu inplizitua dute. Zenbaitetan, erabaki horiek ikastetxeko kide guztiek adostutako dokumentu batean

jasota daude eta indarrean dago; beste batzuetan, berriz, erabakiek ez dute proiektu formarik edo dagoen proiektuak berrikusteko beharra du.

Gida hau Hizkuntza Proiektua egiteko zereginen ikastetxeei marko orokorra emateko asmoz sortu da. Bere helburu nagusia da jarraibideak ematea proiektu bat zehazten laguntzeko. Bertan, ikastetxeek jasoko dute euren zentroaren ikuspegi globala, komunikazio- eta hizkuntza-bizikidetzarako esparru gisa, eta hizkuntzen trataeraren alderdi berrien inguruko erabakiak hartuko dituzte, betiere indarrean dagoen araudia kontuan hartuta.

1.4. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren ezaugarriak

Oro har, Hizkuntza Proiektuaren ezaugarriak ikastetxeak garatu behar dituen beste proiektu batzuen gisakoak dira: proiektu globalak dira eta antzeko garapena eta erabakiak hartzeko eta haiek praktikara eramateko prozesua dute.

Hala ere, Proiektu honek baditu bere ezaugarri bereziak, honako alderdi hauek islatzen baititu: ikastetxearen inguru soziolinguistikoaren baitan, curriculum-esparruko hizkuntzen egoera, egoera horren isla ikasleen hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian eta bi alderdi horiek hobetzeko helburua.



1.5. Hizkuntza Proiektua egitea: faseak, edukiak eta kudeaketa

Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua egitean bi alderdi bereizi behar dira: alde batetik, dokumentuaren beraren edukiak; eta, bestetik, dokumentua egiteko faseak eta fase horietan inplikaturako eragileak.

↳ Hizkuntza Proiektua egiteko faseak

Hizkuntza Proiektua egitean, erabakiak hartzeko eta haiek abian jartzeko, zenbait fase garatu behar dira ikastetxean. Proiektu gehienek izan ohi dituzten faseak dira: sentsibilizazioa, diagnostikoa, garapena (erabakiak hartzea eta haiek burutzea) eta ebaluazioa. Modu eskematikoan eta orientabide gisa irudikatzen dira eskema honetan:

HIZKUNTZA PROIEKTUA EGITEKO ETA ABIAN JARTZEKO FASEAK

1. PLANIFIKAZIO FASEA

- Faseak, arduradunak eta kronograma zehaztea.

2. SENTSIBILIZAZIO FASEA

- Irakasleak eta Hezkuntza-komunitatea prozesuan inplikatze jarduerak.

3. DIAGNOSTIKO FASEA

- Ikasleen inguruaren eta ikastetxearen inguruaren analisi soziolinguistikoa.
- Hizkuntzen erabileraren eta praktika didaktikoen analisi ikastetxean.
- Ebaluazioen emaitzen analisi.
- Gaur egungo egoeraren analisi eta hizkuntzen inguruan ikastetxeak egin duen ibilbidea.

4. GARAPEN FASEA


- Diagnostikotik datozen datuen inguruko analisi eta gogoeta.
- Erabakiak hartzea eta jarduteko proposamenak.
- Dokumentua idaztea.
- Hezkuntza-komunitateari jakinaraztea eta onartzea.
- Proiektua abiaraztea (Plan Estrategikoa).
- Ebaluazioa eta egokitzapenak prozesu osoan zehar.

5. EBALUAZIO FASEA

- Proiektuaren ebaluazioa.
- Ondorioak eta proposamen berriak.

📌 Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren aurkibidea eta edukiak

Hizkuntza Proiektuaren edukiak hainbat modutan antola daitezke. Gida honetako eranskinetan txantilo bat proposatzen da orientabide gisa. Bertan, edukiak egituratzen eta dokumentua idazten lagun dezakeen aurkibidea dago. Dena den, ikastetxe bakoitzak bere ezaugarrietara eta beharrietara ekar ditzake edukiak, haien garapena eta hedadura.




📄 Parte-hartzea eta kudeaketa Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua egitean

Goian aipatutako faseek hezkuntza-komunitateko hainbat kideren parte-hartzea eskatzen dute. Kide horiek zeregin eta ardura hauek izango dituzte:

- Ikastetxeko zuzendaritzari dagokio honako hauek egitea: proiektua bultzatzea, Hizkuntza Proiektuaren batzordeari lan-plana idazten, egituratzen eta kudeatzen laguntzea, eta hezkuntza-komunitateari proiektuaren berri ematea.
- Koordinatzaileari dagokio lan-plana diseinatzea eta bultzatzea (jarduerak proposatu, emaitzak jaso eta aztertu, dokumentua idatzi, dokumentuaren irakurketa eta onarpena gidatu...).
- Hizkuntza Proiektuaren batzordeari dagokio dokumentua idaztea eta berrikustea, eta, batez ere, ziklo eta departamentuetako lana eta erabakiak hartzeko prozesua dinamizatzea.
- Klaustroari dagokio, lan-taldetan antolatuta, batzordeak proposatutako erabakiak eztabaidatzea, adostea eta, norberari dagozkion alderdietan, haiek betetzea.
- Hezkuntza-komunitateak iritzia emango du prozesu osoan zehar.

Azpiko grafikoak erakusten du Hizkuntza Proiektuaren garapenean parte hartzen duten eragileen, norbanakoen zein taldekoen, arteko interakzioa eta erlazioa.



1.6. Hizkuntza Proiektuaren eta ikastetxeko beste dokumentuen arteko erlazioa

Hizkuntza Proiektuak lotura du ikastetxeko hainbat dokumenturekin. Gure legedi-markoaren arabera, Hizkuntza Proiektuak garatu egin behar ditu Hezkuntza Proiektuak hizkuntzen ikas-irakaskuntzei eta erabilerari buruz jasotzen dituen irizpideak eta zehaztu egin behar ditu, halaber, hizkuntzen trataera Ikastetxearen Curriculum Proiektuan. Era berean, bertan jasoko diren erabakiek ikastetxeko beste dokumentuetan izango dute eragin zuzena.



2. Hizkuntza Proiektua egiteko faseak

Badirudi argi dagoela, esandako guztia kontuan hartuta, hizkuntzak “zeharkako” izaera duela (hizkuntzak eskolako arlo guztiak zeharkatzen ditu), pentsamendua egituratzeko funtzioa du eta gizabanakoen arteko harremanak ezartzeko eginkizuna. Horregatik, irakasle guztien egitekoa da ikasleen hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia garatzea, edozein delarik irakasten den arloa.

Edoardo Lugarini

Hizkuntza Proiektua egitea zein hura berrikustea eta eguneratzea zenbait fasetan garatu behar da. Nahiz eta fase horiek elkarri lotuta egon, gida honetan modu linealean aurkezten dira. Ikastetxe bakoitzak bere erara antola ditzake bere beharrezan eta dinamiken arabera.

Fase horietako bakoitzaren deskripzioan hiru atal hauek azaltzen dira: garrantzia, parte-hartzaileak eta emaitza edo ekoizpena. Fasearen deskripzioa burutzeko, zenbait jarduera eta tresna aurkezten dira. Horien helburua da gogoeta bultzatzea eta erabakiak hartzen laguntzea.

2.1. PLANIFIKAZIO FASEA

[garrantzia](#)

Hizkuntza Proiektua egiteak zein gaurkotzeak prozesu gidatua eta aurrez planifikatua izan behar du. Parte-hartzearen dinamika, gogoeta eta lortuko den inplikazioa hartuko diren erabakien kalitate-adierazle dira, bai eta proposamen horiek izan duten atxikimenduaren adierazle ere. Horregatik, planifikazio faseak denbora nahikoa behar du hurrengo lan-prozesuaren oinarriak ezartzeko.

[parte-hartzaileak](#)

Lehenik eta behin, zuzendaritza-taldeak balioetsiko du zer-nolako beharrezan edota aukerak dauden Hizkuntza Proiektua egiteko edota ikastetxeak eginik duena gaurkotzeko.

Ikastetxeak, bere ezaugarrien eta barruko dinamiken arabera, berariazko batzordea sortzeko aukera aztertuko du (Hizkuntza Proiektuaren batzordea), proiektua bultzatzeko eta garatuko diren faseei koherentzia emateko. Horrez gain, bertako antolaketa-egiturak, hala nola batzorde pedagogikoa, zikloak, departamentuak... baliatzeko modurik egokienak aztertuko ditu. Nolanahi ere, funtsezkoa da proiektu honetako eragile guztien partaidetza ziurtatzea, zein bere jarduera-esparruan, eta horrekin batera, prozedura guztien zehaztasuna eta garbitasuna ere bermatzea, hartuko diren erabakiek hezkuntza-komunitatearen gehiengoaren iritzia jaso ditzaten eta lotesleak izan daitezzen.


Hizkuntza Proiektuaren batzordean bospasei irakaslek parte hartzea komeni da, profil, ezaugarri eta ikuspuntu desberdinak biltzeko. Talde horretan egon litezke, besteak beste, zuzendaritza-taldeko kide bat, ikastetxean irakasten diren hizkuntzen ordezkari bana eta mintegi edo ziklo koordinatzaile bat, bai eta Hizkuntza Normalkuntza teknikaria, halakoa duten ikastetxeetan. Batzordeko kide bat izango da koordinatzailea.

📄 emaitza | ekoizpena

Fase honetako emaitza kronograma bat da. Bertan, prozesuaren faseak, egitekoak eta erabakiak hartzeko mailak zehaztuko dira. Tresna horrek jasoko ditu aurreikusitako jarduerak eta haiek egiteko denborarepeak, arduradunak eta parte-hartzaileak.

📄 jarduerak

Fase hau garatzeko, honako jarduera eta tresna hauek proposatzen dira:



JARDUERA



Kronograma egitea

1

HELBURUAK

- Proiektuaren faseak diseinatzea.
- Egitekoak zehaztea.
- Lan-prozedurak diseinatzea.
- Arduradunak izendatzea eta haien parte-hartze maila zehaztea.
- Egutegia finkatzea.

prozedura

Zuzendaritza-taldeak eta Hizkuntza Proiektuaren koordinatzaileak beharrianak, lehentasunak, helburuak... aztertuko dituzte proiektua testuinguratzeko eta ekimen honek eskatzen duen lan-prozesuaren tamaina balioesteko.

Hizkuntza Proiektuaren batzordean honako hauek zehaztuko dira: prozesuaren faseak eta egitekoak, arduradunak, fase horietako bakoitzean parte hartuko duten eragileak eta fase horiek burutzeko behar den denbora.

emaitza | ekoizpena

denbora | denboralizazioa

Hizkuntza Proiektua egiteko edo gaurkatzeko kronograma.

Hiru orduko lan-saioa.

tresnak

ereduak | adibideak

1.1. tresna. Hizkuntza Proiektuaren kronograma antolatzeko txantiloia | 51. or.

1.1. adibidea. Hizkuntza Proiektua egiteko kronograma | 117. or.

2.2. SENTSIBILIZAZIO FASEA

📄 garrantzia

Hizkuntza Proiektua garatzeko lehendabiziko urratsa hezkuntza-komunitatearen inplikazioa lortzea da. Horretarako, ezinbestekoa da Proiektuaren ezaugarriez eta garrantziaz jabetzea. Fase honetan, aukera eman behar zaio hezkuntza-komunitateari hizkuntzen inguruan dituen iritziak eta usteak azaleratzeko, denen parte-hartzea lortze aldera.

📄 parte-hartzaileak


Hizkuntza Proiektua hezkuntza-komunitate osoari dagokio. Batzordeak, zuzendaritzarekin batera, sentsibilizazio faseko jarduerak antolatzeko ardura hartuko du. Klaustrokideak dira fase honetako eragile nagusiak. Horrez gain, Ordezkaritza Organo Gorenaren eta gurasoen elkartearen partaidetza ere bermatu behar da.

📄 emaitza | ekoizpena

Fase honetan, agerian jarriko dira ikastetxeko kideek hizkuntzen inguruan dituzten asmoak, nahiak, gogoak, kezak, zalantzak, desadostasunak... eta horiek erakutsiko dute, hain zuzen, Hizkuntza Proiektua bera egiteko edo berregiteko beharra. Ideia horiek Hizkuntza Proiektua dokumentuaren *Sarrera* atalean islatuko dira.

📄 jarduerak

Fase hau garatzeko, jarduera eta tresna hauetako bat (batzuk) erabil daite(z)ke:



JARDUERA



Klaustrokideen iritziak azaleratzeko galde-sortak

2

HELBURUAK

- **Klaustrokideen iritziak azaleratzea.**
- **Hizkuntza Proiektuak biltzen dituen gogoeta-esparruak aurreikustea.**

prozedura

Hiru galde-sorta proposatzen dira eredu gisa (ikastetxeak bere beharrianen eta egoeraren arabera molda ditzake).

Jarduera hau burutzeko bi aukera hauek aurreikusten dira:

- Irakasleek, klaustroan bilduta eta talde heterogeneotan, erantzungo dituzte galde-sortak. Gero, talde handian azalduko dituzte sortutako adostasunak eta taldekideen arteko desadostasunak.
- Galde-sortak banatu eta irakasleek banaka erantzungo dituzte. Koordinatzaileak, Hizkuntza Proiektuaren batzordekideek lagunduta, erantzunak jasoko ditu eta ikastetxearen “argazkia” aterako du, adostasunak eta desadostasunak ikusaraziz.

emaitza | ekoizpena

denbora | denboralizazioa

Galde-sorta hauek ez dute erantzun bakarra. Irakasleen eztabaida bultzatzea dute helburu; izan ere, erantzunen arteko aldeak Hizkuntza Proiektuaren inguruko eztabaidaren abiapuntua izan daitezke.

30 minutuko saioa: 5 minutu galde-sorta betetzeko eta 25 minutu inguru erantzunen gainean aritzeko.

tresnak

ereduak | adibideak

2.1. tresna. A galde-sorta, Hizkuntza Proiektuaren xedeaz eta esanahiaz | 52. or.

2.2. tresna. B galde-sorta, Hizkuntza Proiektua egiteko zergatiaz | 53. or.

2.3. tresna. C galde-sorta, Hizkuntza Proiektuak dakartzan erabakiez | 54. or.

JARDUERA



Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren inguruko azalpena

3

HELBURUAK

- Hizkuntza Proiektuaren ezaugarriak ezagutaraztea.
- Hizkuntza Proiektuak ikastetxe barruan biltzen dituen gogoeta-esparruak aurreikustea.
- Hezkuntza Komunitatearen inplikazioa lortzea.

prozedura

Koordinatzaileak hezkuntza-komunitateari azalduko dio zertan datzan Hizkuntza Proiektua. Saioaren bukaeran, Hizkuntza Proiektuaren batzordeak eta zuzendaritza-taldeak zalantzak eta galderak erantzungo dituzte.

emaitza | ekoizpena

Hizkuntza Proiektuaren garrantziaz jabetuta, Hezkuntza-komunitateko kideen jarrera proaktiboa eta asertiboa sustatzea.

denbora | denboralizazioa

40 minutuko saioa: 15 minutu azalpenerako eta 25 minutu galderak, zalantzak... erantzuteko.

tresnak

3.1. tresna. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren inguruko aurkezpen digitala | 55. or.

ereduak | adibideak

JARDUERA



Irakasleen gogoeta

4

HELBURUAK

- Ikastetxeko hizkuntzen erabileraren eta horri lotutako erabakien inguruan hausnarketa egitea.

prozedura

Solasaldi bat antolatuko da eta hiru gai jorratuko dira:

- Harremanen, kudeaketaren eta antolakuntzaren esparrua. Nolako erabakiak hartu behar ditugu?
- Hizkuntzen erabilera eta erabaki didaktiko-metodologikoak arlo ez linguistikoetan. Nolako erabakiak hartu behar ditugu?
- Hizkuntzen erabilera eta erabaki didaktiko-metodologikoak hizkuntzen esparruan. Nolako erabakiak hartu behar ditugu?

Hiru mintzagai eta hiru solas-mahai (mahai bakoitzean gai bat, alegia). Partaide bakoitzak 3 mahaietan jardun behar du eta denbora agortutakoan lan-taldez aldatu. Txandaka: 15 minutuko solasaldiak mahai bakoitzean.

Solas-mahai bakoitzean gidari bat eta beste bospasei solaskide. Mintzagai bakoitzak bizpahiru galdera ditu eztabaida bideratzen laguntzeko. Mahai-gidariak eztabaida antolatu eta esandakoa idatziz jasoko du.

Jarduera hau amaitzeko, Hizkuntza Proiektuaren hiru atal nagusienetan partaideek eman dituzten iritzien inguruan hitz egingo da, horiek guztiak klaustroari dagozkion erabakiak direla ikusarazteko.

emaitza | ekoizpena

denbora | denboralizazioa

Hizkuntzen inguruan ikastetxeak har litzakeen erabakiak.

60 minutuko saioa: 15 minutu mahai bakoitzean aritzeko eta 15 minutu inguru mahaietako gidariak euren mahaian eztabaidatutakoa laburbiltzeko.

tresnak

ereduak | adibideak

Hiru txantilo proposatzen dira erabaki-eremuen arabera. Bertan, mahai bakoitzean jorratuko diren galderak jaso dira. Gogoeta-eremuak ezin dira aldatu; galderek, ordea, tokian tokiko egokitzapena onartzen dute.

4.1. tresna. Harremanen, kudeaketaren eta antolakuntzaren esparrua | 56. or.

4.2. tresna. Arlo ez linguistikoak | 57. or.

4.3. tresna. Arlo linguistikoak | 58. or.

2.3. DIAGNOSTIKO FASEA

[garrantzia](#)

Aurrera begiratzen duen edozein egitasmotan garrantzitsua da uneko egoeraren azterketatik abiatzea. Non eta nola eragingo dugun erabaki ahal izateko, abiatzeko egoeraren deskribapena (ahalik eta zehatzena) eta interpretazioa (ahalik eta zorrotzena) egitea komeni da. Gainera, azterketa hori aldiro egiteak balioko digu bilakaeraren berri izateko (zehatza eta ebidentzietan oinarritua), baita esku-hartzea egokitzen eta doitzen joateko ere. **Egoeraren azterketa ahalik eta zehatzena egitea komeni da, bai. Hala ere, denbora mugatuan, diagnostiko fasean denbora luze ematea ez da eraginkorra izaten.**

[parte-hartzaileak](#)

Hizkuntza Proiektuaren batzordeak planifikatu eta koordinatuko du fase honetako lana. Datuak biltzeko eta interpretatzeko zein egoera deskribatzeko lan nagusiak bideratuko ditu; betiere, irakasle-taldeko gainerako kideen lankidetzarekin.

Datuak jasotzen hasi baino lehen, batzordeak aintzat hartuko ditu ikastetxeak ordurako jasota dituenak (matrikula garaian, Hizkuntza Normalkuntza Proiektuko diagnostikoan edo beste uneren batean). Jasota dituen datuei erreparatuta erabakiko du, hizkuntza-egoeraren azterketa egoki bat egin ahal izateko, datu gehiago jaso behar ote dituen; eta, hala balitz, nola jasoko dituen. Horretarako, fase honetarako proposatutako jarduerak eta tresnak balia ditzake. Ikastetxeari iruditzen bazaio datu zehatzagoak behar dituela edota azterketan sakondu behar duela (oro har edo alderdi bereziren batean) aurkituko ditu proposamenak eta tresnak *Diagnostikorako beste tresna batzuk* izeneko eranskinean.

Gainerako irakasleek ere badute zer eginik: datu bilketan laguntzea eta egoeraren interpretazioan parte-hartzea.

Ikasleek, familiarek, langile ez-irakasleek eta ikasleek ere datu bilketan parte har dezakete, eskatzen zaizkien datuak ekarriz. Ikasleek, gainera, irakasleei egokia irudituz gero, datuen bilketan eta lanketan esku-hartze aktiboa izan dezakete, izan gelako lan gisa (diziplinarteko proiektu baten barnean) edota borondatezko lan moduan (Hizkuntza Normalizaziorako Batzordearen proposamenari jarraituz, esaterako).

[emaitza | ekoizpena](#)

Fase honen amaieran, ikasleen eta ikastetxearen hizkuntza-egoeraren zein hizkuntza-erabileraren eta -irakaskuntzaren deskripzioa izango du ikastetxeak. Eta hobekuntzarako alderdi edo eremu nagusiak identifikatuak izango ditu.

Hori guztia Hizkuntza Proiektuaren *Egoeraren analisia* atalean jasoko da.


Ikasleen eta ikastetxearen hizkuntza-egoera deskribatzeko, honako eremu hauei buruzko zenbait datu esanguratsu bilduko dira.

- Ikasleen etxeko eta herriko hizkuntza-ingurunea
- Ikastetxearen hizkuntza-egoera
- Hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza ikastetxean

Datu horiek irakurri eta aztertuta, hobetzeko proposamenak jaso eta esku-hartzeko lan-eremu nagusiak identifikatuko dira; hau da, Hizkuntza Proiektuaren bidez non eta nola eragin nahi den erabakiko da, aurrerapausoak emateko ikastetxearen hizkuntza-asmoak betetze aldera. **Hobekuntzarako proposamen edota esku-hartzeko lan-eremu horiek garapen fasean prestatuko den plangintzaren oinarri izango dira.**

[📌 jarduerak](#)

Fase hau garatzeko, honako jarduera eta tresna hauek proposatzen dira, ikastetxeak behar dituenak erabil ditzan:



JARDUERA



Ikasleen hizkuntza-ingurunea

5

HELBURUAK

- **Ikasleen ikastetxez kanpoko (etxeko eta auzoko-herriko) hizkuntza-ingurunea nolakoa den ezagutzea, eskolari (hizkuntza-xedeak lortze aldera) nolako aukerak eskaintzen eta nolako erronkak planteatzen dizkion identifikatzeko.**

prozedura

Ikastetxeak dituen datuak ikusita, batzordeak erabakiko du datu gehiago behar ote duen, datu horiek zeintzuk diren eta nola lortuko dituen. Datuak biltzeko orduan batzordeak irakasleen laguntza beharko du (bereziki irakasle-tutoreena); baita, agian, ikasleena edo haien familiena ere.

Zaindu egin behar da informatzaileengan neke edo zama sentsazioa ez sortzea. Horretarako, solaskide bakoitzari eskatuko zaion informazio guztia batera eskatzea komeni da; eta eskaera egiteko ohiko foro bat baliatzea (ziklo-, departamentu- edo klaustro-bilera...). Saio horretan datuak eskatzeaz gain, datu horien beharra azaldu eta justifikatuko da, eta datuak biltzeko tresnak aurkeztu eta nola bete azalduko da. Datuak emateko epe laburra, baina behar bestekoa, jartzea komeni da (bi aste, gehienez)

Batzordeak, datuen laburpena prestatu ondoren, horien azterketa egingo du. Identifikatuko ditu etxeko eta herriko hizkuntza-giroak eskaintzen dizkion aukerak eta planteatzen dizkion erronkak, eskolak ikasleen hizkuntza-gaitasun elebiduna eta eleaniztuna lortzeko duen xedeari begira. Aukera eta erronka horiek iradokitzen dituzten esku hartzeko ildoak edo hobetzeko proposamenak ere islatuko dira.

emaitza | ekoizpena

denbora | denboralizazioa

Ikasleen etxeko eta herriko hizkuntza-ingurunearen deskribapena: ikasleek ikastetxez kanpo bizi duten hizkuntza-giroari buruzko daturik esanguratsuenak.

Hiru aste.

tresnak

ereduak | adibideak

5.1. tresna. Hizkuntzen ezagutza eta erabilera etxean | 59 or.

5.2. tresna. Informazio-iturriak, herriko edo auzoko hizkuntza-ingurunea ezagutzeko | 61-62 or.

5.3. tresna. Etxeko, herriko eta ikastetxeko hizkuntza-ingurunea. Taldeko datuen laburpena, tutoreak egin | 63-64-65 or.

5.4. tresna. Etxeko, herriko eta ikastetxeko hizkuntza-ingurunea. Ikastetxeko datuen laburpena, batzordeak egin | 67-68-69 or.

5.1. adibidea. Ikasleen hizkuntza-ingurunea | 119-120 or.



Baliteke ikastetxeak datu horietako batzuk dagoeneko edukitzea, Hizkuntza Normalizazio Proiekturako diagnosian jaso dituelako.

JARDUERA



Ikastetxearen hizkuntza-giroa

6

HELBURUAK

- Ikastetxearen hizkuntza-giroari buruzko daturik esanguratsuenak biltzea, ikasle elebidunak eta eleaniztunak lortzeko asmoari begira, zein neurritan laguntzen duten ikusteko eta hobetzeko moduko alderdi edo eremuak identifikatzeko.
- Ikastetxeak -hizkuntzei dagokienez- egin duen ibilbidea aztertzea; etorkizunari begirako ondorioak eta ikasbideak ateratzeko egungo hezkuntza-erantzuna hobetze aldera.

prozedura

Ikastetxeak dagoeneko dituen datuak ikusita, batzordeak erabakiko du datu gehiago behar ote duen. Jarduera honetan proposatzen diren tresnak baliagarri suerta dakizkioke batzordeari behar duen informazioa eskuratzeko.

Batzordeak, datuak biltzeko lanean, segur aski, irakasle guztiengana jo beharko du. Zuzendaritza-taldeetan eta beste zenbait arduraren lanetan aritutakoen ekarpena oso lagungarria izango da ikastetxearen ibilbidearen mugarririk identifikatzeko orduan. Irakasle guztiengana, profesionalen hizkuntza-egoerari buruzko zenbait datu eskuratzeko.

Datuak jaso eta antolatutakoan, identifikatuko da ikastetxearen hizkuntza-giroak zein aukera eskaini eta zein erronka planteatzen dituen hizkuntza-xedeen lorpenari begira.

emaitza | ekoizpena

- Ikastetxearen hizkuntza-giroaren deskripzioa.
- Ikastetxearen hizkuntza-ibilbidearen narrazioa, eta egindako ibilbidetik eratorritako ikasbideak eta ondorioak.
- Esku-hartzeko ildoan eta hobetzeko proposamenen identifikazioa.

denbora | denboralizazioa

Hiru aste [5. eta 6. jarduerak aldi berean egitea gomendatzen da].

tresnak

- 6.1. tresna.** Galde-sorta irakasleentzat. Ikastetxearen hizkuntza-giroa | 71-72 or.
- 6.2. tresna.** Ikastetxearen hizkuntza-giroa. Ikastetxeko datuen laburpena, batzordeak egina | 73-74-75-76-77-78 or.
- 6.3. tresna.** Batzordearentzako gidoia. Ikastetxearen hizkuntza-giroa eta -ibilbidea | 79-80-81 or.

ereduak | adibideak

6.1. adibidea. Ikastetxearen hizkuntza-giroaren eta -ibilbidearen analisisa | 121-122. or.



Baliteke ikastetxeak datu horietako batzuk dagoeneko edukitzea, Hizkuntza Normalizazio Proiekturako diagnosian jaso dituelako.

JARDUERA



Hizkuntzen ikas-irakaskuntzari buruzko datuak biltzea

7

HELBURUAK

- **Hizkuntzen antolamendu, irakaskuntza eta ebaluazioarekin lotutako erabakiak eta hauek hobetzearen aldeko iritziak biltzea. Jasoko diren datuen artean bi motakoak izango ditugu: egungo egoerari buruzkoak eta hobetzeko proposamenak.**

prozedura

Galde-sorta honek hizkuntzen ikas-irakaskuntzari lotutako erabaki gehienei buruzko galderak jaso nahi izan ditu bere atal ezberdinetan. Dena den, ikastetxe bakoitzak erabaki dezake atal bakar bati edo batzuei buruzko datuak jasotzea eta beste datuen bilketa aurreragorako uztea, unean uneko interesen arabera.

Honako hau da datuak biltzeko jarrai daitekeen prozedura:

- Lehenik eta behin, *Hizkuntzen ikas-irakaskuntzari buruzko galde-sorta* banatuko dugu Hizkuntza Proiektuaren batzordekideen artean. Galde-sorta honen bidez ikastetxeko ikas-irakaskuntzaren eremu guztiak aztertu nahi izan dira: antolamendurako erabiltzen diren hizkuntz irizpideak, hizkuntzen ikas-irakaskuntza prozesua arlo-ikasgai linguistikoetan, hizkuntzen ikas-irakaskuntza arlo-ikasgai ez linguistikoetan eta eleaniztasuna.
- Galde-sorta aztertu eta gero, batzordeak ikastetxeak zein datu jaso nahi dituen erabakiko du.
- Jarraian, *Hizkuntzen ikas-irakaskuntzari buruzko galde-sorta* betetzea dagokien irakasleei banatuko zaie. Lehen atala, Hizkuntza Proiektuaren batzordeak beteko du; bigarrena, hizkuntzetako irakasleek, maila edo departamentuka; hirugarrena, gainontzeko arlo-ikasgaietako irakasleek eta, azkena, irakasle guztiak.
- Azkenik, hamabost egunetara, batzordeak irakasleek betetako galde-sortak jasoko ditu.

emaitza | ekoizpena

denbora | denboralizazioa

Ikastetxean une horretan egiten den hizkuntzen antolamendu, irakaskuntza eta ebaluazioari buruzko datuak eta hobetzeko proposamenen bilduma.

Hiru aste.

tresnak

ereduak | adibideak

- 7.1. tresna.** A galde-sorta. Antolamendurako erabiltzen diren hizkuntza-irizpideak | 82. or.
- 7.2. tresna.** B galde-sorta. Hizkuntzen irakas-irakaskuntza prozesua arlo-ikasgai linguistikoetan | 83-84-85-86-87. or.
- 7.3. tresna.** C galde-sorta. Hizkuntzen ikas-irakaskuntza arlo-ikasgai ez linguistikoetan | 89-90. or.
- 7.4. tresna.** D galde-sorta. Eleaniztasuna | 91. or.

- 7.1. adibidea.** Antolamendurako erabiltzen diren hizkuntza-irizpideak. Haur eta Lehen Hezkuntza | 123. or.
- 7.2. adibidea.** Hizkuntzen ikas-irakaskuntza arlo-ikasgai ez linguistikoetan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza | 124. or.

JARDUERA



Datuak jaso eta sailkatzea

8

HELBURUAK

- Ikastetxeko hizkuntzen egoeraren datuak eta hauek hobetzeko proposamenak jasotzea, ondoren, hauen interpretazioa egiteko.

prozedura

Hizkuntza Proiektuaren batzordeak aukeratu eta erabilitako galde-sorten bidez bildutako datu eta proposamenak taula batean jaso eta sailkatuko ditu: *Datuak jaso eta sailkatzeko taula*. Taulak hiru atal hauek ditu:

- Ikaslearen hizkuntzaren ingurunea.
- Ikastetxeko hizkuntzaren giroa.
- Hizkuntzen ikas-irakaskuntza ikastetxean.

Ikastetxeek, bakoitzak egin duen datu bilketaren arabera, taularen atal bat edo beste beteko dute. Diagnostiko osoa egin duten ikastetxeek taularen hiru atalak beteko dituzte.

Datuak eta proposamenak jasotzea esaten dugunean, iritziak laburbiltzea esan nahi dugu, hau da, antzeko erantzunak erantzun bakar batean biltzea. Erantzun bakoitza ematen dutenen kopuruaren datua kontuan izatea lagungarri izan daiteke lehenetsuneko jarduerak erabakitzeke.

Datuak sailkatzeko orduan honako hauek izango ditugu kontuan:

- Lehen zutabeetan, egoerari buruzko datuak.
- Bigarrenetan, egoera hori hobetzeko proposamenak.
- Azken zutabeetan, hobetzeko proposamenei ematen zaien lehentasuna jarriko da.

| emaitza ekoizpena | denbora denboralizazioa |
|--|--|
| <p>Hizkuntza Proiektuaren diagnostikoa egin eta gero, bertan jasotako datu eta hobekuntzarako proposamenak sailkatuta izango ditugu.</p> <p>Taula honetako bigarren eta hirugarren zutabeetatik (Zer hobetu behar dugu?, Lehentasunak: 1,2,3) abiatuko gara, hurrengo fasean, datuak interpretatu eta ikastetxean antzematen diren lehentasunak ondorioztatzeke.</p> | Bi aste. |
| tresnak | ereduak edibideak |
| <p>8.1. tresna. Datuak jaso eta sailkatzeko taula 92. or.</p> | <p>8.1. adibidea. Datuen analisia. Harremanen, kudeaketaren eta antolaketaren eremua 125. or.</p> <p>8.2. adibidea. Datuen analisia. Hizkuntzen ikas-irakaskuntza arlo-ikasgai ez linguistikoetan 126. or.</p> |

2.4. GARAPEN FASEA

📄 garrantzia

Hauxe da Hizkuntza Proiektuaren faserik esanguratsuena. Bertan bildu eta zehaztu egin behar dira ikastetxearen hizkuntza-planteamendua eratzen duten erabakiak. Horiexek hobetuko dituzte hizkuntzen inguruko jardunbideak ikastetxean.

Hizkuntza Proiektua bera dugu fase honetan. Horrenbestez, erabakiak hartu behar dira, erabaki horiek abiarazi eta ikastetxean eta ikasgelan islatu. Berebiziko garrantzia du fase honek.

Horregatik, lau ikasturtean zehar jorra daitekeen fase honetan, gida honetako eranskinetan proposatzen den *Gogoetarako eta ideiak trukatzeko orientabideak* dokumentuan bildutakoak hartu behar dira kontuan. Bertan, modu trinkoan eta labur jaso dira harremanen, kudeaketaren eta antolakuntzaren esparruan eta esparru didaktiko-metodologikoan har daitezkeen zenbait erabaki. Dokumentu horrek batzordeari lagun diezaioke hizkuntzen inguruko helburuak zehazten eta helburu horiek erdiesteko jarduerak eta ekimenak finkatzen. Ez dugu ahaztu behar proiektu honen azken xedea dela hizkuntzen erabilera eta ikasleen hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia hobetzea.

Garrantzitsua da fase hau bizia eta bizkorra izatea, aurreikusitako aldaketak abian jartzeko aukera eman dezan. Hala ere, zenbaitetan, erabakiak ezartzeko, haiek ebaluatzeko eta berrikusteko prozesuak ez dira linealak izaten errekurtsiboak baizik.

Komeni da alderdi zehatz batzuei lotutako erabaki argi eta adostuetatik abiatzea, eta horiek, gerora, osatzea, eta garatzea.

📄 parte-hartzaileak

Hizkuntza Proiektuaren batzordeak du fase honen ardura. Berari dagokio lan-ildo nagusiak zehaztea.

Hala ere, lehenengo erabaki hauek ere klaustrakideen eta hezkuntza-komunitatearen onospena behar dute. Horregatik, ikastetxe bakoitzak beren ohiko bideak eta egiturak erabiliko ditu onospena lortzeko.


📄 emaitza | ekoizpena

Fase honetako emaitza Hizkuntza Proiektuaren atal hauetan biltzen den edukia da: helburuak, Hizkuntza Planteamendua, Plan Estrategikoa eta urteko ebaluazioa.

Atal horietan ikastetxearen lau urteko jardunbidea zehazten da. Halaber, Hizkuntza Proiektuaren erabakiek isla izango dute ikastetxearen urteko planetan eta memorietan.

📄 jarduerak

Fase hau garatzeko, honako jarduerak eta tresna hauek proposatzen dira:



JARDUERA



Datuak interpretatzea

9

HELBURUAK

- Diagnostiko faseko *Datuak jaso eta sailkatzeko taulan* jasotako datuak interpretatzea.
- Hizkuntza Proiektuaren lehentasunezko jarduerak zehaztea.

prozedura

Datuak jaso eta sailkatzeko taularen bigarren zutabean (8.1. tresna), ikastetxeko hizkuntzen trataera hobetzeko irakasleek egindako proposamenak jaso dira eta, azken zutabean, lehentasunak jarri dira. Azken taulako proposamen eta lehentasun mailetan oinarrituta, Hizkuntza Proiektuko jarduera nagusiak hautatuko dira. Hautaketa hau ikuspuntu estrategikotik egingo da eta lehentasunezko jarduerak aukeratzean lau urteko proiektua dela izango da kontuan.

emaitza | ekoizpena

denbora | denboralizazioa

Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren lehentasunezko jarduera-esparruen zerrenda.

Bi aste.

tresnak

ereduak | adibideak

9.1. tresna. Datuak interpretatzeko eta lehentasunezko jarduera-esparruak hautatzeko taula | 93. or.

9.1. adibidea. Hizkuntza Proiektuaren lehentasunezko jarduera-esparruak hautatzea | 127. or.

JARDUERA



Helburuak zehaztea

10

HELBURUAK

• Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren helburuak zehaztea.

prozedura

Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuak zehaztu egin behar ditu Hezkuntza Proiektuak hizkuntzen inguruan biltzen dituen printzipioak eta helburuak. Beraz, Hezkuntza Proiektua da erreferentzia nagusia eta lehendabizikoa.

Helburu zehatz gisa adieraziko dira diagnostiko fasean antzeman diren lehentasuneko jarduerasparruak eta horiek, gerora, Plan Estrategiko baten bitartez garatuko dira.

Hizkuntza Proiektuaren batzordeari dagokio Plan Estrategikoaren helburuak zehaztea. Xede zehatz horiek erabakita, ohiko bideak baliatuko ditu klaustrokideei helarazteko, haiek berrikusi, aztertu, eztabaidatu eta onetsi ditzaten.

Irakasleen iritzia jasota, helburuak onetsi egingo dira ikastetxeak dituen egitura eskudunen bidez. Azkenik, hezkuntza-komunitateari jakinaraziko zaizkio.

emaitza | ekoizpena

denbora | denboralizazioa

Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren helburuen zerrenda.

Bi aste helburuak idazteko eta irakasle-taldeak ikusteko, aztertze eta onartzeko.

tresnak

ereduak | adibideak

10.1. tresna. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren zehaztea eta idaztea | 94. or.

10.1. adibidea. Ikastetxearen hizkuntza-helburuak. Zer nahi dugu? | 129-130. or.

JARDUERA



Ikastetxearen Hizkuntza Planteamendua¹

11

HELBURUAK

• **Ikastetxearen Hizkuntza Planteamendua adostea eta zehaztea.**

prozedura

Hauxe da Ikastetxearen Hizkuntza Planteamendua: ikastetxearen jardunbidea gidatzen duten irizpideen eta erabakien multzoa, hizkuntzen irakaskuntzari eta haien erabilerari lotua.

Planteamendu honek eguneroko jarduneko erabaki zehatzak hartzen laguntzen du. Horrez gain, erabilgarria da bertan jasotzen diren irizpideak eta jardunbideak familiei, irakasleei edo hezkuntza-komunitatera etorri berriak diren irakasleei zein irakasle ez diren langileei jakinarazteko.

Abiapuntu gisa, Hizkuntza Proiektuaren batzordeak ikastetxeak indarrean dituen irizpideak eta iritziak berrikusiko ditu. Horretarako, lagungarri izango zaizkio diagnostiko faseko 6, 7, eta 8. jarduerak (ibilbidea eta indarrean ditugun praktikak aztertzea). Analisi hori osatzeko komeni da hizkuntzen irakaskuntza eta haien erabilerari buruz ikastetxeak urteetan zehar hartu dituen erabakiak biltzen dituzten dokumentuak aztertzea (Hezkuntza Proiektua, Curriculum Proiektua, Hizkuntza Normalkuntza Proiektuak, Hezkidetzak, Kultura-artekotasuna, Elkarbizitza, AJA...)

Jarduera honetan proposatzen den tresna alde batetik, eta gida honetako material osagarriak, bestetik, baliagarriak dira datuen jasoketa egiteko, azaleratu behar diren alderdiak eta erabaki behar direnak zehazteko eta haien inguruko gogoeta, eztabaida eta erabakiak hartzeko prozesua bideratzeko.

Aztertutako materialaren arabera, Hizkuntza Proiektuaren batzordeak Hizkuntza Planteamenduaren lehenengo zirriborroa idatziko du. Ondoren, ohiko bideak erabiliko ditu hura zabaltzeko eta irakasle-taldeari helarazteko, haiek onetsi edo alda dezaten. Onetsitakoan, hezkuntza-komunitateari helaraziko zaio.

emaitza | ekoizpena

denbora | denboralizazioa

Hizkuntza Proiektuaren *Ikastetxearen Hizkuntza Planteamendua* atala idaztea.

Aste bat edo bi, abiapuntu gisa hartuko diren dokumentuak aztertzeko eta batzordeak proposamenak idazteko.

Horrez gain, bi lan-saio beharko dira irakasle-taldeak proposamenen inguruan gogoeta egin, haiek hobetu eta planteamendua adosteko.

tresnak

ereduak | adibideak

11.1. tresna. Ikastetxearen Hizkuntza Planteamenduaren datuak jasotzeko taula | 95. or.

11.1. adibidea. Ikastetxearen Hizkuntza Planteamendua | 131-132-133-134. or.

¹ Ikastetxeek hartuta dituzte erabaki asko hizkuntzen erabilerari eta haien irakaskuntzari buruz eta garatuta dituzte haien inguruko irizpideak eta ohiturak euren ibilbidean zehar. Horietako asko esplizituki adostu dira, beste batzuk, berriz, modu inplizituan txertatu dira. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua aukera ona da planteamendu horiek berrikusteko, oraindik baliagarriak direnak berresteko eta indarra galdu dutenak berriro zehazteko. Orobat, modu inplizituan funtzionatzen zuten haiek agerian jarriko dira eta zehaztu gabe zeudenak eta beharrezkotzat jotzen direnak adostuko dira.

JARDUERA



Plan Estrategikoaren diseinua

12

HELBURUAK

• Plan Estrategikoa diseinatzea.

prozedura

Plan Estrategikoa Hizkuntza Proiektuaren atal eragilea da. Lau urteko epealdian ikastetxeak garatuko duen jarduera-multzoa biltzen du, aurreikusitako helburuak lortze aldera. Plan Estrategikoak Ikastetxearen Urteko Planean egon behar du islatuta.

Hainbat modutan diseinatu daiteke. Helburuak eta jardunbide-markoa zehaztuta eta ikastetxe osoak hura onartuta, Hizkuntza Proiektuaren batzordeak Plan Estrategikoaren lehendabiziko diseinua egingo du. Ondoren, hezkuntza-komunitateak osatu, berrikusi, aberastu eta onartu egingo du. Era berean, lehendabiziko diseinua zikloka edo departamentuka egin daiteke eta, ondoren, lehenengo zirriborro hori ikastetxe osoak berrikusi eta, hala badagokio, onartu egingo du.

Atal hau garatzeko, komeni da lan kooperatiborako teknikaren bat edo talde-dinamikaren bat baliatzea irakasleen partaidetza bultzatzeko.

Plan Estrategikoa diseinatzean, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Helburu zehatzak honelakoak izango dira: neurgarriak, behagarriak eta lortzeko modukoak. Horregatik, zehatz adieraziko dira ekintza-aditzak erabiliz eta “ulertzea” edo “ikastea” gisakoak saihestuz; izan ere, zaila da halakoak neurtzea.
- Jarduera bakoitzak helburu bat izango du. Hala ere, helburu batek balio lezake jarduera-esparru bereko beste jarduera baterako edo batzuetarako.
- Jardueraren edo koordinazioaren ardura norbanako batek edo talde batek hartuko du.
- Arduradunak ziurtatuko du jarduera aurreikusita bezala garatzen eta inplementatzen dela, denbora-epreak betetzen direla, baliabideak abiarazi edo lortu direla.
- Jarduera bakoitza garatzeko epea zehaztuko da: jardueraren hasiera-amaierak eta aldizkakotasuna ere bai.
- Ahal delarik, ikastetxeak berak dituen baliabideak planteatuko dira eta aurreikusitako helburuak lortzeko erabiliko dira. Garrantzitsua da baliabide bakoitza argi zehaztea, modu abstraktuan aipatu gabe.
- Ebaluazioan, adierazleak lorpen- zein jarraipen-adierazleak izan daitezke. Zehatz adieraziko dira, ekintza-aditzak erabiliz eta “ulertzea”, “jakitea”, “ikastea” gisako aditzak saihestuz, halakoak neurtzea zaila baita.
- Lorpen-adierazleak jarduera bakoitzaren azken helburuari lotuta daude: zer lortu nahi den adierazten dute.
- Jarraipen-adierazleak prozesuari lotzen zaizkio (*bilerak egin dira, galde-sorten erantzunak bildu dira...*); eta, beraz, jarduera aurreikusi bezala betetzen ari den ala ez egiaztatzeko balio dute.
- Onartze-mailak adieraziko du adierazlearen gutxiengo betetze-maila (esaterako, “Ahozko hizkuntzari lotutako bi ebaluazio-adierazle egitea” baldin bada gure lorpen-adierazlea, haren onartze-maila honako hau izan daiteke: “Gutxienez, bi ziklotan edo bost ikasgaitan egitea lortuko da”).

emaitza | ekoizpena

denbora | denboralizazioa

Hizkuntza Proiektuaren Plan Estrategikoa.

Hiru edo lau lan-saio.

tresnak

ereduak | adibideak

12.1. tresna. Plan Estrategikoa idazteko txantiloia | 97-98. or.

12.1. adibidea. Plan Estrategikoaren helburu zehatz baten garapena | 135. or.

JARDUERA



Plan Estrategikoaren urteko ebaluazioa

13

HELBURUAK

- Plan Estrategikoan zehaztu diren helburu eta ekintzen betetze-maila ebaluatzea eta hobetzeko proposamenak aztertzea.
- Ikasleen hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren barne eta kanpoko ebaluazioen emaitzen joera aztertzea.

prozedura

Jarduera hau urtero egingo da ikasturte amaieran. Ikasturtero, Plan Estrategikoan ikasturte horretarako jarritako helburuak eta hauen lorpen-maila ebaluatuko dira. Helburu horietako esanguratsuenak Ikastetxearen Urteko Planean ere txertatuko dira. Aurrekoaz gain, hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren barne eta kanpoko ebaluazioetan ikasleek lortutako emaitzak aztertuko dira, hauen balorazioa egiteko.

Jasotako datuen artean etapa amaierako emaitzak eta Ebaluazio Diagnostikoarenak egongo dira. Ikastetxeko zuzendaritzak datu hauek bere esku ditu eta Hizkuntza Proiektuko batzordeari emango dizkio honek balora ditzan.

Hezkuntza-komunitatearen balorazioa ere garrantzizkoa da. Horretarako, Plan Estrategikoaren urteroko ebaluaziorako taula sektore guztietako ordezkariari emango zaie, hauek Hizkuntza Proiektuaren garapenaren balorazioa egin dezaten.

Hasierako proiektuan aldaketarik egin behar bada, prozesuaren une hau da egokiena. Ikasturtean zehar egindako lanaren ebaluazioa ikasturte amaieran egingo bada ere, Hizkuntza Proiektuaren batzordeak beste une batzuk ezar ditzake plangintzaren garapen egokia baloratzeko eta, beharrezkoa bada, bideratzeko.

Ebaluazio honen laburpena Ikastetxearen Urteko Memorian jasoko da.

| emaitza ekoizpena | denbora denboralizazioa |
|--|--|
| Jasotako ondorio eta proposamenek prozesua bideratzeko eta, lau urteren buruan, Hizkuntza Proiektuaren amaierako ebaluazioa egiteko balio izango dute. | Bi saio ikasturte amaieran. |
| tresnak | ereduak adibideak |
| 13.1.tresna. Plan Estrategikoaren urteko ebaluaziorako taula 99-100. or. | 13.1. adibidea. Plan Estrategikoaren urteko ebaluazioa 137-138. or. |

2.5. EBALUAZIO FASEA

📌 garrantzia

Fase hau Hizkuntza Proiektuaren azken fasea da. Honek ez du esan nahi Proiektua bukatu denik: lau urtetan eraman da aurrera, eta lau ikasturteren ondoren, epe horretan garatutako egitasmoa ebaluatu egingo da. Ebaluazio honetatik aterako diren ondorioek beste lau urteko Hizkuntza Proiektua aurreikusteko balio izango dute.

Hizkuntza Proiektuaren ebaluazioaz gain, kontuan izan behar da ikasleek ikasturte hauetan zehar hizkuntza-komunikaziorako gaitasunean egin duten garapena, hori baita proiektuaren azken xedea.

📌 parte-hartzaileak

Hizkuntza Proiektuaren ebaluazioa hezkuntza-komunitate osoari dagokio. Batzordeak ebaluazio-prozesua antolatuko du eta proiektuan parte hartzen duten hezkuntza-komunitateko partaideek egingo dituzten balorazioak jasoko ditu.

Hizkuntza Proiektuaren batzordeak amaierako ebaluazioa Ordezkaritza Organo Gorenari aurkeztuko dio, horretarako ohikoak diren komunikazio-bideak erabiliz.

📌 emaitza | ekoizpena

Hizkuntza Proiektuaren Plan Estrategikoan lau urterako helburuak jarri dira. Ikasturte hasieran, batzordeak Plan Estrategikoko helburu espezifiko eta ekintza batzuk aukeratu ditu ikasturte horretan gauzatzeko. Ikasturte bakoitzaren amaieran, ikasturte horretan aurrera eramandako helburuak ebaluatuko dira, garapen fasearen azken jardueran (13. jarduera) adierazi den bezala.

Lau urteren buruan, Proiektuaren zikloa amaitzen denean, aurreko lau ikasturteetako ebaluazioak eginak egongo dira. Urteko ebaluazio hauek Plan Estrategikoaren amaierako ebaluazioa egiten lagunduko dute.

Hizkuntza Proiektuaren amaierako ebaluazioak bi atal izango ditu:

- Plan Estrategikoaren amaierako ebaluazioa.
- Ikasleen hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren garapena.

Hizkuntza Proiektuaren Plan Estrategikoaren amaierako ebaluazioa egiteko, ikasturtero egindako ebaluazioak erabiliko dira. Plan Estrategikoko helburu espezifikoaren lorpen-adierazleak emaitzak (Hizkuntza Proiektuaren Plan Estrategikoaren azken zutabea) aztertuko dira eta, hauek laburbilduz, helburu orokor bakoitza ebaluatuko da taularen lehen atalean.

Ikasleen hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren garapenaren balorazioa egiteko, Hizkuntza Proiektuaren batzordeak ikasleen azken lau urteko etapa amaierako emaitzen datuak aztertuko ditu, Ebaluazio Diagnostikoetan izandako emaitzekin batera. Barne zein kanpoko ebaluazioen datuak zuzendaritza-taldeak emango dizkio batzordeari. Datu hauek baloratzeko taularen bigarren atala erabiliko da. Bertan ikasleen hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren garapenaren joera ebaluatuko da.

Hizkuntza Proiektuko ebaluazioan jasotako balorazio eta proposamenek hurrengo lau urteko Hizkuntza Proiektua eguneratzeko abiapuntua emango dute.

jarduerak

Fase honen garapenerako honako jarduera eta tresna hauek proposatzen dira:



JARDUERA



Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren ebaluazioa

14

HELBURUAK

- Hizkuntza Proiektuaren Plan Estrategikoaren amaierako ebaluazioa egitea eta ikasleen hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren emaitzen joera baloratzea.
- Hizkuntza Proiektuaren jarraipenerako proposamen berriak jasotzea.

prozedura

Hizkuntza Proiektuaren batzordeak azken lau ikasturteetan egindako ebaluazioetan jasotako datuak laburbildu eta ebaluatuko ditu. Bi motako datuak jasoko ditu:

- Azken lau ikasturteetan urte bakoitzerako aukeratu diren Plan Estrategikoaren helburuen urtez urteko ebaluazioa.
- Azken lau ikasturteetako ikasleen hizkuntza-komunikaziorako garapenaren ebaluazioetako, barne zein kanpokoetako, emaitzen joera. Datu hauek ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza-taldeak izango ditu.

Datu hauekin Hizkuntza Proiektuaren batzordeak Hizkuntza Proiektuaren ebaluazioa egingo du. Horretarako, *Hizkuntza Proiektuaren ebaluaziorako taula* proposatzen da. Taulak atal hauek ditu:

- **1. atala**, Plan Estrategikoaren amaierako ebaluazioa:
 - *Lehen zutabea, Hizkuntza Proiektuaren helburu orokorren zerrenda egingo da.*
 - *Bigarrenean, lau ikasturteetan egindako ebaluazioak laburbilduko dira. Helburu orokor bakoitzarekin lotuta dauden helburu espezifikoak egin zaizkien ebaluazioen batez bestekoa edo laburbilduma egingo da.*
 - *Hirugarrenean, amaierako ebaluazioa egingo da: lortutakoari buruz egiten den balorazioa, egin den planaren eraginkortasuna eta etorkizunerako iradokizunak.*
- **2. atala**, ikasleen hizkuntza-komunikazio gaitasunaren garapenaren balorazioa:
 - *Joera eta balorazioa.*
- **3. atala**, Hizkuntza Proiektuaren jarraipenerako proposamenak:
 - *Ikasleen eta ikastetxearen hizkuntza-egoera.*
 - *Hizkuntzen ikas-irakaskuntzak.*

Hezkuntza-komunitatearen balorazioa ere kontuan izango da. Horretarako, sektore guztietako ordezkariak taularen 1. eta 3. atalak bete ditzakete, ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren garapenari buruzko balorazioa eta hobetzeko proposamenak eginez.

| emaitza ekoizpena | denbora denboralizazioa |
|---|---|
| Hizkuntza Proiektuaren ebaluazioa eta hau eguneratzeko proposamenak. | Hiru aste. |
| tresnak | ereduak adibideak |
| 14.1.tresna. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren ebaluaziorako taula 101. or. | 14.1. adibidea. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren ebaluazioa 139. or. |

3. Gehiago jakiteko

LEGE- ETA HEZKUNTZA-MARKOA

- ⤵ 10/82 Legea, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoa (1982-12-16ko EHAA), <http://goo.gl/wp5T2y>
- ⤵ 1/1993 Legea, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa (1993-02-25eko EHAA), <http://goo.gl/9Tghsf>
- ⤵ HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2014). *Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua egiteko gida. Eusko Jaurlaritza, Argitalpen Zerbitzu Nagusia*, <http://goo.gl/h3Q6Lc>
- ⤵ HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2014). *HEZIBERRI 2020, Hezkuntza Eredu Pedagogikoaren Markoa*, <http://goo.gl/itDxim>

HIZKUNTZA PROIEKTUA ETA HIZKUNTZEN TRATAERA

- ⤵ CONSEIL DE L'EUROPE, DIVISION DES POLITIQUES LINGUISTIQUES (2007): *De la diversité linguistique à l'éducation plurilingue: Guide pour l'élaboration des politiques linguistiques éducatives en Europe Strasbourg*: Conseil de l'Europe, <http://goo.gl/w0PJjN>
- ⤵ CONSELLERIA D'EDUCACIÓ, INVESTIGACIÓ, CULTURA I ESPORT *Guia per a l'elaboració del PLC*. Generalitat Valenciana (2012), <http://goo.gl/80zmY5>
- ⤵ CUMMINS, J. & Ó DUIBHIR, P (2012). *Towards an Integrated Language Curriculum in Early Childhood and Primary Education (3-12 years)*. Dublin: National Council for Curriculum and Assessment, <http://goo.gl/3NeVvi>
- ⤵ DEPARTAMENT D'EDUCACIÓ. *El Projecte Lingüístic per als centres educatius de la Catalunya del segle XXI. Guia per a l'elaboració*. Generalitat de Catalunya, <http://goo.gl/Is61PA>
- ⤵ DEPARTAMENT D'ENSENYAMENT (2014). *Eina de diagnosi per reflexionar sobre l'aplicació del Programa d'Immersion Lingüística*. Generalitat de Catalunya, <http://goo.gl/pFICKR>
- ⤵ FERRER, M. (1997). *La elaboración del proyecto lingüístico desde infantil a secundaria. Textos de didáctica de la Lengua y de la Literatura*, 13, 57-65.
- ⤵ IKASTOLEN KONFEDERAZIOA (2009): *Ikastolen Hizkuntza Proiektua*. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, <http://goo.gl/QbZE9K>
- ⤵ LORENZO, N. (2015). *Proyecto Lingüístico de Centro: Mejorar la comunicación para vivir y convivir en el mundo real. Cuadernos de Pedagogía*, 458, 22-27, <http://goo.gl/FWpZsc>

- ▾ PASCUAL, V (2006). *El tractament de les llengües en un model d'educació plurilingüe per al sistema educatiu valencià*. València: Generalitat Valenciana - Conselleria de Cultura, Educació i Esport, <http://goo.gl/WR9Raa>
- ▾ RUIZ BIKANDI, URI (1997). Decisiones necesarias para la elaboración del proyecto lingüístico de centro. *Textos de didáctica de la Lengua y de la Literatura*, 13, 9-24.
- ▾ TRUJILLO SÁEZ, F. (2015). Proyecto Lingüístico de Centro: una oportunidad para el cambio. *Cuadernos de Pedagogía*, 458, 52-56, <http://goo.gl/8nh8XC>

HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA

- ▾ APEZETXEA, A. & RUIZ, B. (2009). *Komunikazio-gaitasuna: Testu idatzien ekoizpena. Zuzenketarako orientabideak*. Nafarroako Gobernua, <http://goo.gl/WGLDz2>
- ▾ CASSANY, D. (1993, 2004an berriz inprikatua), *Reparar la escritura. Didáctica de la corrección de lo escrito*. Barcelona, Graó.
- ▾ CASSANY, D. (2006), *Tras las líneas. Sobre la lectura contemporánea*. Barcelona, Anagrama (Argumentos, 341).
- ▾ DOLZ, J. & IDIAZABAL, I. (Eds) (2013): *Enseñar (lenguas) en contextos multilingües*. Servicio Editorial UPV-EHU, <https://goo.gl/0de3Pb>
- ▾ HH.EE. (2009), Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna, Eusko Jaurlaritza, <http://goo.gl/h2qHKb>
- ▾ HH.EE. (2009), Competencia en Comunicación Lingüística. Material didáctico, Gobierno Vasco <http://goo.gl/8gM6SI>
- ▾ HH.EE. (2009), Orientabide Didaktikoak. Euskara eta Literatura, Lengua Castellana y Literatura, Atzerriko Hizkuntza. Gobierno Vasco, <http://goo.gl/M90bTp>
- ▾ JIMENO, P. (2004), *Idazmenaren irakaskuntza arlo guztietan*. Nafarroako Gobernua, <http://goo.gl/G7lozi>
- ▾ LARREA, K. & MAIA, J. (2010). *Galdera-erantzun batzuk hizkuntzaren didaktika*. Bilbo: EHU-UPV, <http://goo.gl/yNXLXi>
- ▾ MARTÍNEZ MONGAY, A. (2004). *Nola prestatu ahozko azalpen bat Bigarren Hezkuntzako arlo guztietan*. Nafarroako Gobernua, <http://goo.gl/FKEUWO>
- ▾ PÉREZ ESTEVE, P. & ZAYAS, F. (2007). *Competencia en Comunicación Lingüística*, Madrid, Alianza Editorial.
- ▾ RUIZ BIKANDI, U. (2000). *Didáctica de la segunda lengua en educación infantil y primaria*. Madrid, Síntesis.
- ▾ VILA, M. & CASTELLÀ, J.M. (2014). *10 Ideas Clave. Enseñar la competencia oral en clase*. Barcelona, Graó.

ERANSKINAK

**Ikastetxearen Hizkuntza
Proiektua egiteko
tresnak**

| FASEAK eta AURKIBIDEA | | JARDUERAK | TRESNAK | ADIBIDEAK |
|---------------------------------|--|---|--|--|
| PLANIFIKAZIOA | | 1. Kronograma egitea [19] | 1.1. Hizkuntza Proiektuaren kronograma antolatzeko txantiloia [51] | 1.1. Hizkuntza Proiektua egiteko kronograma [117] |
| SENTSIBILIZAZIOA | 1. SARRERA <i>Zertarako da Hizkuntza Proiektua?</i> | 2. Klaustrokideen iritziak azaleratzeko galde-sortak [22] | 2.1. A galde-sorta, Hizkuntza Proiektuaren xedeaz eta esanahiaz [52] | |
| | | | 2.2. B galde-sorta, Hizkuntza Proiektua egiteko zergatiaz [53] | |
| | | | 2.3. C galde-sorta, Hizkuntza Proiektuak dakartzan erabakiez [54] | |
| | | 3. Hizkuntza Proiektuaren inguruko azalpena [23] | 3.1. Hizkuntza Proiektuaren inguruko aurkezpen digitala [55] | |
| | | 4. Irakasleen gogoeta [24] | 4.1. Harremanen, kudeaketaren eta antolakuntzaren eremua [56] | |
| 4.2. Arlo ez linguistikoak [57] | | | | |
| 4.3. Arlo linguistikoak [58] | | | | |
| DIAGNOSTIKOA | 2. EGOERAREN ANALISIA <i>Nortzuk gara eta non gaude?</i> | 5. Ikasleen hizkuntza-ingurunea [27] | 5.1. Hizkuntzen ezagutza eta erabilera etxean [59] | 5.1. Ikasleen hizkuntza-ingurunea [119] |
| | | | 5.2. Informazio-iturriak, herriko edo auzoko hizkuntza-ingurunea ezagutzeko [61] | |
| | | | 5.3. Taldeko datuen laburpena, tutoreak egina [63] | |
| | | | 5.4. Ikastetxeko datuen laburpena, batzordeak egina [67] | |
| | | 6. Ikastetxearen hizkuntza-giroa [28] | 6.1. Galde-sorta irakasleentzat [71] | 6.1. Ikastetxearen hizkuntza-giroaren eta -ibilbidearen analisia [121] |
| | | | 6.2. Ikastetxeko datuen laburpena, batzordeak egina [73] | |
| | | | 6.3. Batzordearentzako gidoia. Ikastetxearen hizkuntza-giroa eta -ibilbidea [79] | |
| | | 7. Hizkuntzen ikas-irakaskuntzari buruzko datuak biltzea [29] | 7.1. A galde-sorta. Antolamendurako erabiltzen diren hizkuntza-irizpideak [82] | 7.1. Antolamendurako erabiltzen diren hizkuntza-irizpideak [123] |
| | | | 7.2. B galde-sorta. Arlo linguistikoak [83] | 7.2. Hizkuntzen ikas-irakaskuntza arlo ez linguistikoetan [124] |
| | | | 7.3. C galde-sorta. Arlo ez linguistikoak [89] | |
| | | | 7.4. C galde-sorta. Eleaniztasuna [91] | |
| | | 8. Datuak jaso eta sailkatzea [30] | 8.1. Datuak jaso eta sailkatzeko taula [92] | 8.1. Harremanen, kudeaketaren eta antolaketaren eremua [125] |
| | | 8.2. Hizkuntzen ikas-irakaskuntza arlo ez linguistikoetan [126] | | |
| GARAPENA | 3. IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-HELBURUAK <i>Zer nahi dugu?</i> | 9. Datuak interpretatzea [33] | 9.1. Datuak interpretatzeko eta lehenetsunezko jarduera-esparruak aukeratzeko taula [93] | 9.1. Lehenetsunezko jarduera-esparruak [127] |
| | | 10. Helburuak zehaztea [34] | 10.1. Hizkuntza Proiektuaren helburuak zehaztea eta idaztea [94] | 10.1. Ikastetxearen hizkuntza-helburuak. Zer nahi dugu? [129] |
| | 4. IKASTETXEAREN HIZKUNTZA PLANTEAMENDUA | 11. Ikastetxearen Hizkuntza Planteamendua [35] | 11.1. Ikastetxearen Hizkuntza Planteamenduaren datuak jasotzeko taula [95] | 11.1. Ikastetxearen Hizkuntza Planteamendua [131] |
| | 5. PLAN ESTRATEGIKOA <i>Zer egingo dugu?</i> | 12. Plan Estrategikoa. Diseinua [36] | 12.1. Plan Estrategikoa idazteko txantiloia [97] | 12.1. Plan Estrategikoaren helburu baten garapena [135] |
| | | 13. Plan Estrategikoa. Ebaluazioa [37] | 13.1. Plan Estrategikoaren urteko ebaluaziorako taula [99] | 13.1. Plan Estrategikoaren urteko ebaluazioa [137] |
| EBALUAZIOA | 6. EBALUAZIOA <i>Zer lortu dugu?</i> | 14. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren ebaluazioa [41] | 14.1. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren ebaluaziorako taula [101] | 14.1. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren ebaluazioa [139] |

| | | |
|----------|--------------------------------------|-------------------|
| 1 | JARDUERA ACTIVIDAD | TRESNA HERRAM. |
| | planifikazioa <i>planificación</i> | 1.1 |

| FASEAK | | ARDURADUNA(K) | PARTE-HARTZAILEAK | JARDUERAK | DENBORALIZAZIOA |
|------------------|---------------|---------------|-------------------|-----------|-----------------|
| PLANIFIKAZIOA | | | | | |
| SENTSIBILIZAZIOA | | | | | |
| DIAGNOSTIKOA | | | | | |
| GARAPENA | PROPOSAMENAK | | | | |
| | AURREIKUSPENA | | | | |
| | ONARPENA | | | | |
| | ZABALKUNDEA | | | | |
| | APLIKAZIOA | | | | |
| EBALUAZIOA | | | | | |

A GALDE-SORTA | HIZKUNTZA PROIEKTUAREN XEDEAZ ETA ESANAHIAZ

Hizkuntza Proiektuaren xedeaz eta esanahiaz hitz egitea eta iritziak trukatzea du helburu honako galdesorta honek. Irakasleei baieztapen eta galdera hauen inguruan alde edo kontra argudiatzeko eskatzen zaie.

| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| Kiroletako monitoreek ardura dute hizkuntzen erabileran. | | | | | |
| Irakasle batzuek curriculum-arlo bat ingelesez irakasten badute, beste hizkuntzen kaltetan izango da. | | | | | |
| Matematika arloan ikasleei argudiatzen irakatsi behar zaie. | | | | | |

5 da adostasun mailarik handiena eta 1, berriz, txikiena

| | eus. | gazt. | ? |
|--|------|-------|---|
| Gurasoekin egiten diren bilerak zein hizkuntzatan egin behar dira? | | | |
| Ikastetxeak, eskolaz kanpoko jardueri dagokienez, zein hizkuntzari eman behar dio lehentasuna? | | | |
| 11 urteko neskato magrebtarra iritsi da ikastetxera. Zein hizkuntzatan irakatsi behar zaio? | | | |

| | |
|---|-------------------|
| 2 JARDUERA ACTIVIDAD | TRESNA HERRAM. |
| sentsibilizazioa <i>sensibilización</i> | 2.2 |

B GALDE-SORTA | HIZKUNTZA PROIEKTUA EGITEKO ZERGATIEZ

Galdetegi honek gogoeta bultzatu nahi du Hizkuntza Proiektua egiteko zergatiaz. Irakasleei eskatzen zaie euren adostasun maila baieztapen batzuen inguruan.

Ados zaude azpiko baieztapenekin?

Irakurri baieztapenak eta 1etik 10era puntuatu [1: guztiz kontra ; 10: guztiz ados].

Zergatik eta zertarako Hizkuntza Proiektua?

1-10

| | |
|--|--|
| 1. Hizkuntza komunikaziorako eta bizikidetzarako tresna da. | |
| 2. Azken urteotan, asko aldatu dira ikasleen eta familien ezaugarriak. | |
| 3. Ikasleen aniztasunak ikasteko eta irakasteko estrategia berriak bilatzea eskatzen du. | |
| 4. Ikasle etorri berrien harrera ikastetxe osoaren zeregina da; hizkuntza-alderdiak eta hizkuntzari lotuta ez daudenak ere kontuan hartu behar dira. | |
| 5. Teknologia berriek irakaskuntzarako bide berriak ematen dituzte. | |
| 6. Hizkuntzen ikas-irakaskuntza arlo guztietan garatzen da. | |
| 7. Ikastetxeak prestakuntza plana antolatu behar du hizkuntzei eta hizkuntzen didaktikari lotua. | |
| 8. Ikastetxe gisa, hizkuntzei lotutako erabaki bateratuak hartzea denon egitekoa da, ikastetxearen planteamendu koherentea gara dezagun. | |

| | |
|---|-------------------|
| 2 JARDUERA ACTIVIDAD | TRESNA HERRAM. |
| sentsibilizazioa <i>sensibilización</i> | 2.3 |

C GALDE-SORTA | HIZKUNTZA PROIEKTUAK DAKARTZAN ERABAKIEZ

Hizkuntza Proiektuak erabakiak hartzea eskatzen du. Jarduera honetako baieztapenek ondorio batzuk dakartzate: Hizkuntza Proiektuari dagozkion erabakiak hartzea, irakasleen ardurak zehaztea...

Adierazi ados zaude(te)n ala ez, 1etik 10era bitarteko graduazioa eginez.

| | |
|---|--|
| 1. Arlo guztietako tresna nagusia ahozko eta idatzizko hizkuntza da, eta, beraz, irakasle guztiok dugu horrekiko erantzukizuna. | |
| 2. Hizkuntzen ezagutza eta erabilera hobetzeko ikasleak motibatu egin behar ditugu. | |
| 3. Gizarte Zientzietako, Natur Zientzietako edo Matematikako klaseetan ez dago hizkuntza lanak egiteko astirik; arloaren programa betetzen nahiko lan! | |
| 4. Ikastea ez da informazioa jasotzea bakarrik. Elkarrizketaren bidez ikasleek ezagutzak barneratu eta garatzen dituzte. | |
| 5. Hizkuntzaren gramatika ondo ezagutu behar da hizkuntza behar bezala erabili ahal izateko. Beraz, hizkuntza arloaren lehentasuna ezagutza hori ziurtatzea da. | |
| 6. Ziklo eta etapen artean lan koherentea egon behar da hizkuntzen inguruan. | |
| 7. Hizkuntza bakoitzak bere lekua eduki behar du ikastetxean. | |
| 8. Eskola orduak era orekatuan banatu behar dira hizkuntzen artean. | |

HIZKUNTZA PROIEKTUAREN INGURUKO AURKEZPENA

Aurkezpena Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren webgunean eskuragarri dago.

Zer da Hizkuntza Proiektua?

3 DOKUMENTU BAT DA
 Hizkuntzen irakaskuntza eta erabilera kudeatzeko tresna da, ikastetxeko komunikazioa biltzen dituena.

HONAKO HAIKUNTA ERABAKIAK BILTZEN DITUENA.

Ikastetxearen irakaskuntza eta erabilera kudeatzeko tresna da, ikastetxeko komunikazioa biltzen dituena.



4. Hezkuntzaren ikuspegi berria dugulako

10

Effective oral & written communication

Critical thinking & problem-solving

Initiative & entrepreneurialism

Curiosity and imagination

Hope & Optimism

Self-Regulation

Collaboration across networks

Agility & adaptability

Grit

Resilience

Empathy & Global Stewardship

Vision

Changes Ahead

HERE TO STAY!

Skills & Attributes of Today's Learner

| | |
|---|-------------------|
| 4 JARDUERA ACTIVIDAD | TRESNA HERRAM. |
| sentsibilizazioa <i>sensibilización</i> | 4.1 |

A GALDE-SORTA | HARREMANEN, KUDEAKETAREN ETA ANTOLAKUNTZAREN EREMUA

Nolako eragina du Hizkuntza Proiektuak gure eguneroko lanean? Zer egin beharko genuke?

Harremanen, kudeaketaren eta antolakuntzaren eremua

Zer egin genezake horren aurrean?

| | |
|--|--|
| <p>A.1. Ikastetxearen inguru soziolinguistikoa aldatu da azken urteotan? Zertan nabaritzen da?</p> | |
| <p>A.2. Hizkuntzen presentzia ikastetxean. Aniztasuna dago? Agerikoa da?</p> | |

B GALDE-SORTA | HIZKUNTZEN ERABILERA ARLO EZ LINGUISTIKOETAN

Nolako eragina du Hizkuntza Proiektuak gure eguneroko lanean? Zer egin beharko genuke?

Hizkuntzen erabilera eta erabaki didaktiko-metodologikoak arlo ez linguistikoetan

Zer egin genezake horren aurrean?

| | |
|---|--|
| <p>B.1. Arlo ez linguistikoetan komeni da ikasleek ahozko eta idatzizko testuak ekoiztea?</p> | |
| <p>B.2. Arlo ez linguistikoetan kontuan hartu behar da ahozko eta idatzizko testuen ulermena?</p> | |
| <p>B.3. Zer eragin du ikastetxean arlo bat atzerriko hizkuntzan irakasteak?</p> | |

| | | |
|----------|---|-------------------|
| 4 | JARDUERA ACTIVIDAD | TRESNA HERRAM. |
| | sentsibilizazioa <i>sensibilización</i> | 4.3 |

C GALDE-SORTA | HIZKUNTZEN ERABILERA ARLO LINGUISTIKOETAN

Nolako eragina du Hizkuntza Proiektuak gure eguneroko lanean? Zer egin beharko genuke?

Hizkuntzen erabilera eta erabaki didaktiko-metodologikoak arlo linguistikoetan

Zer egin genezake horren aurrean?

| | |
|---|--|
| <p>C.1. Hizkuntzen arteko koordinazioari dagokionez, zer alderdi koordinatu beharko lirateke?</p> | |
| <p>C.2. Hizkuntza irakasleek ardura hartu behar dute arlo ez linguistikoetan hizkuntzen erabilerari lotutako alderdiez?</p> | |

HIZKUNTZEN EZAGUTZA ETA ERABILERA ETXEAN | IKASLEARENTZAKO (EDO FAMILIARENTZAKO) GALDE-SORTA

| Izen-abizenak | taldea |
|---------------|--------|
| | |

📄 **Lehen hizkuntza.** Txikitan etxekoengandik ikasi zenuena (zuenen). Bat baino gehiago jar daiteke.

| Euskara | Gaztelania | Beste bat(zuk). Zein? |
|---------|------------|-----------------------|
| | | |

📄 **Etxekoen hizkuntza-ezagutza**

| Etxean bizi garenak | Pertsona honek badaki... | | |
|---------------------|--------------------------|-------------|-----------------------|
| | Euskaraz | Gaztelaniaz | Beste bat(zuk). Zein? |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

📄 **Etxekoekiko egungo hizkuntza-erabilera**

| Etxean bizi garenak | Pertsona honekin hitz egiten dut (du)... | | | | | |
|---------------------|--|--------------------------------|---|-----------------------------------|---|--------------------|
| | Euskaraz, <i>beti edo ia beti</i> | Euskaraz, <i>gehienetan</i> | Euskaraz eta Gaztelaniaz <i>berdintsu</i> | Gaztelaniaz, <i>gehienetan</i> | Gaztelaniaz, <i>beti edo ia beti</i> | Beste bat Zein? |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |

| | | |
|---|----------------------------|-------------------|
| 5 | JARDUERA ACTIVIDAD | TRESNA HERRAM. |
| | diagnostikoa diagnóstico | 5.2 |

INFORMAZIO ITURRIAK, HERRIKO EDO AUZOKO HIZKUNTZA-INGURUNEA EZAGUTZEKO | BATZORDERAKO GIDA

↕ Oinarrizko datuak, hizkuntzen ezagutza eta erabilera herrian

Hizkuntzen ezagutza eta erabilerari buruzko oinarrizko datuak ezagutzeko biderik errazena da biztanleriaren errolda kontsultatzea (**Eustat**en webgunean, *Gizartea* orriko *Euskara, Kultura, Gazteria* atalean). Jarraian jaso ditugun estekak baliatuz, ondorengo datuak aurkituko dituzue (herria aukeratu behar duzue):

- **Hizkuntza-gaitasuna.** Euskararen ezagutzari buruzko hainbat taula topatuko ditugu hemen. Gainera, ezagutza mailak urteetan zehar izan duen bilakaerari buruzko datuak kontsulta ditzakegu hemen:

Datu-bankua *2 urteko biztanleria, lurralde eremuaren eta euskara-maila orokorraren arabera* (Zenbait aldagai aukeratuta egin daiteke kontsulta).

- **Hizkuntza-jabekuntza.** Lehen hizkuntza edo *ama-hizkuntzari* buruzko (euskara, gaztelania, biak edo besteren bat) datuak topatuko ditugu hemen. Gainera, bilakaerari buruzko datuak kontsulta ditzakegu hemen:

Datu bankua *Euskal AEko biztanleria, lurralde eremuaren, ama-hizkuntzaren eta sexuaren arabera* (Zenbait aldagai aukeratuta egin daiteke kontsulta).

- **Hizkuntzen erabilera.** Etxeko zein kaleko hizkuntza-erabilerari buruzko datu ugari topatuko ditugu hemen (herria bilatu behar duzu zerrendan). Gainera, etxeko erabileraren bilakaerari buruzko datuak kontsulta ditzakegu hemen:

Datu-bankua *Euskal AEko biztanleria, lurralde eremuaren, etxeko hizkuntzaren eta sexuaren arabera* (Zenbait aldagai aukeratuta egin daiteke kontsulta).

↕ Beste zenbait datu, hizkuntzen ezagutza eta erabilera herrian

Zenbait udal zerbitzutara (kultur aniztasuna, euskara...) jo dezakegu bestelako hizkuntzen presentzia, ezagutza eta erabilerari buruzko datu gehiagoren bila.

↕ Hizkuntzak erabiltzeko aukerei buruzko datuak

Bestalde, komeni da jakitea eskolaz kanpo euskara, gaztelania eta bestelako hizkuntzak erabiltzeko ikasleek dituzten abaguneak; hau da, hizkuntza horietan jarduteko aukerak, besteak beste...

- Jarduera antolatu iraunkorrak (eskolak, ikastaroak, kirol-jarduerak, tailerrak...)
- Gune eta talde egonkorak (liburutegia-mediateka, haur-txokoa, gaztelekua, astialdi taldeak...)
- Ohiko bilgune “naturalak” (parkea, plaza, patioa, pilotalekua, kantxak...)
- Jarduera puntualak: ekitaldiak, emanaldiak, ikuskizunak, jaialdiak...

Halaber, interesgarria da jakitea ikasleek zein neurritan aprobetxatzen dituzten aukera horiek.

Erabiltzeko aukera horiei buruzko datuak batzordekideek “estimatzea” izan daiteke datu hori lortzeko modurik errazena. Estimazio hori sendoago izan dadin lankideen eta guraso

| | | |
|----------|-----------------------------------|-------------------|
| 5 | JARDUERA ACTIVIDAD | TRESNA HERRAM. |
| | diagnostikoa <i>diagnóstico</i> | 5.2 |

elkarteko kideen pertzepzioak ere aintzat hartzea komeni. Udaleko zenbait atal edo zerbitzutan (euskara, kultura, kirola, gazteria...) galdetuz gero datu zehatzagoak lortu ditzakegu. Gainera, eskolaz kanpoko jardueretan hizkuntzak erabiltzeko abaguneak ikasleek zein neurritan baliatzen dituzten zehatzago ezagutu nahiko balitz inkesta bat egin zitekeen ikasleen artean.

Beste zenbait datu esanguratsu

Udaletxe askok herriko hizkuntza-egoera zehaztasun handiz islatzen duten ikerketa soziolinguistikoak eginak dituzte. Horiengana jo daiteke zenbait datu zehatz eta esanguratsu jasotzeko. Esaterako:

- hizkuntzen ezagutza edota erabilera ikastetxetik gertu dauden auzoetan
- hizkuntzen ezagutza eta erabilera eskola-adineko haurren eta gazteen artean
- hizkuntzen ezagutza eta erabilera gure ikasleen gurasoen belaunaldian (25-45, esaterako)

Gainera, ondorengoei buruzko datuak lortu nahi izanez gero, balia ditzakegun informazio iturrien eta tresnen erreferentziak aurkituko ditugu *Diagnostikorako beste tresna batzuk* eranskinean (155 or.):

- ikasleen eskolaz kanpoko hizkuntza-erabilera, zenbait egoera eta jardungunetan
- kale-erabileraren datuak: oro har, adin taldeen arabera. Horren bilakaera azken urteotan
- herritarren hizkuntza-jarrerak eta -iritziak: oro har eta adin-taldeen arabera

ETXKO, HERRIKO ETA IKASTETXEKO HIZKUNTZA GIROA | TALDEAREN DATUAK, TUTOREAK LABURBILDUTA

| | |
|---------------|----------------|
| Taldea | Tutorea |
| | |

1. Etxeko hizkuntza-ingurunea

↳ Ikasleen lehen hizkuntza

| Euskara Zenbat ikaslek (N) eta ehunekoa (%) | | Gaztelania Zenbat ikaslek (N) eta ehunekoa (%) | | Beste hizkuntzaren bat [1] Zein? Zenbat ikaslek (N) eta ehunekoa (%) | | Beste hizkuntzaren bat [2] Zein? Zenbat ikaslek (N) eta ehunekoa (%) | |
|--|---|---|---|--|---|--|---|
| N | % | N | % | N | % | N | % |
| | | | | | | | |

↳ Etxekoen hizkuntza-ezagutza

| | Taldekoko zenbat ikasle bizi dira etxean hizkuntza hau dakien pertsonaren batekin... | | | | | | | |
|---------------------|--|---|------------|---|------------------------|---|------------------------|---|
| | Euskara | | Gaztelania | | Beste bat [1] Zein? | | Beste bat [2] Zein? | |
| | N | % | N | % | N | % | N | % |
| 2 heldu edo gehiago | | | | | | | | |
| Heldu 1 | | | | | | | | |
| 0 heldu | | | | | | | | |
| 2 gazte edo gehiago | | | | | | | | |
| Gazte 1 | | | | | | | | |
| 0 gazte | | | | | | | | |
| Taldekideak guztira | | | | | | | | |
| 0 heldu eta 0 gazte | | | | | | | | |

↳ Etxekoekiko egungo hizkuntza-erabilera

| [zenbat ikaslek] | Euskaraz, beti edo ia beti | Euskaraz, gehienetan | Euskaraz eta Gaztelaniaz, berdintsu | Gaztelania, gehienetan. | Gaztelania beti edo ia beti | Beste hizkuntza- ren bat | Zein? |
|-------------------------------|----------------------------------|-------------------------|---|----------------------------|-----------------------------------|--------------------------------|-------|
| Helduekin | | | | | | | |
| Haur eta gazteekin | | | | | | | |
| Taldekideak guztira | | | | | | | |
| 0 heldu eta 0 gazterekin | | | | | | | |
| Solaskideren batekin | | | | | | | |

| | | |
|----------|-----------------------------------|-------------------|
| 5 | JARDUERA ACTIVIDAD | TRESNA HERRAM. |
| | diagnostikoa <i>diagnóstico</i> | 5.3 |

2. Herriko hizkuntza-ingurunea

📌 Ikastetxetik kanpo hizkuntzak erabiltzeko aukera

- Jarduera antolatu iraunkorrak (eskolak, ikastaroak, kirol-jarduerak, tailerrak...)
- Gune eta talde-egonkorak (liburutegia-mediateka, haur txokoa, gaztelekua, astialdi taldeak...)
- Ohiko bilgune “naturalak” (parkea, plaza, patioa, pilotalekua, kantxak...)
- Jarduera puntualak: ekitaldiak, emanaldiak, ikuskizunak, jaialdiak...

| | |
|--------------------------------|--|
| <i>Euskaraz</i> | |
| <i>Gaztelaniaz</i> | |
| <i>Ingelesez</i> | |
| <i>Beste batean. Zein?</i> | |

📌 Taldeko ikasleek zenbateraino aprobetxatzen dituzte aukera hauek

- Zenbat ikaslek? Zein Jarduera? Nola?

| | |
|--------------------------------|--|
| <i>Euskaraz</i> | |
| <i>Gaztelaniaz</i> | |
| <i>Ingelesez</i> | |
| <i>Beste batean. Zein?</i> | |

3. Ikastetxeko hizkuntza-giroa

3.1. Ikasleen hizkuntza-erabilera

Taldeko ikasleen hizkuntza-erabileraren estimazioa, %koetan

| Taldea | Euskaraz | Gaztelaniaz | Besteren bat. Zein? |
|--------|----------|-------------|---------------------|
| | | | |

Espazioaren arabera, estimazioa ehunekoetan

| % | Ikasgelan | Pasabideetan | Jolastokian | Beste batzuk |
|----------------------|-----------|--------------|-------------|--------------|
| Euskaraz | | | | |
| Gaztelaniaz | | | | |
| Besteren bat (Zein?) | | | | |

Solaskidearen arabera, estimazioa ehunekoetan

| % | Ikaskideekin | Irakasleekin | Begiraleekin eta adm. eta zerb. langileekin | Bestelakoekin |
|----------------------|--------------|--------------|---|---------------|
| Euskaraz | | | | |
| Gaztelaniaz | | | | |
| Besteren bat (Zein?) | | | | |

3.2. Ikasleen hizkuntza jarrerak: irudikapenak, hautemateak, usteak...

Gure ikasleen iritziz ondorengo egoera edo jardunguneei zein hizkuntza doakie hobeto? Estimazioa ehunekoetan

| % | Euskaraz hobeto | Gaztelaniaz hobeto | Biak berdin | Ingeleseaz hobeto | Hirurak berdin |
|-------------------------|-----------------|--------------------|-------------|-------------------|----------------|
| Zientzia y teknologiari | | | | | |
| Eskola munduari | | | | | |
| Lan munduari | | | | | |
| Musika munduari | | | | | |
| Aisialdiari | | | | | |
| Bikote harremanei | | | | | |
| Familia harremanei | | | | | |
| Lagunarteko giroari | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |

ETXeko, HERRIKO ETA IKASTETXeko HIZKUNTZA GIROA | IKASTETXeko DATUAK, BATZORDEAK LABURBILDUTA
1. Etxeko hizkuntza-ingurunea
↳ Ikasleen lehen hizkuntza (%)

| Euskara | | Gaztelania | | Beste hizkuntzaren bat [1] Zein? | | Beste hizkuntzaren bat [2] Zein? | |
|-------------------------------------|---|-------------------------------------|---|-------------------------------------|---|-------------------------------------|---|
| Zenbat ikaslek (N) eta ehunekoa (%) | |
| N | % | N | % | N | % | N | % |
| | | | | | | | |

↳ Etxekoen hizkuntza-ezagutza

| | Ikastetxeko zenbat ikasle bizi dira etxean hizkuntza hau dakien pertsonaren batekin... | | | | | | | |
|---------------------|--|---|------------|---|---------------------|---|---------------------|---|
| | Euskara | | Gaztelania | | Beste bat [1] Zein? | | Beste bat [2] Zein? | |
| | N | % | N | % | N | % | N | % |
| 2 heldu edo gehiago | | | | | | | | |
| Heldu 1 | | | | | | | | |
| 0 heldu | | | | | | | | |
| 2 gazte edo gehiago | | | | | | | | |
| Gazte 1 | | | | | | | | |
| 0 gazte | | | | | | | | |
| Taldekideak guztira | | | | | | | | |
| 0 heldu y 0 gazte | | | | | | | | |

↳ Etxekoekiko egungo hizkuntza-erabilera (ehunekoak)

| % | Euskaraz, beti edo ia beti | Euskaraz, gehienetan | Euskaraz eta Gaztelaniaz, berdintsu | Gaztelania, gehienetan. | Gaztelania beti edo ia beti | Beste hizkuntzaren bat | Zein? |
|---------------------------|----------------------------|----------------------|-------------------------------------|-------------------------|-----------------------------|------------------------|-------|
| Helduekin | | | | | | | |
| Haur eta gazteekin | | | | | | | |
| Taldekideak guztira | | | | | | | |
| 0 heldu eta 0 gazterekin | | | | | | | |
| Solaskideren batekin | | | | | | | |

| | | |
|----------|-----------------------------------|-------------------|
| 5 | JARDUERA ACTIVIDAD | TRESNA HERRAM. |
| | diagnostikoa <i>diagnóstico</i> | 5.4 |

2. Herriko hizkuntza-ingurunea

↳ Euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-egutza eta -erabilera

- Hizkuntza-gaitasuna
- Hizkuntza-jabekuntza (H1 edo ama-hizkuntza)
- Erabilera etxean
- Kale-erabilera

↳ Beste hizkuntzen egutza eta erabilera

↳ Ikastetxetik kanpo euskara erabiltzeko aukera

- Jarduera antolatu iraunkorrak (eskolak, ikastaroak, kirol-jarduerak, tailerrak...)
- Gune eta talde egonkorak (liburutegia-mEDIATEKA, haur-txokoa, gaztelekua, astialdi-taldeak...)
- Ohiko bilgune "naturalak" (parkea, plaza, patioa, pilotalekua, kantxak...)
- Jarduera puntualak: ekitaldiak, emanaldiak, ikuskizunak, jaialdiak...

- Ikastetxeko ikasleek zenbateraino aprobetxatzen dituzte aukera horiek: zenbat ikaslek, zein jarduera, nola...

| | | |
|----------|-----------------------------------|-------------------|
| 5 | JARDUERA ACTIVIDAD | TRESNA HERRAM. |
| | diagnostikoa <i>diagnóstico</i> | 5.4 |

Ikastetxetik kanpo beste hizkuntzak erabiltzeko aukerak

- Ikastetxeko ikasleek zenbateraino aprobetxatzen dituzte aukera horiek

Etxeko hizkuntza-ingurunearen eraginaren deskribapena eta azterketa

- Gure ikasleen etxeko hizkuntza-giroak nolako aukerak eskaintzen dizkigu?
- Eta nolako erronkak planteatzen dizkigu?
- Ikastetxean zer egin dezakegu erronka horiei aurre egiteko eta aukera horiek baliatzeko?

Auzoko edo herriko hizkuntza-ingurunearen eraginaren deskribapena eta azterketa

- Gure ikasleen auzoko edo herriko hizkuntza-giroak nolako aukerak eskaintzen dizkigu?
- Eta nolako erronkak planteatzen dizkigu?
- Ikastetxean zer egin dezakegu erronka horiei aurre egiteko eta aukera horiek baliatzeko?

IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-GIROA | IRAKASLEONTZAKO GALDE-SORTA
IRAKASLEON HIZKUNTZA EZAGUTZA ETA ERABILERA, PRESTAKUNTZA BEHARRAK...
↳ Irakasleen hizkuntza-ezagutza ¹

Nolakoa da zure egungo hizkuntza-gaitasuna honako hizkuntza hauetan?

| Hizkuntza | Ezer ez | Hasierakoa | Oinarrizkoa | Nahikoa | Ona | Oso ona |
|-------------|---------|------------|-------------|---------|-----|---------|
| Euskaraz | | | | | | |
| Gaztelaniaz | | | | | | |
| Ingelesez | | | | | | |
| Frantsesez | | | | | | |
| | | | | | | |

Eta zein maila duzu kreditatua edo zein titulazio lortua duzu?

| | A1 | A2 | B1 | B2 | C1 | C2 |
|------------|----|----|----|----|----|----|
| Euskaraz | | | | | | |
| Ingelesez | | | | | | |
| Frantsesez | | | | | | |
| | | | | | | |

↳ Irakasleen hizkuntza-erabilera

Estimatu zein neurritan (%kotan) baliatzen duzun hizkuntza bakoitza, honako egoera hauetan:

| Egoera | Euskaraz | Gaztelaniaz | Ingelesez | |
|--|----------|-------------|-----------|--|
| Ikasleekin, gelan | | | | |
| Ikasleekin, gelaz kanpo | | | | |
| Irakaskideekin, gune formaletan ² | | | | |
| Irakaskideekin, gune informaletan ³ | | | | |
| Ikasleen gurasoekin, oro har | | | | |
| Bakarkako lanetan ⁴ | | | | |

¹ Erantzuterakoan kontuan har ditzakezu Hizkuntzen Irakaskuntzarako Europako Erreferentzia Marko Bateratuan zehaztutako mailak eta horietan egiten den gaitasunaren deskribapena. Jarri "Oso ona" zure egungo gaitasuna C2ren parekoa bada, "Ona" C1en parekoa, "Nahikoa" = B2, "Oinarrizkoa" = B1, "Hasierakoa" = A2 edo A1.

² Bilerak, talde-lanak...

³ Kafe-orduak, irakasle gelako edo pasabideetako solasaldietan...

⁴ Klaseak edo bestelako lanak prestatzean, zuretzako planak edo oharrak idaztean...

↳ Irakasleen hizkuntza-prestakuntza beharrak (aukerakoa)

| Esan zure iritziz zuregan eta lankideengan ikusten dituzun prestakuntza beharrak | Beharra ⁵ [1 – 5] | Lehentasuna [1 – 5] |
|---|---------------------------------|------------------------|
| Hizkuntza-gaitasuna euskaraz | | |
| Hizkuntza-gaitasuna gaztelaniaz | | |
| Hizkuntza-gaitasuna ingelesez | | |
| Ikasle alofonoen hizkuntzei buruzko oinarrizko ezagutza | | |
| Hizkuntzen irakaskuntzarako prestakuntza didaktiko metodologikoa | | |
| Komunikazio egoerak bideratu eta horietan eragin ahal izateko estrategiak ezagutu eta trebetasunak garatzeko prestakuntza | | |
| Ikasteko motibazioa landu eta ikasprozesuaren kontzientzia garatzen laguntzeko prestakuntza | | |
| Hizkuntza jarrerak landu ahal izateko prestakuntza | | |

IKASTETXEAREN IBILBIDEA ETA ERABAKIAK HIZKUNTZEI DAGOKIENEZ

↳ Jaso gogoan dituzun mugarriak

| | |
|--|--|
| Hizkuntza ereduen ezarpena, bilakaera. Esperientzia eleanitzak | |
| Aldaketa didaktiko-metodologikoak hizkuntzen ikaskuntzan eta irakaskuntzan | |
| Hizkuntzekin lotutako proiektu esanguratsuak | |

⁵ 1 = oso txikia, 2= txikia, 3 = ertaina, 4= handia, 5= oso handia

IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-GIROA | DATUEN LABURPENA

 → *Hizkuntza Proiektuaren batzordeak betetzeko*
IKASLEEN HIZKUNTZA ERABILERA ETA JARRERAK
↳ Ikasleen hizkuntza-erabilera¹
Ziklo edota etaparen arabera datuak

| Hizkuntza bakoitzaren erabileraren estimazioa (%koa) (zutabeetako datuen baturak 100 eman behar du) | euskaraz | gaztelaniaz | ingelesez | beste bat |
|---|----------|-------------|-----------|-----------|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| Ikastetxearen batez bestekoa: | | | | |

Espazioaren arabera

| %aren estimazioa | ikasgelan | pasabideetan | jolastokian | beste batzuetan |
|-------------------------|-----------|--------------|-------------|-----------------|
| euskaraz | | | | |
| gaztelaniaz | | | | |
| ingelesez | | | | |
| beste bat | | | | |

Solaskideen arabera

| %aren estimazioa | ikaskideekin | irakasleekin | begiraleekin, adm. eta zerb. langileekin | bestelakoekin |
|-------------------------|--------------|--------------|---|---------------|
| euskaraz | | | | |
| gaztelaniaz | | | | |
| ingelesez | | | | |
| beste bat | | | | |

↳ Hizkuntza-jarrerak: ikasleen irudikapenak, hautemateak, usteak...
Gure ikasleen iritziz, ondorengo egoera edo jardunguneei zein hizkuntza doakie hobeto?
(Estimazioa)

| Ikasleen %koa | euskaraz hobeto | gaztelaniaz hobeto | bietan berdin | ingelesez hobeto | hiruretan berdin |
|-------------------------|--------------------|-----------------------|------------------|---------------------|---------------------|
| Zientzia eta Teknologia | | | | | |
| Eskola-munduari | | | | | |
| Lan-munduari | | | | | |

¹ Hizkuntza Normalizaziorako Programaren (Ulibarri) diagnostikoa egina duten ikastetxeek bertan topatuko dituzte ikasleen erabilerari buruzko datuak (*Ikasleen mintzagrama* eta *Gela-argazkia* izeneko tresnetan, hain zuzen). Diagnostiko hori egina ez dutenek edo hura osatu nahi dutenek taula hauek balia ditzakete. Batzordekideek egin dezakete erabileraren estimazioa, zuzenean. Informazio zehatzagoa eta kontrastatuagoa nahi izanez gero, tutore bakoitzari bere taldearen estimazioa egin dezala eskatu eta horien batez bestekoa atera.

| | | | | | |
|---------------------|--|--|--|--|--|
| Musika-munduari | | | | | |
| 6 | JARDUERA ACTIVIDAD | ADIBIDEA MODELO 6.1 |
| | diagnostikoa <i>diagnóstico</i> | |

IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-GIROA ETA IBILBIDEA

📁 Ikastetxearen hizkuntza-giroa

IKASLEAK: ERABILERA ETA JARRERAK...

- Ikasleen euskararen erabilera ikasgela barnean eta irakasleekiko harremanetan altua da (%75 eta %95 hurrenez hurren).
- Ikaskideekiko gelaz kanpoko harremanetan, berriz, erabilera-maila baxuagoa da (%40), jaitsiera nabarmenagoa da ikasle zaharrenean artean (10 urtetik aurrera).
- Ikasleek ikuspegi mugatua dute euskaraz zenbait eremutan duen erabilgarritasunari buruz: lan-mundua, aisialdiko jarduerak...

IRAKASLEAK ETA GAINERAKO PROFESIONALAK: EZAGUTZA, ERABILERA ETA PRESTAKUNTZA...

- Irakasleok, ia-ia guztiok, baditugu gure lana euskaraz garatzeko behar diren gaitasuna eta titulazioa. Hala ere, talde handi batek adierazten du bere ahozko zein idatzizko ekoizpenen kalitatea hobetzeko nahia.
- Badira hiru irakasle beren arloa ingelesez emateko gaitasuna eta titulazioa badutenak. Une honetan ditugun beharretarako nahikoak dira, baina ez epe ertaineko aurreikuspenetarako. Bada talde zabal bat (6 – 8 irakasle) oinarritzko gaitasuna baduena eta bere prestakuntzan sakontzeko asmoa duena, ingelesez lan egiteko gaitasuna lortze aldera.
- Irakasle askok adierazten dute hizkuntza-prestakuntzan sakontzen jarraitzeko beharra eta nahia. Gehienek hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna bere arloan (izan arlo linguistikoa edo ez linguistikoa) hobeto lantzeko prestakuntza didaktiko-metodologikoan sakondu nahi du. Talde zabal batek, gainera, bere burua prestatu nahi du hizkuntza-jarrerak ikasleekin lantzeko eta gelako interakzio- zein komunikazio-egoerak dinamizatzen estrategiak eta trebetasunak hobetzeko.
- Irakasleen arteko euskararen erabilera-maila altua da, gehienok %100 baliatzen dugu ikasleekiko harremanetan. Bada irakasleren bat gaztelania erabiltzen duena behin edo behin ikasleekiko gelaz kanpoko harremanetan edota lankideekiko harreman informaletan.

ERABILERA HARREMANETAN ETA EREMU INSTITUZIONALEAN

- Altua da euskararen erabilera barne-harremanetan (irakasle-taldeen zein gobernu-kidegoen bileretan), dokumentazio idatzian eta hizkuntza-paisaian. Euskara da ohiko harreman- eta lan-hizkuntza.
- Familiekiko harremanetan euskara ulertzen ez duten gurasoei informazioa gaztelaniaz jasoko dutela bermatzen zaie. Oinarritzko informazio idatzia prest dugu munduko beste zenbait hizkuntzatan.
- Kanpo-harremanak euskaraz bideratzen dira, solaskideak gure hizkuntza ulertzen badu.

📁 Ikastetxearen hizkuntza-ibilbidea

- Ikastetxeak 80. hamarkadaren hasieran ekin zion D ereduaren ezarpenari, eta 90. hamarkadaren erdialdetik hona hori da ikastetxeko eredu bakarra. H1 gaztelania edo beste hizkuntzaren bat dunenei ematen diegun hezkuntza- eta hizkuntza-erantzuna bereziki zaindu dugu; murgiltze-programen estrategiak eta prozedurak baliatzen ditugu horretarako.

| | | |
|---|-----------------------------------|--------------------|
| 6 | JARDUERA ACTIVIDAD | ADIBIDEA MODELO |
| | diagnostikoa <i>diagnóstico</i> | 6.1 |

- 90. hamarkadaren erdialdean hasi ginen hizkuntzak ikuspegi komunikatiboaren arabera lantzen. 2007an Ikastetxeko Curriculum Proiektua berregin genuen oinarritzko gaitasunak lantzeari begira. Horrez geroztik, gure lan egiteko moduan gero eta toki gehiago hartzen ari dira interakzioan, kooperazioan eta komunikazioan oinarritutako moduak, bai arlo linguistikoetan bai ez linguistikoetan. Hizkuntza arloetako curriculumak koordinatu eta hizkuntzen trataera bateratuan aurrerapausoak eman ditugu.

Zer egin aukerak aprobetxatzeko eta erronkei aurre egiteko?

- Ikasleen arteko gelaz kanpoko interakzio-egoeretan euskararen erabilera sustatu eta dinamizatu.
- Ikasleekin hizkuntza-jarrerak landu (usteak, hautemateak...) euskararen gizarte-balioari buruz duten irudikapenak hobetzeko.
- Irakasleen hizkuntza-erabilerarako irizpideak zehaztu, ikastetxea bihurtu dadin ikasleentzako euskararen erabilerarako gune esanguratsua.
- Irakasleon hizkuntza-kontuetako prestakuntza-plana zehaztu eta Hobekuntza Planean txertatu.
- Arlo linguistikoetan hizkuntzen trataera bateratuan aurreratzen jarraitu. Arlo ez linguistikoetan ere arloari dagozkion hizkuntza-alderdiak landu (trebetasunak, generoak, testu-mailako baliabideak zein lexikoak eta sintaktikoak...).

DIAGNOSTIKOAREN ADIBIDEA | HIZKUNTZEN IKAS-IRAKASKUNTZA ANTOLAMENDURAKO ERABILTZEN DIREN HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

7.1.1. Ikasleak taldekatzeko irizpideak (Haur eta Lehen Hezkuntza)

Zer irizpide hartzen dira kontuan ikasleak taldekatzeko orduan? Kontuan izaten da ikaslearen lehen hizkuntza? Eta atzerriko hizkuntza? Erabiltzen diren irizpideak eta hauen zergatia azaldu.

Erabiltzen diren irizpideak egokiak dira? Zerbait aldatu beharko litzateke?

| Zer egiten dugu? | Zer hobetu behar dugu? |
|--|---|
| Erabiltzen ditugun irizpideak ikastetxean beste kasuetan erabiltzen direnak dira. Irizpideak ez dituzte ziklo bakoitzeko irakasleek erabakitzen, maila orokorreko erabakiak dira. Irizpidea izan da euskara lehen hizkuntza duten ikasleak talde batean jartzea eta beste taldean lehen hizkuntza gaztelania dutenak. Ingelesari edo hirugarren hizkuntzari dagokionez, kontuan izan behar da beste hizkuntzarik ezagutzen duten. Irizpidea da hirugarren hizkuntza ikastetxetik kanpo indartzen dutenak beste talde batean jartzea. | Ez dugu argi zein izan daitekeen taldekatzeko irizpiderik argiena. Berraztertu behar ditugu ikasleak taldekatzeko hizkuntza-irizpideak . |

Badago ikastetxean sisteman sartzen diren ikasle berrientzako Harrera Planik? Talde batean edo bestean jartzeko, hizkuntza kontuan izaten da?

Egiteko modua egokia da? Zerbait aldatu beharko litzateke? Harrera Plana egin edo berregin beharko litzateke?

| Zer egiten dugu? | Zer hobetu behar dugu? |
|---|---|
| Ikastetxean harrera plana izaten dugu kontuan. Taldekatzeko orduan, ez dugu hizkuntza kontuan izaten, baina uste dugu irizpide egokia izan daitekeela. | Ikasle etorri berri bakoitzari zuzendutako banakako harrera plana egin behar zaio. Bakoitzaren egoerari egokitu behar zaio, ezberdinak baitira. |

Ikasleen aniztasunari begira, hizkuntzarekin lotutako antolamendurako neurri berezirik hartzen da? Indartze-neurrietan? Ikasle etorri berriekin? Premia berezietako ikasleekin?

Hizkuntza kontuan hartzen da? Era egokian? Zerbait aldatu beharko litzateke?

| Zer egiten dugu? | Zer hobetu behar dugu? |
|--|---|
| Zuzendaritza taldeak erabaki behar ditu antolamendurako neurri egokiak eta aldaketak proposatu egoera bakoitzean. Indartze orduak ordutegiak aldatzen dituzte eta, askotan, irakasleen nahiaren arabekoak dira. Premia berezietako ikasleek taldekatze ezberdinak dituzte eta errazagoa da hauen ordutegiak kudeatzea. Ikasle etorri berriek ez dute askotan laguntzarik (HIP) jasotzen (etortze dataren arabera) eta irakasleek hartu behar dute lan hau bere gain. Hezkuntza Sailak gai hau argitu beharko luke. | Gai hauen aurreko ekintza protokoloa egin beharko litzateke. Zikloen arteko batzordea datorren ikasturte hasierarako protokoloa egiten saiatu beharko litzateke. |

| | | |
|----------|-----------------------------------|--------------------|
| 7 | JARDUERA ACTIVIDAD | ADIBIDEA MODELO |
| | diagnostikoa <i>diagnóstico</i> | 7.2 |

DIAGNOSTIKOAREN ADIBIDEA | ESPARRU DIDAKTIKO-METODOLOGIKOA

HIZKUNTZEN IKAS-IRAKASKUNTZA ARLO EZ LINGUISTIKOETAN

[DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA]

Irakurmena, idazmena, entzumena, mintzamena eta elkarreragina lantzen dituzue zuen arloetan?

Zuen ustez, horrela egin beharko genuke? Nola? Nola hasi gaitzke?

Irakurmena, idazmena, entzumena, mintzamena eta elkarreragina ebaluatzen dituzue zuen arloetan?

Ebaluatu beharko lirateke? Modu bateratuan? Nondik hasi gintezke?

Musika: Ez dugu horrelakorik egiten. Ez dago koordinaziorik arloen artean ezta gure arloaren eta hizkuntzen artean ere. Orain dela urte batzuk gaztelania eta euskara Hizkuntzen Trataera Bateratuaren inguruan hasi ziren lanean eta aurtan atzerriko hizkuntzarekin ere koordinatzen dira. Baina besterik ez.

Teknologia: Hizkuntzei dagokionez ez dago koordinaziorik arloen artean. Teknologia eta hizkuntzen mintegien artean ez dago koordinaziorik.

Latina: Departamendu bakoitza bere kabuz antolatzen eta koordinatzen da. Ez dago harremanik eta ez dugu hartu erabaki bateraturik hizkuntza-gaitasuna denon artean lantzeko. Beste hizkuntzekin ez dago elkarlanik. Ez daukagu irizpide komunik. Gainera, oso zaila iruditzen zait eta ez dut uste beharrezkoa denik. Irakasgaiak oso desberdinak direlako.

Fisika eta Kimika: Ez dugu gai hori tratatu etapa-koordinazio bileretan. Erabaki bakarra da euskararen normalizazioan lan egingo dugula, eta horregatik, euskara baino ez dugu erabiltzen gure arloetan (bideoak, entziklopediak, testu liburuak...) Behin, euskara mintegiarekin bildu ginen laborategiko informe bateratuak egiteko. Izan ere, ikasleek halako txostenak egiten ere ikasi behar dute. Ikasle guztiek eta irakasleok eskema-eredu berdina erabiltzen dugu.

Heziketa Fisikoa: Guk geure mintegian ez dakigu ezer horren inguruan. Ez dugu inoiz horretaz hitz egin eta ez dugu akordiorik hartu. Hizkuntzekin ez daukagu harremanik. Bakoitzak berea egiten du, koordinaziorik gabe.

Erljioa: Ez daukat koordinaziorik hizkuntzetako mintegiekin. Tutorearekin soilik koordinatzen naiz noizean behin.

Plastika: Ez dago koordinaziorik ez arloen artean ez hizkuntzakoekin, ingeleseko mintegikoekin kenduta...

Matematika: Ez dugu koordinaziorik arloen artean hizkuntzei dagokienez. Hizkuntzetako mintegiko irakasleei aipatu egiten diegu zelako arazoak dituzten gure ikasle batzuek testuak, lexikoa eta egitura batzuk ulertzeko, eta noizean behin erantzun puntualak eman dira (errefortzuak, esaterako...).

Biologia: Ez, ez hizkuntzei dagokienez ez beste gai batzuei dagokienez, ebaluazio-irizpideei dagokienez, esaterako. Hizkuntzen mintegiekin ere ez dago koordinazio formalik, akaso pertsonen artekoa, baina batez ere momentuko beharrezanean erantzuteko.

| | | |
|----------|-----------------------------------|--------------------|
| 8 | JARDUERA ACTIVIDAD | ADIBIDEA MODELO |
| | diagnostikoa <i>diagnóstico</i> | 8.1 |

HARREMANEN, KUDEAKETAREN ETA ANTOLAKETAREN EREMUA

| ZEIN EGOERATAN GAUDE? ZER EGITEN DUGU? | ZER HOBETU DEZAKEGU? | LEHENTASUNA |
|---|--|-------------|
| <p>Ikasle gehienentzat ikastetxea da euskaraz jarduteko eta euskarazko komunikazio-gaitasuna garatzeko gune nagusia. Ikasleek erabilera-egoera asko, askotarikoak eta gero eta konplexuagoak behar dituzte beren komunikazio-gaitasuna garatu ahal izateko.</p> <p>Gure ikasleek, beren ohiko ingurunean eta ikastetxean, badituzte gaztelaniaz aritzeko egoera esanguratsu ugari eta era askotakoak; horrela gaztelaniazko komunikazio-gaitasunaren garapen egokia bermatua dute.</p> | <p>Areagotu ikasleei euskara erabiltzeko aukera ematen dieten egoerak ikastetxean, bai ikasgela barnean baita ikasgelaz kanpo ere. Eta horretarako, euskaraz aritzeko aukera ugari eskaini ikasleei, eta egoera horietan ikasleen parte-hartze aktiboa lagundu eta dinamizatu.</p> | 1 |
| | <p>Ikastetxe barneko harreman-esparru eta -forotan euskararen presentzia eta erabilera sustatu, ikasleek antzeman dezaten euskara dela ikastetxeko ohiko harreman-hizkuntza.</p> | 2 |
| <p>Zenbait ikaslek “beste hizkuntza bat” dute H1. Familia-giroan horri eustekak eta H1 horren garapen egokia lortzeak lagunduko die eskolako hizkuntzetan ere komunikazio-gaitasun maila egokia garatzen.</p> | <p>Zenbait ikaslek H1 duten “beste hizkuntza” horiei presentzia eman ikastetxeko gune eta jarduera batzuetan, eta horiekiko interesa eta onarpena erakutsi.</p> | 2 |
| | <p>Ikasle horiek beren H1 etxeko eta inguru hurbileko giroan balia dezaten sustatu. Erabilera horren garrantzia familiekin konpartitu.</p> | 2 |
| <p>Orduz kanpoko jardueretan eta aisialdiko beste zenbait gune eta jardueretan ikasleek badituzte euskaraz aritzeko aukera askotxo. Horrelako jardueretan parte hartzeak lagunduko die beren komunikazio-gaitasuna garatzen, eta, gainera, haien gizarte-integraziorako aukerak hobetuko ditu.</p> <p>Parte-hartze horri onura handia atera ziezaiokeen zenbait ikaslek parte hartzea eragozten dizkieten oztopoak aurkitzen dituzte.</p> | <p>Ikasleekin eta haien familiekin konpartitu orduz kanpoko eta aisialdiko jardueretan euskaraz aritzearen garrantzia. Batez ere horrelako jardueren balioa antzematen ez dutenekin eta parte hartzeko oztopoak aurkitzen dituztenekin.</p> | 1 |
| | <p>Kuotak-eta ikasleen parte-hartzerako oztopo izan ez daitezen bideak urratu.</p> | 2 |
| <p>Irakasleok badugu, oro har, gaitasun nahikoa gure irakaslana euskaraz garatu ahal izateko. Talde zabal batek ahozko ekoizpen formalak hobetzeko nahia adierazi du.</p> <p>Arloren bat ingelesez eman ahal izateko, zenbait irakaslek ingelesezko komunikazio-gaitasuna hobetu beharko luketela egiaztatu dugu.</p> <p>Irakasle gehienek, arlo linguistikoak ematen dituztenek ez ezik arlo ez linguistikoak ematen dutenek ere, beren arloetan hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna hobeto lantzeko prestakuntzan sakontzeko asmoa agertu du.</p> | <p>Irakasleon hizkuntza-prestakuntzarako plana prestatu eta gauzatu, eta horren bidez antzemandako beharrei eta nahiei erantzun.</p> <p>Txertatu aipatu plan hori ikastetxearen hobekuntza-planaren zein prestakuntza-planaren barnean.</p> | 1 |

| | | |
|----------|-----------------------------------|--------------------|
| 8 | JARDUERA ACTIVIDAD | ADIBIDEA MODELO |
| | diagnostikoa <i>diagnóstico</i> | 8.2 |

HIZKUNTZEN IKAS-IRAKASKUNTZA

HIZKUNTZEN IKAS-IRAKASKUNTZA ARLO/IKASGAI EZ LINGUISTIKOETAN

| ZER EGITEN DUGU? | ZER HOBETU BEHAR DUGU? | LEHENTASUNA |
|---|--|-------------|
| <p>Arlo/ikasgaiei dagokien irakurmena, idazmena, entzumena, mintzamena eta interakzioa bultzatu eta lantzen dira?</p> <p>Hizkuntza-trebeziak arlo guztietan izaten dira kontuan hizkuntza komunikazio tresna delako. Batez ere matematikako arloan idatzizko ulermenari buruzko kezka adierazten dute. Arlo guztietan azpimarratzen ahozko hizkuntza lantzearen garrantzia. Jarduerak egiten dira, ataza solteak, baina ez era adostu eta jarraian. Uste dugu ahozko hizkuntza gehiago landu behar dela. Ziklo eta departamendu guztietan adierazten da ahozko hizkuntzaren inguruko lana hobetzeko beharra.</p> | <p>Ahozko hizkuntzaren inguruan hobetu daitezkeen alderdiak aztertu eta ikastetxe mailako erabakiak hartu.</p> | 1 |
| | <p>Garrantzia eman arloetako berariazko testuen ulermenari.</p> | 2 |
| <p>Arlo/ikasgaiei dagokien irakurmena, idazmena, entzumena, mintzamena eta interakzioa ebaluatzen dira? Era bateratuan ebaluatzen dira arlo/irakasgai ezberdinetan?</p> <p>Trebezia hauen inguruko lana egiten da, baina ziklo eta departamentu guztietan ebaluazio irizpide argiak zehazteko beharra ikusten da. Ez dago hizkuntzak eta beste arloen arteko koordinaziorik ahozko eta idatzizko testuak zuzentzeko. Koordinatzeko zailtasun handia dago nahiz eta koordinatzeko erak bilatzeari garrantzi handia ematen zaion.</p> | <p>Hizkuntza-trebetasunak ebaluatzeko ebaluazio adierazleak aukeratu eta adostu.</p> | 1 |
| | <p>Hizkuntza-trebetasunak ebaluatzeko ebaluazio tresnak aukeratu eta adostu.</p> | 3 |
| | <p>Irakasleen arteko koordinazio moduak bilatu, Hizkuntza Proiektuko batzordearen laguntzarekin.</p> | 1 |

📌 HIZKUNTZA PROIEKTUAREN LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ESPARRUAK

Egindako azterketaren arabera, jarduera-esparru nagusi hauek proposatzen dira:

| | |
|----------|---|
| 1 | Diagnostikoan aztertu eta gero hizkuntzen erabilera harremanen, kudeaketaren eta antolakuntzaren esparruan, antzeman da irakasleek beren arteko harremanetan zein familia eta inguruarekin gaztelera erabiltzen dutela gehienetan. Beraz, jarduera-esparru nagusia euskararen erabilera sustatzea izango da, bai ikastetxean zein familia eta inguruarekiko harremanetan. |
| 2 | Harremanen, kudeaketaren eta antolakuntzaren esparruari dagokionez, ikasleek ikastetxetik kanpo euskara erabiltzeko dituzten aukerak gutxi direla eta euskararen maila egokia izateko hizkuntza egoera anitzetan erabiltzeko beharra dutela kontuan izanda, erabilera egoera anitzak eta gero eta konplexutasun handiagokoak sustatuko ditugu ikastetxean, horretarako ikastetxea euskararen erabilerarako toki esanguratsua bihurtuz. Horretaz gain, inguruko erakundeek aisialdirako jardueren eskaintza handia eta egokia egin dezaten lan egingo dugu eta gure ikasleen parte-hartzea bultzatu. |
| 3 | Esparru didaktiko-metodologikoari dagokionez, hizkuntzen ikas-ikaskuntza arlo guztietan aztertu eta gero, ahozko hizkuntzaren lanketa urria ageri da arlo guztietan. Beraz, jarduera-esparru nagusia ahozko hizkuntza arlo guztietan lantzea izango da eta, honekin batera, ebaluazio tresna bateratuak erabiltzea ikasleen ahozko hizkuntzaren garapen maila ebaluatzeko. |
| 4 | Hizkuntzen esparru didaktiko-metodologikoari dagokionez, Hizkuntzetako ikasgaietan irakasleen arteko koordinazio eza nabaritzen da. Beraz, lehentasunezko jarduera-esparrua izango da metodologia bateratzea ikasleen hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren garapena sustatzeko. |
| 5 | Ikasgaien hizkuntzari eta hizkuntza bakoitzean emandako orduei dagokionez, ikasgai bat atzerriko hizkuntzan emateko beharra antzematen da ikasleen hizkuntza-komunikazioaren konpetentziaren garapena sustatze aldera.. |

| | | |
|----|-----------------------|--------------------|
| 10 | JARDUERA ACTIVIDAD | ADIBIDEA MODELO |
| | garapena desarrollo | 10.1 |

IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-HELBURUAK. ZER NAHI DUGU?

📌 Hizkuntza Proiektuaren helburu orokorrak Hezkuntza Proiektuari lotuak

- Ikastetxeak heziketa euskalduna eman nahi die ikasleei, euskara modu egokian jakin eta euskal kultura sendotzeko, garatzeko eta transmititzeko prozesuan parte har dezaten. Ikastetxeak gizabanako euskaldunak hezi nahi ditu euskararekiko motibazioa eta jarrera positiboa dutenak.
- Ikastetxeak euskara du Hezkuntza Proiektuaren eta Hizkuntza Proiektuaren ardatz baina, gizabanako eleaniztunak hezi nahi dituen heinean, hain beharrezkoa den beste hizkuntza batzuen erabilera eta ezagutza bultzatzeko behar diren neurriak bultzatuko ditu.
- Halaber, ikastetxe honek euskara bihurtu nahi du barne-bizitzako komunikazio-hizkuntza, bertako eta beraren harremanetan euskararen zabalkundea, garapena eta transmisioa ziurtatuz.
- Ikastetxearen iritziz ingurunearen eta gizabanakoaren hizkuntza-aniztasuna eta kultura-aniztasuna eskubideak dira. Eskubide hori baliatzeko aniztasunarekiko errespetua eta konpromiso jarrerak sustatuko ditu, bazterkeria, bereizkeria jarrerak gainditzen saiatuko delarik.
- Ikastetxeak proiektu honetan, arlo bat edo ikasgai bat, gutxienez, atzerriko hizkuntzan irakasteko asmoa ezarri nahi du, ikasleen gaitasun eleanitza garatzen laguntzeko.

📌 Ikastetxearen diagnostikoarekin lotutako helburu zehatzak

- Ikastetxeak, bertan irakasten diren eta irakasteko erabiltzen diren hizkuntzetan (euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa), ikasleen hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia garatu eta hobetu nahi du indarrean dagoen curriculum-markoak zehatutakoarekin bat.

Halaber, ikastetxean honako helburu hauek lortu nahi ditugu:

- Ahozko euskararen erabilera sustatzea ikastetxeko harremanen hizkuntza gisa
- Ahozko hizkuntza lantzea arlo eta ikasgai guztietan
- Ahozko hizkuntza ebaluatzeko irizpideak eta tresnak adostea, arlo eta ikasgai guztietan.
- Hizkuntza-esparruko arlo guztien arteko koordinazioa hobetzea, metodologia koherente eta bateratua erabiliz.
- Hizkuntza guztietan hizkuntza-trebetasunak (hitz egin, solasean aritu, irakurri, idatzi, entzun...) modu koherentean eta bateratuan ebaluatzea.

| | | |
|----|-----------------------|--------------------|
| 10 | JARDUERA ACTIVIDAD | ADIBIDEA MODELO |
| | garapena desarrollo | 10.1 |

Helburuak zehazteko prozesuaren adibidea, Hezkuntza Proiektutik eta ikastetxearen diagnostikotik abiatuta.

Hizkuntza Proiektua

helburuak

Ikastetxeak prestakuntza euskalduna eman nahi die ikasleei euskara modu egokian menperatu eta euskal kultura sendotzeko, garatzeko eta transmititzeko prozesuan parte har dezaten. Ikastetxeak euskararekiko jarrera positiboa eta motibazioa duten gizabanako euskaldunak hezi nahi ditu.

Euskararen ahozko erabilera indartzea ikastetxeko harremanen hizkuntza gisa.

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua

Ikastetxeak gizabanako euskaldunak hezi nahi ditu.

Diagnostikoa

Harremanen, kudeaketaren eta antolakuntzaren esparruari dagokionez, diagnostikoan ikusi da irakasle gehienek gaztelania darabilte ikastetxeko harremanetan, bai ingurukoekin, bai ikasleen familiekin. Beraz, ikastetxearen jarduera-esparru nagusietako bat izango da euskararen erabilera bultzatzea inguruneke zein familiekiko harremanetan.

| | | |
|----|-----------------------|--------------------|
| 11 | JARDUERA ACTIVIDAD | ADIBIDEA MODELO |
| | garapena desarrollo | 11.1 |

IKASTETXEAREN HIZKUNTZA PLANTEAMENDUA

HARREMANEN, KUDEAKETAREN ETA ANTOLAKETAREN EREMUA

↳ Hizkuntzen erabilerari buruzko irizpideak

Gure ikasleek euskaldun eleaniztunak izatera ailegatu daitezen nahi badugu, ikasleen eskolaz kanpoko hizkuntza-ingurunea nolakoa den ikusita, eskolak ziurtatu beharko die euskaraz jarduteko egoera asko, askotarikoak eta gero eta konplexuagoak. Horretarako eskolak euskararen erabilera naturala errazten duen ekosistema lagungarri bihurtuko dugu; hots, euskararen erabilera natural eta funtzionalerako gune esanguratsua izan dadin ahaleginduko gara.

Irakasleok ikasleekiko harremanetan euskaraz arituko gara, gelan (gaztelaniaz eta ingelesez ematen diren jakintza arloetako irakas-jardueretan izan ezik) zein gelaz kanpo. Halaber, irakasleok arteko harremanak euskaraz garatuko ditugu, lan kontuetakoak zein bestelakoak, baita langile ez-irakasleekin eta euskaraz ulertzen duten familiekin ere.

Erabiltzaile aktibo eta erabileraren eredu ez ezik, erabilera-eragilearen rola ere jokatu dugu.

↳ Lankidetzaren harremanak

Herriko erakundeekin eta eragileekin elkarlanean arituko gara; gure ikasleek, eskolaz kanpo ere, euskaraz jarduteko aukera ugari eta askotarikoak izan ditzaten. Izan ere, jakin badakigu gurea bezalako hizkuntza-ingurunetan bizi diren gazteen hizkuntza-gaitasunean eta hizkuntza-erabileran zenbateko eragina duen aisialdi antolatuko jardueren hizkuntzak. Haur eta gazteei eskaintzen zaizkien aisialdi-zerbitzuak (liburutegia-mEDIATEKA, haurtxokoa, gaztelekua, astialdi-taldeak...), jarduera iraunkorrak (kirola, tailerrak...) eta ekitaldiak (proiektzioak, ikuskizunak...) euskaraz izan daitezen eragingo dugu jarduera horien antolatzaileengan. Jarduera horiek euskaraz eskaini ez ezik, euskararen erabilerarako abaguneak ere izan daitezten; jarduerak gidatzeaz arduratzen diren profesionalen sentsibilizazio eta prestakuntza bereziki garrantzitsua da. Profesional horiek hizkuntza-dinamizatzaile izateko behar duten prestakuntza jaso dezaten eskatuko diegu udal-zerbitzuei.

Ikasleek herrian sortzen diren erabilera-aukerak baliatu ditzaten, sentsibilizazio-lanak egingo ditugu ikasleekin beraiekin eta beren familiekin, eta, hala, jarduera horiek euskaraz garatzeak haien hizkuntza-prestakuntzan eta -sozializazioan duen garrantzia konpartituko dute.

ESPARRU DIDAKTIKO METODOLOGIKOA. HIZKUNTZAK NOLA IKAS-IRAKASTEN DITUGU?

↳ Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzeko printzipio pedagogikoak

Hizkuntzen plangintza orokorra:

Euskara izango da ikasgai eta ikasbide, maila eta kurtso guztietan. Murgiltze-programen prozedurak eta estrategiak baliatuko ditugu euskara H2 dutenekin, eta mantentze-programarenak H1 dutenekin. Gainera, komunikazio-hizkuntza izango da ikasleekiko harremanetan eta haiei dagozkien jardueretan.

| | |
|--------------------------------|-----------------------|
| 11 JARDUERA ACTIVIDAD | ADIBIDEA MODELO |
| | garapena desarrollo |

11.1

Gaztelania: ikasgai izango da LHko 3. mailatik aurrera. Gainera, HHn eta LMHko lehen zikloan, gaztelaniazko komunikazio-gaitasuna garatzeko lan pertsonalizatua (LP) egingo da behar duten ikasleekin.

Ingelesa: ikasgai izango da HH 4u.-tik aurrera. Ikasbide ere izango da LHko 5 eta 6. mailetan, Arte Hezkuntza emateko, eta DBHko 3. eta 4.etan Gizarte Zientziak emateko. Gela barruko komunikazio-hizkuntza ere izango da ikas-irakaskuntza jarduera horietan.

Frantsesa: hautazko (H) ikasgaia izango da, DBHn.

Gure ikasleen bestelako H1ak: presentzia izango dute ikastetxeko hizkuntza-paisaian eta ekitaldi nagusietan. Gainera, gelako zenbait jardueratan ere tokia egingo zaie.

| ETAPA/ Kurtsoa | | EUSKARA | GAZTELANIA | INGELESA | FRANTSESA |
|--|-----|-------------------|------------|----------------|------------|
| HAUR HEZKUNTZA 25 saio | 2 u | Era globalizatuan | LP | | |
| | 3 u | Era globalizatuan | LP | | |
| | 4 u | Era globalizatuan | LP | 2 saio | |
| | 5 u | Era globalizatuan | LP | 2 saio | |
| LEHEN MAILAKO HEZKUNTZA 25 saio | 1 | Era globalizatuan | LP | 2 saio | |
| | 2 | Era globalizatuan | LP | 2 saio | |
| | 3 | 4 saio | 4 saio | 3 saio | |
| | 4 | 4 saio | 4 saio | 3 saio | |
| | 5 | 4 saio | 4 saio | 4 saio (2 + 2) | |
| | 6 | 4 saio | 4 saio | 4 saio (2 + 2) | |
| DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 30 saio | 1 | 4 saio | 4 saio | 4 saio | H (2 saio) |
| | 2 | 4 saio | 4 saio | 4 saio | H (2 saio) |
| | 3 | 4 saio | 4 saio | 6 saio (3 + 3) | H (2 saio) |
| | 4 | 4 saio | 4 saio | 6 saio (3 + 3) | H (2 saio) |

Ikasleak taldekatzeko irizpideak

Ikasle-taldeak eratzeko orduan, zenbait irizpide baliatzen ditugu: ikasleen familia-hizkuntza edo H1, neska-mutilen kopurua orekatua izatea, baita ikasle etorri berriena edo berriazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleena ere, maila berean neba-arrebaren bat izatea...

Taldeak eratzeko baliatzen ditugun hizkuntza-irizpideek hau bilatzen dute: ikasle guztiei beren ezaugarri eta beharrezanetara egokitutako hezkuntza- eta hizkuntza-erantzuna ematea. Eta, honela:

- Input egokitua jasotzeko eta outputa emateko aukera aproposak eskaintzea, bai euskara H2 duten ikasleei, baita H1 dutenei ere.
- Euskara H2 duten ikasleei H1 dutenekin interakzioan euskaraz jarduteko aukera nahikoa ziurtatzea. Interakzio hori komunikazio-gaitasunaren garapenean lagungarri suertatuko zaielakoan.

| | | |
|----|-----------------------|--------------------|
| 11 | JARDUERA ACTIVIDAD | ADIBIDEA MODELO |
| | garapena desarrollo | 11.1 |

- Haien arteko interakzio hori euskaraz eman dadin baldintzarik egokienak sortzea. Ikasle guztiek ikus dezaten ikastetxea euskararen erabilera naturalerako gune esanguratsu gisa; eta, honela, euskara H1 duten ikasleek euskaraz aritzeari eutsi diezaioten, hori da kodea alda ez dezaten, eta euskara H2 dutenek, berriz, euskaraz aritzera animatzeko segurtasuna eta motibazioa sentitu dezaten.

Haur Hezkuntzan taldeak eratzeko orduan familia-hizkuntza da baliatzen dugun irizpide nagusietako bat. Hala, bi talde mota ditugu: “murgiltze” eta “mantentze” taldeak. Matrikulatze-garaian, familia guztiek jasotzen dute informazioa taldeak eratzeko moduz eta horrela jokatzeko arrazoiaz. Lehen Hezkuntzako 3. mailan talde berriak eratzen ditugu, eta orduan ikasleen familia-hizkuntza ez dugu aintzat hartzen.

Haur Hezkuntza eta LMHko lehenengo zikloan zehar “murgiltze” eta “mantentze” taldeen arteko harremana zaindu egiten dugu: maiz elkartzen dira, haien arteko hizkuntza-interakzioa aberasteko eta gizarte-integrazioa indartzeko.

Ikasleen hizkuntza-aniztasunari begira, nola erantzun?

Gure hezkuntza-sisteman sartu berri diren ikasleak:

Maila guztietan, ikasle hauek ikastetxera ailegatzean, ebaluatzen dugu haien hizkuntza-gaitasuna (eskolako hizkuntza guztietan). Eta emaitzen arabera, duten mailari egokitutako “harrera-plana” diseinatu eta garatzen dugu, beren eskolaldia ondo garatzeko beharko duten hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzeari begira.

Familiekiko ikasturte hasierako bileretan (bi HHn eta LMHn: bat zuzendaritza-taldearekin eta bestea tutorearekin), familia guztiek eman nahi diegun informazioa ulertzen dutela ziurtatze aldera, zenbait hizkuntza erabiltzen ditugu: euskara, gaztelania eta, beharrezkoa denean, ingelesa eta frantsesa era bai. Gainera, oinarriko informazioa emateko baditugu testu idatziak ikasleen familien artean ohikoen diren beste hizkuntzetan.

HPBekiko ikasleak, beren ikastaldeko curriculumarekin erreferentziatzen dituenak :

HHn eta LMHko lehen zikloan HPBak dituen ikasleak euskaraz jasoko du berriazko laguntza. Bere zailtasunen jatorria H1ean duen garapen mugatuan dagoela antzemanaz gero, era pertsonalizatuan landuko da H1eko hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.

LMHko 3. mailatik aurrera eta DBHn HPBak dituzten ikasleek gehienbat euskaraz jasoko dute laguntza. Gaztelania eta Ingelesa arloak ere indartu egingo dira beharrezkoa bada.

HPBekiko ikasleak, norbanakoari egokitutako curriculumarekin erreferentziatzen dituenak:

LMN eta DBHn Norbanako Curriculum Egokitzapena duten ikasleek euskaraz jasoko dituzte laguntzak. Haien programazioetan, Gaztelania edota Ingelesa arloak egokitu egin behar direla erabakiz gero, hizkuntza horietan erabiliko horretarako laguntzetan.

Hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera baikorrak garatzeari begirako erabakiak

Hizkuntza-gaitasun eleaniztuna ez ezik, gaitasun hori testuinguru eta egoera eleaniztunetan kudeatzeko trebetasuna garatu nahi dugu; egoera horietan hizkuntza-hauturik egokiena zein den erabakitzeko gai izan daitezen, hizkuntza-minorizazio egoeretan ohikoak diren inertziatara makurtu gabe.

| | | |
|----|-----------------------|--------------------|
| 11 | JARDUERA ACTIVIDAD | ADIBIDEA MODELO |
| | garapena desarrollo | 11.1 |

Gazteak hautu kontzientea egiteko eta erabaki adostuak hartzeko gai izan daitezten nahi dugu; hots, hizkuntza-jokabide enpatiko, asertibo eta proaktiboak izateko gai izan daitezten, eta hizkuntza-elkarbizitza ekitatez eta gizalegez heldu diezaioten. Horretarako behar duten prestakuntza eta trebakuntza eskaini behar diegula uste dugu.

Horri begira, arloetan (hizkuntzetan, gizarte-zientzietan, tutoretzan...) landuko ditugun gaitasunak eta edukiak jasoko ditugu Ikastetxeko Curriculum Proiektuan.

Hizkuntza-gaitasuna arlo ez linguistikoetan

Arlo guztietan hitz egiteak, entzuteak, irakurtzeak, idazteak eta interakzioan jarduteak lagundu egiten du hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren gaitasuna garatzen ez ezik, arloko berariazko gaitasunak garatzen zein edukiak eta helburuak lortzen ere.

Gainera, argi dugu, jakintza-arlo bakoitzak ditu berariazko hizkuntza-alderdiak: testu-genero bereziak, hizkuntza-baliabide espezifikoak... Ikasleek horiek ere menderatu beharko dituzte komunikazio-gaitasun luze-zabala garatzeko. Eta alderdi horiek arlotik bertatik baino ezin dira modu esanguratsuan landu eta garatu. Horregatik arloetan “programazio bikoitza” deiturikoa baliatuko dugu, non arloari berez dagozkion gaitasun, helburu eta edukien lanketari ez ezik, berariazko hizkuntza-alderdien lanketari ere erreparatzen baitzaio.

Irakasle on prestakuntza

Hizkuntza Proiektu honetan erabakitakoa aurrera ateratzen joateko, irakasle on eta gainerako profesionalen hizkuntza-prestakuntzan sakontzen jarraitu behar dugu. Prestakuntzaren ikuspegi indibiduala gaitu, eta irakasle on eta gainerako profesionalen hizkuntza-prestakuntza plana garatzen joango gara. Plan hori ikastetxearen prestakuntza-proiektuaren barnean txertatu eta Hobekuntza Planarekin lotuko dugu).

Ikastetxearen hizkuntza-prestakuntza planak hainbat ardatz edo langai izango ditu:

- Profesionalen hizkuntza-gaitasuna eta -kalitatea.
- Komunikazio-trebetasunen lana, edozein arlotan, hobetzeko prestakuntza didaktiko-metodologikoa.
- Ikas-jardueretan komunikazio-egoerak sortu, kudeatu eta dinamizatu ahal izateko trebakuntza.
- Hizkuntza-jarrera eta -jokabide enpatikoak, asertiboak eta proaktiboak ikasleekin landu ahal izateko trebakuntza.
- Ikasleengan gaitasunaren kontzientzia landu eta ikasprozesuaren autoerregulazioa sustatu ahal izateko prestakuntza.

| | | |
|-----------|-----------------------------|--------------------|
| 12 | JARDUERA ACTIVIDAD | ADIBIDEA MODELO |
| | garapena desarrollo | 12.1 |

adibidea

↓ HIZKUNTZA PROIEKTUAREN ESPARRUA

Harremanen, kudeaketaren eta antolakuntzaren esparrua

↓ HELBURUA

1. Ikastetxearen barne- zein kanpo-harremanetan euskararen presentzia handitzea

| Helburu zehatzak | Jarduerak | Arduraduna(k) eta denbora-epeak | Parte-hartzaileak | Giza-baliabideak eta baliabide materialak | Ebaluazioa | |
|---|---|---|--|---|--|--|
| | | | | | Jarraipen-adierazleak [onartze-maila] | Lorpen-adierazleak [onartze-maila] |
| 1.1. Familien inplikazioa handitzea euskararen erabileran. | 1.1.1. Tutoretza-bileretan, ohiko gai gisa hartzea euskararen garapenean familiaren inplikazioak duen garrantzia. | Ikasturtean zehar, bilera guztietan → <i>Tutoreak familiarekin</i> | Tutore guztiak | · Gai horri buruzko artikulua | Aurreikusitako jarduerak egin dira [%75] | Familia erdaldunek oinarriko zenbait esapide erabiltzen dituzte euskaraz ikastetxean: agurrak, galderak... [%50] |
| | 1.1.2. familiarekin egingo diren bileretan hizkuntzak erabiltzeko protokoloa idaztea. | Lehenengo hiruhilekoan → <i>Hizkuntza Proiektuaren batzordea</i> | Hizkuntza Proiektuaren batzordea Klaustrokideak | · Protokoloa | Protokoloa egin da. [%Bai/Ez] | Protokoloa erabili da familiarekin egin diren bileretan. [%100] |
| | 1.1.3. Sentsibilizazio-lana familiarekin, gizartean presentzia urria duen hizkuntzan egiten diren ekimenetan euren parte-hartzeak duen garrantziaz jabetzeko. | Lehenengo hiruhilekoan → <i>Zuzendaritza-taldea</i> | Zuzendaritza-taldea eta tutoreak Familiak | · Sentsibilizazio-jarduera diseinatzeko baliabideak eta osagaiak · Artikuluak, irakurgaiak | Aurreikusitako jarduerak burutu dira [%75] Aurreikusitako epean egin dira [%Bai/Ez] | Familien partaidetzak gora egin du euskarari lotutako jarduera eta ekimenetan. [%50] |

| | | |
|-----------|-----------------------------|--------------------|
| 13 | JARDUERA ACTIVIDAD | ADIBIDEA MODELO |
| | garapena desarrollo | 13.1 |

Ikasturtea 2015-2016

PLAN ESTRATEGIKOAREN URTEKO EBALUAZIOA

PLAN ESTRATEGIKOAREN HELBURUAK ETA JARDUERAK

Helburuak eta Jarduerak ¹

Lorpen-maila ¹

| | |
|---|---|
| <p>1. Familien euskararen erabileraren aldeko inplikazioa gehitu.</p> <p>1.1. Euskararen aldeko inplikazioa tutoretza bileretako gai finkoa bihurtu.</p> | <p>Aurreikusitako jarduera guztiak egin dira.</p> <p>Tutoretza bileretako aktetan agertzen denez, ikasleen erabilera hobetzeko familien inplikazioaren garrantzia azpimarratu da. Bileren %75ean egitea aurreikusten zen lorpen bezala. Haur Hezkuntzan %100ean egin da. Lehen Hezkuntzako 1. zikloan %80an egin da, 2. zikloan %75ean eta 3. zikloan %60an.</p> <p>Orokorrean helburua lortu bada ere, 3. zikloko datuak hobetzeko beharra ikusten da. Maila baxu hauen zergatia aztertuta, ziklo honetan beste gaiak (etapa amaiera, ikastetxetz aldatzea...) tratatu beharra izan da ustezko arrazoia. Ziklo honen bileren protokoloa berrikusiko da hau hobetzeko.</p> <p>Familiei gai hau behin eta berririo gogoratzea eraginkorra dela uste dugu, batez ere euskararen erabileraren aldeko jarrera eta motibazioa gehitzeke.</p> <p>Ikastetxean familien euskararen oinarritzko erabilera (agurrak, galderak...) gehitu dela antzematen da.</p> <p>Ez da lortu bilatzen genuen onarpen maila, %50a, adierazle hau neurtzeko dauden zailtasunengatik. Gure irudipena da familiek gehiago agurtzen dutela euskaraz tutoretza bileretan.</p> <p>Alderdi hau hobetu egin behar da, familiekin estrategia eraginkorragoak erabiliz.</p> |
| <p>2. Hizkuntza guztietako hizkuntz dimentsio guztiak (entzumena, irakurmena, mintzamena, idazmena eta interakzioa) era koordinatuan ebaluatu.</p> | <p>Ikasturtean zehar konturatu gara gure hasierako helburuak gehiegizkoak zirela eta ezin zirela ikasturte bakar batean hauek lortu.</p> <p>Euskara eta Gaztelaniarako ebaluazio adierazleak adostu dira maila guztietarako.</p> <p>Koordinazioak lan handia dauka eta zailtasun handikoa da, hizkuntza ezberdinetako irakasleek irakasteko modu anitzak baitituzte. Baina argi dugu aurrera begira lan honek emaitza onak emango dituela.</p> <p>Datorren ikasturterako gure asmoa atzerriko hizkuntzako irakasleak ere jarduera honetan parte hartzea da. Aurrerantzean gainontzeko hizkuntza dimentsioen ebaluazioa bateratzen jarraitzea da gure helburua.</p> |

¹ Jarraipen- eta lorpen-adierazleak | Lortutakoaren balorazioa | Egindako plangintzaren eraginkortasuna

| | | |
|-----------|-----------------------------|--------------------|
| 13 | JARDUERA ACTIVIDAD | ADIBIDEA MODELO |
| | garapena desarrollo | 13.1 |

HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNAREN EBALUAZIOAREN EMAITZAK

| | BARNE-EBALUAZIOETAKO EMAITZAK | EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK | JOERA | BALORAZIOA |
|---------------------------------------|--|---|--|---|
| EUSKARA | Ikasleen %80ak arlo hau gaimnditu du. %10ak 9 edo 10eko kalifikazioa lortu du. | Ikasleen %30a goiko mailan dago, %50a erdiko mailan eta %20a hasierako mailan. Geruza eta ISEC bereko ikastetxeek baino emaitza hobek lortu ditugu. | Aurreko Ebaluazio Diagnostikoen emaitzak hobetu ditugu. | 2015eko Hobekuntza Planean hartutako neurriak emaitza onak ematen ari dira, batez ere irakurmen eta idazmenean. Ez dugu mintzamena baloratu. |
| GAZTELANIA | Ikasleen %85ak arloa gaimnditu du. %15ak 9 edo 10eko kalifikazioa lortu du. | Ikasleen %25a goiko mailan dago, %55a erdiko mailan eta %20 hasierako mailan. Emaitza okerrenak idazmenean izan dira. Geruza eta ISEC bereko ikastetxeen puntuazioa berdina lortu dugu. | Aurreko Ebaluazio Diagnostiko eta barneko ebaluazioen antzeko emaitzak lortu ditugu. | Emaitzak mantendu egiten dira. Idazmena hobetzeko neurriak hartu beharko lirateke. |
| ATZERRIKO HIZKUNTZA 1 | Ikasleen %80ak arloa gaimnditu du. %5ak 9 edo 10eko kalifikazioa lortu du. | Ikasleen %10a goiko mailan dago, %60a erdiko mailan eta %30a hasierako mailan. Emaitza okerrenak entzumenen izan dira. Geruza eta ISEC bereko ikastetxeen antzeko puntuazioa lortu dugu. | Hobekuntza txiki bat nabari da aurreko barneko ebaluazio eta ebaluazio diagnostikoen aldean. | Emaitzak hobetzeko neurriak hartzen jarraitu behar dugu. Entzumena hobetzeko neurriak hartu beharko lirateke. |
| HIZKUNTZA ARLO/IRAKASGAIA ETAN | Ez ditugu adierazleak jarri hizkuntza arloetan ebaluatzeko. Lan hau datorren ikasturterako geratzen zaigu. | | | |

HOBETUNTZARAKO PROPOSAMENAK

- Familien euskararen erabileraren aldeko inplikazioa gehitu:
 - Lehen Hezkuntzako 3. zikloko tutoretza bieren gaiak berraztertu. Haur Hezkuntzako 1. eta 2. zikloetan egindako lanarekin jarraitu.
 - Gurasoei zuzendutako oinarriko euskarako klaseak antolatu hauek hizkuntzarekiko duten inplikazioa hobetzeko.
- Atzerriko hizkuntzetako ebaluazio-adierazleak adostu. Ebaluazio-probak adostutako adierazleetara egokitu eta proba hauek ikasturtean zehar erabili.
- Arloetako hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna ebaluatzeko adierazleak adostu.
- Komunikazio egoera gehiago sortu gaztelaniaz eta ebaluaziorako adostutako adierazleak erabili, ikasleei hauen berri argia emanez.
- Atzerriko hizkuntzako entzumeneko egoera gehiago sortu eta adostutako ebaluazio adierazleak erabili, ikasleei hauen berri argia emanez.

HIZKUNTZA PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

Plan Estrategikoaren amaierako ebaluzioa

| Helburuak | Lorpen-adierazleen emaitzak ¹ | Amaierako ebaluzioa ² |
|--|---|---|
| Euskararen erabilera gehitzea ikastetxeko harremanetan. | Familiekin izandako harremanetan. %60 | -Urtetik urtera erabilera gehitzen joan da. |
| | Udal erakundeekin izandako harremanetan. %70 | -Plangintza eraginkorra izan da. -Esparru hauetan jarraitu eta beste batzuk gehitu behar dira. |
| Irakaskuntzako hizkuntza guztiak eta dimentsio guztiak (Entzumena, irakurmena, mintzamina, idazmena eta interakzioa) era koordinatu eta bateratuan ebaluatzea. | Irakurmena eta idazmenaren ebaluzio-probak bateratu dira hizkuntza guztietan eta maila guztietan. | Proba guztiak bateratzea duen lana kontuan izaten badugu, egindako lanaren balorazio positiboa egiten dugu. |
| | Atzerriko hizkuntzetako entzumenaren eta mintzamenaren ebaluzio-probak bateratu dira, baina ez beste hizkuntzetakoak. | Beste hizkuntzetako probak bateratzen jarraitu behar dugu, denak bateratu arte. |

Hizkuntza-komunikaziorako emaitzen balorazioa

| Joera eta balorazioa |
|---|
| Atzerriko hizkuntzazko barne zein kanpoko ebaluzioetako emaitzak hobetzen ari dira. Euskaraz eta gaztelaniazko emaitzak mantentzen dira, baina ez dago hobekuntzarik. |

Hizkuntza Proiektua eguneratzeko proposamenak

| Ikasleen eta hauen inguruaren hizkuntza-egoera | Hizkuntzen ikas-irakaskuntza |
|--|--|
| Familiekin ditugun harremanetan euskararen erabilera gehitzeko jarduerak planifikatzen jarraitu. Ahal den neurrian, udaleko erakundeekin ditugun harremanetan euskararen erabilera gehitzeko jarduerak planifikatu. | Hizkuntza guztietako entzumen eta mintzamenaren ebaluzio probak bateratzeko jarduerak planifikatu. |

¹ Plan Estrategikoaren helburuen lorpen adierazleen emaitzen batez bestekoa edo laburbilduma.

² Lortutakoaren balorazioa, egindako plangintzaren eraginkortasuna, etorkizunerako iradokizunak.

**Gogoetarako eta
ideiak trukatzeko
orientabideak**

↳ Harremanen, kudeaketaren eta antolaketaren eremua

IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-GIROA, IKASTETXEA GUNE ESANGURATSUA EUSKARA ERABILTZEKO

Ikastetxearen hizkuntza-giroak eragina du hizkuntza-helburuak lortzeko. Hizkuntzen erabilerarako zenbait irizpide adostu eta jarraitzeak helburuak lortzen lagundu dezake.

Hala, gurea bezalako egoera soziolinguistikoetan non hizkuntzen artean desoreka nabarmena dagoen –presentzian eta erabileran—erabilera-eremu gehienetan (pertsoneko zein instituzioekiko harremanetan, hedabideetan, lan-munduan...) ikasleek, hizkuntza gutxiagotuan gaitasun nahikoa lortu ahal izateko, komunikazio egoera askotan (askotarikoetan eta gero eta konplexuagoetan) parte hartzeko aukera izan beharko dute. Egun eta hemen, ikasle gehienentzat, ikastetxea da horrelako komunikazio-egoeretan parte hartzeko aukera eskaintzen dien gune nagusia, eta, areago, zenbaitentzat bakarra.

Horregatik, komeni da ikastetxea antolatzea euskararen erabilera esanguratsua sustatuko duen gune gisa; non jarduera asko antolatu eta dinamizatzen diren interakzioan aritzea eta euskaraz jardutea eskatzen dutenak, eskolak eskaintzen dituen abagune guztiak aprobetxatuz: era kooperatibo-komunikatiboan antolatuz ikas- eta irakas-jarduerak (gela barnekoak, ikastaldeko artekoak, jarduera osagarriak...) zein bestelakoak (jolas ordukoak, bazkalordukoak, orduz kanpokoak...). Jarduera horietan ikasleen parte-hartzea sustatzen, dinamizatzen eta aldaiatzen baldin badugu, erraztuko dugu haien hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren arian ariko garapena, baita erabiltzeko ohiturarena ere.

Ikasleak jarduera horietan euskaraz modu aktiboan hartuko du parte, baldin eta ikusten badu ikastetxea euskararen erabilera esanguratsurako gune aproposa dela, non 'naturala' suertatzen den euskaraz aritzea. Horretan lagungarri izango da hizkuntzen erabilerari buruzko irizpide argiak zehaztea (pertsoneko harremanetan, eremu instituzionalean eta hizkuntza-paisaian), eta irizpide horiek irakasle guztiok konpartitzea. Bestalde, irakasleek eta langile ez irakasleek hizkuntza-eredu eta -dinamizatzaile rola geure egitea ere oso lagungarri izango da.

IKASTETXEKO HIZKUNTZA-PRESTAKUNTZA PLANA IRAKASLEONTZAT (ETA GAINERAKO LANGILEONTZAT)

Gure ikasleek XXI. mendeko hiritar oso eta duin izateko behar duten hizkuntza–heziketa emateak profesionaloi eskatzen digu prestakuntza zabala hizkuntza-gaietan. Gure hizkuntza-gaitasuna hobetzen eta gure hizkuntza-ekoizpenen kalitatea zaintzen jarraitzea, batetik. Ikasleen komunikazio-gaitasuna garatze aldera gure prestakuntza didaktiko-metodologikoan sakontzea, bestetik. Eta, gainera, geure burua prestatzea honako hauetan ere gure esku-hartzea hobetzeko: hizkuntza-jarrerak lantzean, gelan sorrarazitako interakzio- eta komunikazio-egoeren kudeaketan eta dinamizazioan, lortutako gaitasunaren kontzientzia hartzea eta ikasprozesuaren autorregulazioa ikasleengan sustatzeko lanetan, hala nola hizkuntza-elkarbitza egoerak kudeatzeko trebetasunak lantzean.

Prestakuntza horri, norbanakoen ikuspegitik baino, perspektiba instituzionaletik heltzea komeni da. Hori da, ikastetxeak zehaztea zeintzuk diren irakasle-taldearen lehentasunezko prestakuntza-beharrak (epe ertain eta luzera begira), eta aurreikustea behar horiek asetzeko modua. Horretarako oso lagungarria suertatuko da *“Ikastetxearen hizkuntza-prestakuntza plana”* prestatzea, eta bertan zehaztea burutuko diren prestakuntza-jarduerak, noiz egingo diren eta nork hartuko duen parte. Hizkuntza-prestakuntza plan honen barnean langile ez-irakasleentzako edota familientzako jarduerak ere sar daitezke.

Aipatu hizkuntza-prestakuntza plana Hizkuntza Proiektuaren Plan Estrategikoan txertatuko da.

IKASLEEN HIZKUNTZA-INGURUNEA OPTIMIZATZEKO LANKIDETZA-HARREMANAK

Orduz kanpoko zein aisialdiko jardueretan euskaraz aritzea faktore eragile esanguratsua da hizkuntza erabiltzeko ohituraren eta komunikazio-gaitasunaren garapenari begira; esperientziak eta ikerketek hori erakutsi digute.

Ikasleek eta familiek horrela ikustea eta balioestea beharrezkoa iruditzen zaigu: sinestea jarduera horietan ikaslea bere prestakuntza eta sozializazioa lantzen ari dela, eta horrelako jardueretan parte hartzea onuragarri izango zaiola. Ikuspegi hori sustatze aldera, lagungarri izan daiteke ikastetxean sentiberatze- eta kontzientziatze-saioak antolatzea. Gainera, baliteke zenbait ikasleren parte-hartzea erraztuko duten bideak ere hartu behar izatea: jarduerak eragindako gastuei ordaintzen laguntzeko neurriak, esaterako.

Jarduera gidatzen duen begirale edo hezitzailearen jokabidea gakoa da. Jarduera antolatzeaz eta gidatzeaz gain, gizarte-balioen sustapenez zein hizkuntza-dinamizazioaz arduratzen bada, ikasleek askoz ere probetxu gehiago aterako diote jarduerari. Begiraleek horrela joka dezaten lortze aldera, ikastetxeak sentiberatze- eta prestakuntza-jarduerak antolatu ditzake: begiraleek, batetik, ikuspegi honekin bat egin dezaten eta beren burua hezitzaile garrantzitsu moduan ikus dezaten; eta, bestetik, taldearen zein hizkuntza-interakzioaren dinamizatorako trebetasunak gara ditzaten.

Ikastetxeak jarduera hauek balioesten baditu eta ikasleen prestakuntza integralaren osagai garrantzitsutzat hartzen baditu, begiraleek errazago egingo dute bat arestian proposatutako rolaekin eta eginkizunekin.

Ibilbide honetan, eskualdeko zein udaleko zerbitzuen lankidetzak ezinbestekoa da, baita beste zenbait eragilerena ere. Aipatu prestakuntza- eta sentiberatze-jarduerak antolatzea eta garatzea haien egitekoa izan daiteke.

Bide batez, udal-zerbitzu eta herriko eragile horiei eskatu diezaiekegu beraiek ere haur eta gazteentzako jarduerak antolatzeko orduan, hizkuntza-dinamizatorako eta –integraziorako irizpideak balia ditzaten, eta jarduera horiek gidatuko dituzten begiraleek ere prestakuntza jaso dezaten.

Eremu didaktiko-metodologikoa

IKASLEAK TALDEKATZEA

Ikastalde orekatuak eta anitzak lortzea da ikasleak taldekatzeko irizpide nagusia; betiere ziurtatuta ikasleen inklusioa eta, lehenengo, elebidun —eta, jarraian, eleaniztun— izatea bermatuko dien hezkuntza-erantzuna.

Besteak beste, honako alderdi hauek har ditzakegu kontuan:

- ikasleen etxeko hizkuntza
- ikasleen sexua
- ikasle etorri berrien kopurua
- eskola-laguntza berariazkoa edota errefortzua behar duten ikasleen kopurua
- eskolatze-adina

Ikasleak taldekatzean, oso kontuan hartu behar da hizkuntza sentimenduak, ideiak... adierazteko eta mundua irudikatzeako funtsezko komunikazio-tresna dela eta komunikazio-egoera errealean, besteekin interakzioan ikasten dela. Horregatik, inklusioaren eta kultura-artekotasunaren ikuspegitik, garrantzitsua da beste herrialde batzuetatik datozen ikasleek bai eskola-laguntza berariazkoa behar dutenek ere beste kideekin batera gelan parte har dezaten eta askotariko komunikazio-egoeretan elkarreraginean aritu eta hizkuntza erabil dezaten.

HIZKUNTZA BAKOITZEAN IRAKATSIKO DIREN ORDUAK ETA ARLOAK EDO IKASGAIAK

Ikastetxe bakoitzak ordu kopuru handiagoa edo txikiagoa emango dio hizkuntza bakoitzari, betiere kontuan hartuta bere inguru soziolinguistikoa eta barruko zein kanpoko hizkuntza-ebaluazioetan ikasleek lortutako emaitzak.

Indarrean dugun araudiak zehazten ditu hizkuntza-eredu bakoitzaren ezaugarriak eta hizkuntza bakoitzari eman beharreko gutxieneko ordu-kopurua. Aldi berean, hizkuntza bakoitzari emango zaizkion orduak eta arloak erabakitzean, ikastetxearen eta ikasleen hizkuntza-ingurunea da erreferentzia nagusia. Ez dugu ahaztu behar gure hezkuntza sistema elebidunaren ardatzak euskara sendotzea eta indartzea sustatzen duela, eta eskakizun horrek izan behar duela gure helburu nagusia. Horrez gain, erantzuna eman behar zaio eleaniztasunari, gizartearen eskaria den aldetik, baina elebitasuna sendotuz eta euskararen ezagutza eta erabilera hobetuz.

Halaber, ikastetxearen hizkuntza-planteamendu koherentea erabakitzen laguntzeko, hizkuntza-komunikaziorako konpetenziaren barruko zein kanpoko ebaluazioetan ikasleek lortutako emaitzak ere beste erreferentzia-puntu bat dira.

Eleaniztasuna sendotzeko, bestalde, zenbat ordu irakatsiko diren atzerriko hizkuntzan erabakitzea ikastetxeko kide guztien gogoetatik sortu behar da. Era berean, arretaz aztertu behar da zein arlo edo ikasgai izan daitekeen egokiena atzerriko hizkuntzaren erabilera eta ezagutza areagotzeko.

HIZKUNTZEN IKAS-IRAKASKUNTZA ARLO LINGUISTIKOETAN

Ikuspegi komunikatiboa eta hizkuntzaren erabilera dira hizkuntzak irakasteko eta ikasleen hizkuntza-trebetasunak hobetzen laguntzeko oinarriak. Horrenbestez, horiek dira orientabide didaktiko-metodologiko hauen abiapuntu: hizkuntza komunikatzeko, gogoeta egiteko eta mundua irudikatzeako tresna da; horregatik, hura ikasteko eta ikasitakoa hobetzeko, erabili egin behar da eta erabilera horren gaineko gogoeta egin. Hizkuntzak inguru formaletan eta ez-formaletan ikasten dira, hitz eginez, solasean arituz, entzunez, idatziz eta irakurri, askotariko komunikazio-egoerei modu eraginkorrean entzuteko.

Irakasleen eta ikasleen egitekoak

Irakasleak parte-hartzera bultzatu behar ditu ikasleak, giro afektibo eta motibagarria sortzeko ahalegina egin behar du eta ikasgelan interakzioa eta komunikazioa ahalbidetzen duten egoerak proposatu. Ez da ahaztu behar ikasgelan sortzen diren harremanek, ikasleek elkarrekin eta irakaslearekin dituztenek, eragina dutela komunikazioan eta horren barnean ezartzen diren lotura afektiboetan. Lotura horien arabera sortuko da lankidetzarako eta elkarbizitzarako giro aproposa.

Halaber, kontuan hartu behar dute irakasleek hizkuntza-eredu direla ikasleentzat, eta, beraz, hizkuntza egokia, jatorra, zuzena eta aberatsa erabili behar dute.

Bestalde, funtsezkoa da jarrerak lantzea; izan ere, hizkuntzarekiko nolako jarrera izan, halako portaera eta erabilera. Beraz, ikasleen motibazioan eta interesean eragiteko, eta haiek egoera errealetan eta eskola-esparrutik kanpokoetan euskara erabiltzeko, jarrerak ikaskuntzan duen garrantziaz gogoeta egin behar dute irakasleek eta, horrez gain, ikasleen hizkuntza-jarrerak modu sistematikoa landu ikasgelan.

Halaber, irakaslearen jarduteko erak, hizkuntzarekiko haren jarrerak eta jokabideak eragin zuzena dute ikasleek hizkuntza ikasteko eta berenganatzeko orduan; izan ere, ikasleek gelan ikusi, bizi eta sentitutakoa eredutzat har dezakete etorkizunean hizkuntza erabiltzean edo irakasle gisa jardutean.

Ikasleek hizkuntza erabili egin behar dute, eta aukera eman behar zaie ikasgelan hura erabiltzeko, hau da, irakurri, entzun, idatzi, hitz egin eta elkarrizketan aritu behar dute, eta erabilera horren gainean gogoeta egin hizkuntza erabiltzean sortu diren zailtasunak gainditzeko baliabide gisa eta hizkuntzaren erabilera hobetzeko.

Denboraren, espazioaren eta gelaren kudeaketa

Hizkuntzak erabiliz eraikitzen dira: besteekin solasean arituz, entzunez, hitz eginez, irakurritik eta idatziz. Horrenbestez, ikastaldea kudeatzeko bost trebezia horiek garatzea ahalbidetu behar die ikasleei. Garrantzitsua da, beraz, honako alderdi hauek kontuan hartzea:

- Ikasgelan giro egokia sortzea, ikasleen artean giro afektibo aproposa lortzeko eta kortesia-arauak zaintzeko. Giza-harreman eraginkorrak izateko, gizarte-komunikaziorako ezinbesteko arauak landu behar dira hizkuntza-saioetan: hitz egiteko txandak antolatu, besteek esandakoa onartu, doinu egokia zaindu...
- Hizkuntzak ikasteko zein erabiltzeko motibazioa bultzatzea: helburuak jakinaraztea; lana gauzatzeko, negoziazio-jarduerak proposatzea; ikasleei hitza ematea... , eta batez ere, ikasgelan proposatzen diren jarduerak benetako komunikazio-xedea izatea.
- Norberaren hizkuntzaren erabilerarekiko errespetua bultzatzea. Hiztuna darabilen hizkuntza-aldaerarekin (geografikoa nahiz soziala) identifikatu ohi da eta egoera eleanitzetan hizkuntza propioa balioestea da eskolan lantzen diren beste hizkuntzak ikasteko abiapuntua.. Horregatik, ezinbestekoa da norberaren hizkuntza-aldaera balioestea, beste erabilera batzuk (formalagoak edo, besterik gabe, bestelakoak) erabiltzen ikasteko.

Eskola-saioak antolatzean, ikasleei hizkuntza erabiltzeko denbora eman behar zaie eta Jarduera askotarikoak (elkarrizketa, eztabaida, aurkezpena...) egiteko denbora eman. Eta horrez gain, lankidetzara eta lan kooperatiboa sustatu.

Tokia modu dinamikoan antolatu behar da – malgu eta aldatzeko aukerak emanez –, talde-harremanak sustatzeko: banaka zein taldeka, tartean elementu mugikorrek direla...

Materialak

Ikasgelaren erabilerari dagokionez, hizkuntza lantzeko askotariko materialak eduki beharko lituzke: hiztegiak, gelako liburutegia, ikus-entzunezkoak, multimedia-tresnak... Beste gune batzuen erabilerari dagokionez, berriz, kontuan hartu behar da hizkuntzaren ikaskuntza ez dela ikasgelan bukatzen; horregatik, iradokizun hauek kontuan hartzea komeni da:

- Ikastetxe barneko eta ikasgelaz kanpoko espazioak erabiltzea; esaterako, ikasgelak, liburutegia, ordenagailuak, aretoak...
- Ikastetxetik kanpoko espazioak erabiltzea, ikasitakoaren funtzionaltasuna sustatzeko; horretarako, ikasgaien arteko harremanak bultzatzea eta proiektu globalak proposatu.

Hizkuntza-saioetan erabiliko diren baliabideek ikasleen komunikazio-beharren arabera bilduta eta antolatuta egon behar dute, egungo informazio- eta komunikazio-teknologiak (IKT) eskaintzen dituzten aukerak ere kontuan harturik.

Halaber, kontuan hartu behar da zein diren hizkuntza jakin bati berari soilik dagozkion baliabideak (hiztegiak, hiztegi etimologikoak, estilo-liburuak...), eta zein hizkuntza batean baino gehiagotan erabil daitezkeenak. Baina baliabide guztien aniztasuna ziurtatu behar da beti, kopuruaren eta kalitatearen aldetik. Bestalde, Internet baliabide askotarikoen eta eguneratuen iturria da.

Formatu guztietako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak eduki behar dira ikasgelan. Egun, IKTek aukera ezin hobea ematen dute ikus-entzunezko baliabideak eskuratzeko eta biltzeko; eta, horretaz gain, idatzizko testuen euskarri izateko. Hala ere, testu idatziek ageri-agerian egon behar dute ikasgelan.

Testuen corpusean, bestalde, askotariko testuak, hizkuntza-aldaerei, erregistro, ikasle etorkinen hizkuntzei eta euskalkiei dagokienez, eta eredu errealak izatea komeni da, ikasleek horiek ezagutzeko eta lantzeko aukera izan dezaten eta hizkuntza-aniztasuna balioetsi dezaten.

Ikastetxean ikasgai diren atzerriko hizkuntzen eta hizkuntza ofizialen ohiko materialez gain, inguruan presentzia duten hizkuntzen laginak izatea komeni da, batik bat ikastetxeko etorkinen hizkuntzenak.

Ingurua

Hizkuntzak erabiltzea ikastetxetik harago doa; horregatik, beste leku batzuetako hizkuntza-moldeetara hurbildu behar ditugu ikasleak, eta eraman egin behar ditugu hitzaldietara, bertso-saioetara zein lehiaketetara, ipuin-kontalariak entzutera edo antzezlanak ikustera, irrati-saioetan parte hartzera, euskara indartzeko barnetegietara eta udal liburutegiko liburuak kontsultatzen... Horiek guztiak hizkuntza erabiltzea sustatzeko baliabide ezin hobeak dira.

Era berean, baliabide eraginkorra da hizkuntza-erabilera askotarikoak bai eta beste euskalki batzuetan mintzo diren pertsonak ere gelara eramatea, interakzio aberatsak sortzen baitira ikasleekin.

Metodologia

Metodologia aktiboan proiektu bidezko planteamendu didaktikoa gailentzen da. Bertan, jarduera guztiak helburu jakin bat lortzeko batasuna ematen dien ardatz baten inguruan antolatuta daude. Hizkuntzen esparruan, komunikazio-proiektuak izeneko proposamen didaktikoetan, jardueren sekuentzia bat edo gehiago biltzen dira, eta, horietan, ikasleek komunikazio-helburu erreala duten ahozko zein idatzizko testuak ekoitzi behar izaten dituzte.

Proiektuetan, hizkuntza-trebetasun guztiak lantzeko jarduerak proposatzen dira; beraz, proiektuek ahozko eta idatzizko hizkuntza lantzeko aukera ematen dute, eta edozein testu proposa

daiteke azken ekoizpen gisa. Horrez gain, ulermen- eta ekoizpen-prozesuei lotutako lan koherentea ahalbidetzen dute proiektuek, ulermena hobetzeak ekoizpena hobetzea dakarrelako, eta alderantziz.

Prozedurazko edukiak dira proposamen didaktiko guztien ardatz. Kontzeptuzko edukiak, berriz, hizkuntzaren erabileraren inguruan hausnartzeko eta erabilera hobetzen laguntzeko tresnak dira. Eta jarrerazko edukiek, bai hizkuntzen eta hiztunen ingurukoek, bai ikasprozesuen ingurukoek, sekuentzia didaktiko guztietan agertu behar dute.

Ahozko eta idatzizko testu-generoak, etaparen, mailaren eta hizkuntzaren arabera aukeratuak, lagun dezakete edukiak egituratzen, aurrez ezarritako helburuak lortzeko. Testu-tipologiak honetan laguntzen du: testu-generoen aniztasuna hizkuntza guztietan antolatzen, sailkatzen eta hautatzen. Testu-generoak sailkatzeko eta hautatzeko, ikasleen komunikazio-beharrei eta generoen erabilera-eremuei erreparatuko zaie.

Hizkuntzen trataera bateratua

Ikastetxe guztietan, gutxienez, hiru hizkuntza lantzen dira, euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntza bat, hizkuntza bera ikasteko zein hizkuntzakoak ez diren edukiak garatzeko. Baina hizkuntzen arteko lankidetzeta eta trataera koordinatua falta izaten da maiz. Beraz, hizkuntzen trataera bateratua da ikastetxe askoren erronka, hizkuntza-esparruko arlo eta ikasgaien lanari errentagarritasun didaktikoa atera ahal izateko, eta errepikapenak, erredundantziak eta kontraesanak saihesteko.

Asko dira hizkuntzen trataera bateratura iristeko bideak: ikastetxeko hizkuntzak lantzeko erabiliko den planteamendu metodologikoaren inguruko gogoeta, material didaktikoen hautaketa, prozesuari lotutako ebaluazio-irizpideen hautaketa... Bide horiek irakasleek eurek adostu behar dituzte. Denbora luzea behar duen prozesua da eta horren garapena ez da jasotzen ez gida honetan ezta orientazioei eskainitako gune honetan ere; hala ere, badago material eta baliabide nahikorik, ikastetxeen praktika egokiak barne, hizkuntzen arteko lan partekatu horretan aurrera egin nahi duten ikastetxeei gogoeta-prozesuan laguntzeko.¹

Nolanahi ere, hizkuntzen trataera bateratuari buruzko erabakiak hartzean, kontuan hartu behar da zein diren hizkuntzen artean transferi daitezkeen edukiak eta zein diren hizkuntza bakoitzak dituen berariazko ezaugarriak; horrela, ikasleekin ikasgelan egiten den lanari etekina aterako zaio, eta denbora aurreztuko da, errepikapen aspergarriak eta kontraesanak saihestuko baitira.

Landuko diren edukiek eta horien progresioak aurrez zehaztutako ikas-helburuei lotuta egon behar dute. Horregatik, hizkuntzen trataera bateratuaren bidetik, edukiak zehazteko abiapuntua izan daiteke hizkuntza bakoitzean landuko diren testu-generoak hautatzea. Testu-generoak hautatzeko irizpide nagusia hau da: testuak ikasleentzat funtzionalak eta esanguratsuak izatea.

Nolanahi ere, edukiak aukeratzeko honako hauek hartu behar dira oso kontuan: ikasleen interesak, beharrak, garapen kognitiboa eta komunikatzeko gaitasuna.

Edukiak hautatzeko progresioan, irizpide hauek hartu behar dira kontuan: gaiek ikasleentzat duten hurbiltasuna eta interesa, testuen maila abstraktua edo konkretua, eta testuak ulertzeko eta ekoizteko behar diren prozesu kognitiboen konplexutasuna. Hala ere, hizkuntzaren ikaskuntzak duen izaera helikoidalak –sarri, atzera egin behar izaten dugu gero aurrera egiteko– hainbatetan testu-genero berberak lantzea eskatzen du.

Indarrean dugun curriculumeko ebaluazio-irizpide eta adierazleetan, bestalde, badira oinarrizko hezkuntzako maila guztietan landu daitezkeen testu-tipo eta testu-generoei buruzko gidalerroak.

¹ Hizkuntzen trataera bateratua: informazioa, materialak, unitate didaktikoak... <https://trataerabateratua.wordpress.com/>
Hizkuntzen Trataera Bateratua (Ikastaroa), <https://sites.google.com/site/hizkuntzentrataerabateratua/>

Ahozkoaren ulermena

Oro har, eskolak ahaztu samar izan du ahozkoa egunero-egunero lantzea. Hori gertatu da, alde batetik, hizkuntza idatziari lehentasuna eman zaiolako, eta, bestetik, adibide aztergarriak eta eredugarriak biltzea eta ikasleen ekoizpenak jasotzea zaila izan delako. Egun, IKTek trebetasun hau lantzeko baliabideak eskueran jartzen dituzte, ahozko testuak grabatzeko, entzuteko eta jasotzeko.

Oinarri-oinarrizkoa da hizkuntzekiko jarrerak lantzea. Hala, hiztunekiko eta hizkuntzekiko jarrera positiboak bultzatu behar dira. Beraz, ikasleek hizkuntza-erregistroak ahozko testu askotarikoen bitartez ulertu eta landu behar dituzte, eta batez ere gizarte presentzia urriagoa duten aldaerak jasotzen dituztenak. Halaber, ikaskideen ahozko ekoizpenak entzutean eta balioestean jarrerak zaindu egin behar dira eta aniztasunarekiko errespetu giroa sustatu lankidetzarako giroa sortuz.

Irakaslea hizkuntza-eredua da ikasleentzat, batez ere euskararen presentzia desabantailan dagoen tokietan, gure hizkuntza ofizialen egoera soziolinguistikoa halakoa baita. Horrelako egoeretan, irakaslea da hizkuntza-eredua, eredurik hurbilena eta, askotan, ikasleen erreferentzia ia bakarra. Beraz, hizkuntzaren ezaugarri hauek zaindu behar ditu: jarduteko era, estiloa, erregistroa, esateko moduak, aberastasuna, egokitasuna eta zuzentasuna.

Horrez gain, ikasleen ahozko ulermena hobetzen laguntzeko, komenigarria litzateke gainerako ikasgaietako irakasleen diskurtso akademikoa egituratzeko jarduera-protokolo bat erabiltzea.

Ahozkoaren ulermen-prozesuak, idatzizkoarenak bezala, hiru une ditu, eta horietako bakoitzak estrategia bereziak eskatzen ditu.

Ahozkoaren adierazpena

Ikasgela komunikazio- eta interakzio-gune bihurtu behar da: ikasleek azalpenak eman, negoziatu, iritziak adierazi eta horiek guztiak elkarrekin partekatuko dituzten tokia; baina, horretarako, elkarrekiko errespetua eta lankidetzara-giroa sustatu behar da, eta ikasleei hitz egiteko aukera eta denbora eskaini behar zaie.

Eskolan, batez ere ahozko erabilera formalak jorratu behar dira. Izan ere, eskola erabilera-eremu formala da, eta bertan egiten diren ikasteko jarduerak ere formalak izaten dira; adibidez, irrati-kronikak, ahozko azalpenak, albisteak, olerkiak... Erabilera formal horietan, ahozko azalpenak leku garrantzitsua izan behar du, ikaskuntzaren transmisioari lotutako ekintza (arloan eta ikasgai guztietan landu beharrekoa) baita.

Ikus-entzunezko baliabideek eta IKTek aukera ematen dute ahozko ekoizpenak jasotzeko. Bestalde, Portafolioa oso tresna erabilgarria izan daiteke ikasleen ekoizpenak biltzeko, eta ahozkotasuna garatzen ari direla egiaztatu eta horren inguruko gogoeta egiteko.

Interakzioa

Interakzioa, beste hizkuntza-trebetasunekin gertatzen den bezala, erabilera gidatuaren eta etengabeko praktikaren bidez garatzen da; ez da bat-batean eta une jakin bati lotuta ikasten den trebetasuna. Beraz, etapa guztietan landu behar da, eta ikastetxean interakziorako bideak eta aukerak ematen dituzten egoera komunikatiboak proposatu eta graduatu behar dira, zailtasun- eta konplexutasun-mailaren arabera.

Ahalik eta komunikazio-egoera errealenak sortu behar dira ikasgelan, ikasleen interesa piztu eta haien modurik eraginkorrenean komunikatzeko beharra senti dezaten. Horretarako, ikasleen intereseko gaiak proposatu behar dira, eta horiek kudeatzea ikasleen esku utzi.

Interakzioari lotutako beste lan-esparru bat da pertsonen arteko erlazioetan eta hedabideetan ikasleek jasotzen dituzten interakzio-ereduak kritikoki aztertzen ikastea. Zentzu honetan, komunikabideetatik hartutako ereduak ikusteak eta entzuteak (*reality*, debateak...) baliabide

aproposak izan daitezke errentagarritasun didaktikoari begira, nola egin behar den edo ez den egin behar ikasteko; izan ere, batzuetan, batere eraginkorrak ez diren interakzio-adibideak izaten dira.

Ahozko interakzioak aukera paregabea ematen du hizkuntza-aldaera desberdinak lantzeko. Ikasgelan ikasle etorkinak egoteak ere aukera gisa balioetsi behar da hizkuntza-aniztasuna balioetsi eta harekiko errespetua bultzatzeko.

Irakurriaren ulermena

XXI. mendean, informazioaren eta ezagutzaren mendean, modu egokian irakurtzen ez jakiteak edota irakurtzeko gaitasuna behar bezain ongi garatuta ez izateak gizartean baztertua izateko arriskua dakar, horrek norbanakoaren gizarte-, lan- eta pertsona-garapena oztopatzen baitu.

Irakurtzea testuaren deskodetze hutsa baino askoz prozesu konplexuagoa da; izan ere, hau guztia eskatzen du: abilezia kognitibo konplexuak erabiltzea, munduaren ezaguera eta hizkuntzari lotutako ezagutzak abiaraztea, eta irakurketa gizarte-praktikatzat hartzea. Alderdi horiek guztiak berariaz landu behar dira ikasgelan.

Irakurketari lotutako jarduerak zentzua eta helburua emango dien testuinguruan txertatu behar dira; eta kontuan izan irakurketa curriculumeko arlo eta ikasgai guztietan dagoen hizkuntza-trebetasuna dela. Xede askorekin irakurtzen da: plazera lortzeko, informazio zehatza eskuratzeko, testuaren ikuspegi orokorra izateko, ikasitakoaren inguruko kritika egiteko edo ikasitako hori berrikusteko, ezaguna den informazioa zabaltzeko...; horregatik, helburu bakoitzaren arabeko estrategiak baliatu behar dira.

Irakurketa-prozesuak irakurritakoa ulertzeko eta interpretatzeko estrategiak garatzea eta lantzea eskatzen du.

Irakurketa banakako eta isileko jarduera gisa zein ikasleek elkarrekin partekatuko duten jarduera gisa landu behar da. Bai bata, bai bestea egokiak dira irakurketaren helburuak lortzeko. Banakako irakurketa isila taldean irakurtzearekin osatu eta aberasten da. Irakurketa dialogikoan, ikasgelan dauden partaideak (ikasleak, pertsona helduak, irakaslea, beste ikasle edota irakasle batzuk...) testua ulertzeko eta interpretatzeko lankidetzan aritzen dira –taldean irakurri eta elkarrengandik ikasi–, eta galderak, iruzkinak, iradokizunak... egiten dituzte.

Ikasleak trebatu egin behar ditugu honetan: eskola- eta gizarte-eremuetan erabilgarriak diren testuak eta garapen pertsonalerako lagungarri izango zaizkien testuak ulertzen eta interpretatzen. Horretarako, ezinbestekoa da testu-bankua osatzea: testu errealak eta, testu-generoari, euskarriei, erabilpen-eremuari eta euskalkiei dagokienez, askotariko testuak, testu jarraituak eta ez-jarraituak izango dituen testu-bankua. Horrekin batera, ikasgelan gauzatuko diren komunikazio-proiektuen gaietara lotutako testuak erabiliko dira, baita beste ikasgai batekoak eta ikasleen interesekoak ere.

Internet liburutegi digital handi eta garrantzitsua bihurtu da egun; etengabe gaurkotzen ari da, eta testuak bilatzeko eta hautatzeko zereginetan laguntzen du. Beraz, komeni da testu digitalen helbideak aukeratzea.

Testu digitalek, baina, abilezia bereziak lantzea eskatzen dute; izan ere, hipertestuaren egitura ez da lineala, adar asko ditu; irakurtzeko ibilbide eta aukera asko eskaintzen ditu. Horregatik, irakasleak irakurle ezgaituei irakurtzeko ibilbidea zehazten lagundu behar die, betiere irakurketarako zehaztu den helburuaren arabera.

Idazmena

Ikasleei ikusarazi behar zaie idaztea oso prozesu konplexua dela eta, horregatik, idazten idatziz –asko idatziz– ikasten dela; izan ere, eskolaldiko urteetan eta bizi osoan garatzen den trebetasuna da idazmena. Beraz, ikasleen interesetatik gertuko atazak eta proiektuak proposatu behar dira, erronka kognitiboak, hizkuntza-mailakoak nahiz komunikazio-mailakoak, eskatuko dizkietenak baina.

Askotariko komunikazio-egoerak proposatzea. Funtsezko tresna da hori era askotako testu-generoak lantzeko eta, horretaz gain, ikasleei aukera emateko ikasgelan zehaztu diren idazketa-proposamenak (testuaren helburua, hartzaileak, edukiaren egitura, hizkuntza-maila eta erregistroa) modu egokian kudeatzeko.

Idazketa-prozesuaren ikaskuntza-jarduerak bi helburu hauek dituzte: helburu diskurtsiboa eta ikaskuntzari lotutako berariazko helburua. Esaterako, iritzi-artikulua idazteko sekuentzia didaktikoaren helburu diskurtsiboa egunkarian, aldizkarian edo ikastetxeko blogean argitaratuko den testua da eta ikaskuntzari lotutako helburua, berriz, argudiatzen ikastea (tesia zehaztu eta hori defendatzeko argudioak garatzea, argudiatzeari lotutako lokailuak erabiltzea...)

Literatura-hezkuntza

Literatura-hezkuntza ikasleak hizkuntzan eta komunikazioan hezteko osagai garrantzitsua da. Literatura-testuen irakurle eta entzule gaituak izateko, ikasleek hizkuntza erabiltzeko trebetasunak eta abileziak garatu behar dituzte, baina, horiez gain, komunikazio arruntaren aldean, bestelako ezaugarriak dituen beste komunikazio era bat ere garatu behar dute: komunikazio literarioa, alegia, eta, horrekin batera, interakzioan aritzeko gaitasuna eta trebeziak ere bai.

Literaturara hurbiltzeak badu beste helburu nagusi bat: irakurriz eta ahozko literatura-testuak entzunez, plazera lortzea. Literatura-testuak entzutean eta irakurtzean, gizabanakoak hainbat baliabide topa ditzake bere burua hobeto ezagutzen laguntzeko, bestelako gizakiak eta egoerak ezagutzeko, mundu errealean zein irudimenezko esparruetan zehar ibiltzeko eta hizkuntzaren botereaz —hizkuntzak adierazteko duen aukera infinituez— gozatzeko. Horretan datza literatura irakurtzeko eta entzuteko plazera; ikasleek horretaz guztiaz disfrutatzea lortu behar lukete.

Literaturak hainbat testu-egitura eskaintzen ditu: olerkiak, bertsoak, antzezlanak, eleberriak, ipuinak, mikronarrazioak, komikiak, nobela grafikoak, zinema-gidoiak... ; halaber, egungo gizartean, literaturaren baliabideak erabiltzen dituzten testu asko bizi dira elkarrekin, hala nola publizitate-testuak, kazetaritza-testuak, multimedia... Heziketa literarioak horiek guztiak ulertzen eta interpretatzen laguntzen du.

Ebaluazioa

Hezkuntza-etapa bakoitzerako hautatu diren hizkuntza-erabilera errealak dira ebaluazioaren irizpide, eta egiten jakitea da ebaluazioaren elementu erabakitzailea. Beraz, ikasleek erakutsi behar dute komunikazio-egoera bati modu eraginkorrean erantzuteko gauza direla: eskabide-gutuna idazteko, albiste baten esanahia eta zentzua ulertzeko, gai bati buruzko ahozko azalpena egiteko...

Ikaskuntzari begira, prozesuaren ebaluazioa da ebaluaziorik esanguratsuena, prozesuan zehar azaltzen diren zailtasunak antzemateko balio duelako eta horiei irtenbidea emateko baliagarria delako. Horrek sekuentzia didaktikoko jarduera batzuk ebaluazio-jarduera gisa erabiltzea eskatzen du.

Azken ebaluazioak edo ebaluazio sumatiboak lan-unitatean zehar zer ikasi den egiaztatu eta erakusteko balio du. Askotariko probak (ariketa analitikoa, galdetegia, testua...) izan daitezke, eta beti erabili behar dira prozesuan zehar jaso diren datuen eta behaketen osagarri.

Funtsezkoa da ikasleek apurka-apurka beren idatzizko eta ahozko ekoizpenen kontrola hartzea. Antzeman egin behar dituzte zailtasunak eta akatsak, eta ikasi egin behar dute akats horiek nola zuzendu eta bideratu. Horregatik, ebaluazio-zereginetan eta ebaluazio-prozeduran, ikasleek gero eta esku-hartze handiagoa izan behar dute.

Ebaluazio-prozesu guztiak ebaluazio-irizpideen eta horien adierazle zehatz eta argien arabera egin behar dira; izan ere, horiek emango diete zentzua ikasleek lortuko dituzten kalifikazioei edo

egingo zaizkien oharrei. Ebaluazio- irizpideak eta adierazleak jakinarazi egin behar dira, eta ikasgaien programazioan adierazi, bai familiek, bai ikasleek ezagut ditzaten.

Ebaluazio-tresnek askotarikoak izan behar dute, eta ikasleen ahozko eta idatzizko testuen ekoizpen kopuru nahikoa jasotzeko aukera eman behar dute, ikasleen aurrerapenak eta zailtasunak zein diren zehatz jakiteko. Hori dela eta, Portafolioa ezinbesteko ebaluazio-tresnatzat jotzen da.

HIZKUNTZEN IKASKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA ARLO EZ LINGUISTIKOETAN

Arlo edo ikasgaietan jorratzen diren testuen ulermen eta ekoizpenen ikaskuntza eta haien ebaluazioa modu integratuan egiteak hobetu egiten du ikasleen konpetentzia maila arlo horietan.

Testuen ulermena arlo ez linguistikoetara hedatu behar da bai eta ikasgelatik kanpo egiten diren jardueretara ere. Hizkuntza gizarte-esparru guztietan ageri da horrenbestez aukera hori erabili behar da eta ikaskuntzarako baliatu.

Testuen ezaugarriei erreparatuta askotarikoak izan behar dute helburuari, hizkuntza-erregistroari, euskalkiari, euskarriari, testu-tipo eta testu-generoari begira...

Ikasgelatik kanpo ere askotariko jarduerak planifikatu daitezke ulermenari laguntzeko (antzezlanak, errezitaldiak, lehiaketak, bisitaldi gidatuak...) jarduera horiekin batera, gaurkotasuna duten hainbat gai landu daitezke edota bestelako gaiak ere ikasleen interesekoak eta hala hitzaldiak, mahai-inguruak... antolatu ikastetxean bertan

Eskolatik kanpoko bisitaldiak eta irteerak ere baliagarriak dira testu errealean iturri baitira. Museotara, planetariora... joateak aukera ematen du lan didaktikoa garatzeko ikasleek jasoko dituzten azalpenak abiapuntu.

Interakzioa funtsezko trebezia da ikaskuntza ahalbidetzeko, bai irakaslearekin egiten diren solasaldien bitartez bai ikasleek elkarrekin eta lan kooperatiboaren bidez egiten duten interakzioaren bidez. Horrela ezagutza elkarrekin eraikitzen dute ikasleek.

Elkarrizketak lagun dezake gelan testuak ulertzeko jardueretan eta ikasleei proposatutako atazetan. Funtsezkoa da interakzioa eta elkarrizketa geletan; izan ere, sarritan norabide bakarreako izan ohi da ikaskuntza, ikasleen erantzunik behar ez duena, ikasleen parte-hartzerik gabekoa. Alderdi honek lotura estua du ikasleen eta irakasleen egitekoekin eta horrenbestez oinarriko konpetentzien garapenarekin.

Taldeka lan egitea eta talde-lana modu eraginkorrenak kudeatzea funtsezko egitekoa da gaur egungo eskolan. Pertsona helduekin geratzen den bezala, taldean lan egiteak praktika behar du eta denboran zehar garatu behar den ikaskuntza, horregatik era honetako proposamenek ikastetxe mailako erabakiak eta ados-jartzeak eskatzen dituzte ikasle guztiek lan egiteko teknika hau eskolaldian zehar ohiko teknika gisa erabiliko dutela bermatzeko.

Idazketak edozein arlo eta ikasgai lantzeko duen garrantzia azpimarratu behar da: testuak entzuten edo irakurtzen ditugunean idatzi egiten dugu (oharrak hartu, galderak, beste irakurgai batzuekiko loturak, laburpen xumeak egin, gidoiak, eskemak); idatzi egiten dugu ikasitakoa laburbiltzeko (laburpenak, eskemak...) eta idatzi egiten dugu ikasitakoa berrerrabiltzeko eta ezagutza berria eraikitzeko (ikerketa lanak, txostenak azterketak...).

Idazketak, beraz, aukera ematen du ezagutza eta pentsamendua antolatzeko eta adierazteko, biak elkarrekiko interakzioan. Hori dela eta, modu egokian eta konpetentean idazteko behar diren ezagutzak, estrategiak, trebetasunak eta teknikak irakatsi eta ikastea eskolaren helburu nagusietako bat da, eta hizkuntza irakasleei ez ezik, ikastetxeko irakasle guztiei dagokien egitekoa ere bada.

Irakurketa Plana garatzeak bestalde, ikasleen ulermena hobetzen du arlo guztietan.

Eleaniztasuna sendotzeko eta atzerriko hizkuntzan arloko edukiak irakasteaz batera ikasleek hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia hizkuntza horretan hobetzen laguntzeko, kontuan har daitezke, besteak beste, CLIL ikuspegia eta SIOP planteamendua, egiaztatuta duten errentagarritasun didaktikoagatik.

CLIL metodologiak² edukien eta hizkuntzen irakaskuntza integratua du oinarritzat. Metodologia hau gure erkidegoan hizkuntza-ereduak ezarri zirenetik ikasleak euskalduntzeko erabilitako planteamendua da; izan ere, curriculum-edukiak ikasteaz batera hizkuntza bera ikasteko erabili ohi da.

Ikuspegi honek hizkuntza era esanguratsuan erabiltzeari bidea ematen dio; hots, ikasleak egoera errealetan erabiltzen du hizkuntza. Irakasteko teknika, metodo eta jardute pedagogiko askotarikoak erabiltzea ahalbidetzen du eta ikasleak atzerriko hizkuntzan motibazio eta konfiantza handiagoa erakusten du.

SIOP³ (*Sheltered Instruction Observation Protocol*) **ereduak** ere atzerriko hizkuntza(n) ikasten ari diren ikasleen beharrei erantzuten die, eduki eta hizkuntzaren ikasketak uztartuz. Horretarako zortzi pausu proposatzen ditu irakasleari unitateak diseinatzen eta planifikatzen laguntzeko.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. <http://nagusia.berritzeguneak.net/gaitasun/competencias-basicas-1-eu.php>
Orientabide didaktikoak. <http://nagusia.berritzeguneak.net/gaitasun/orientaciones-didacticas-eu.php#>

² CLIL: <http://www.languages.dk/clil4u/index.html>

Irakasleentzako materialak eta baliabideak: <https://sites.google.com/site/clil4umaincourse/home>

³ SIOP: <http://www.cal.org/siop/>

**Diagnostikorako
beste tresna batzuk**

Atal honetan tresna, jarduera eta erreferentzia ugari jaso dira; ikastetxeak, beharrezkoa baderitzo, balia ditzakeenak informazio zehatzagoa lortu eta diagnostikoan sakontzeko.

Baliabide horietako batzuk baliatu ohi dira Ikastetxeetako Hizkuntza Normalizaziorako Proiektuak laguntzeko asmoz Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak sustatzen duen Ulibarri Programaren baitan.

↓ Ikasleen hizkuntza-ingurunea: etxean eta herrian

IKASLEEN HIZKUNTZA ERABILERA IKASTETXEZ KANPO

Gela argazkia

- Tresnaren aurkezpena: <http://goo.gl/xvOtYD>
- Galde-sorta: <http://goo.gl/iEoaw5>
- Datuak lantzeko: Ulibarri.info (webaren gune pribatuan, alta eskatu behar da).

HIZKUNTZEN PRESENTZIA ETA ERABILERA, FAMILIAN ETA HERRIAN

Ikasleek egindako ikerlanak

- Diziplinarteko sekuentzia didaktikoa, DBHko 1. ziklorako, Berako Labiaga ikastolako: <https://goo.gl/Z0BDto>
- Inguru hurbilaren ikerketa soziolinguistikoa, 2. Mailako ikasleek eginak: Pere Mayans eta Nuria Montes, Articles, 60: <http://goo.gl/F9U2D0>

Hizkuntza-biografiak

- ‘La lengua y yo’, Lourdes Domenech: <http://goo.gl/UPsYSK>
- ‘Relatos de vida lingüística’, Articles 61, monografikoa: <http://goo.gl/aIHlwT>

Familiaren hizkuntza-zuhaitza

- ‘Mapa lingüístico familiar’, Lourdes Domenech: <http://goo.gl/3sVWNn>

Erakundeek eta elkarrekin argitaratutako datuak

- Eusko Jaurlaritza. Euskal Herriko hizkuntza-adierazleen sistema: <http://goo.gl/nhZpAv>
- Eusko Jaurlaritza. Mapa eta inkesta soziolinguistikoen argitalpenak: <http://goo.gl/r2Do68> eta <http://goo.gl/vkVmvW>
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Datu soziolinguistikoak, herriz herri, eskualdez eskualde, 1986-2011: <http://goo.gl/dlZCUx>
- Soziolinguistika Klusterra. Euskararen Datu Basea: <http://goo.gl/xs5QG2>

📄 Ikastetxearen hizkuntza-giroa

IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-IBILBIDEA

- *Denboraren lerroa*, pertsona edo talde baten bilakaeraren unerik esanguratsuenak jasotzeko dinamika: <http://goo.gl/5v9Sys>

IKASLEAK. HIZKUNTZEN EZAGUTZA ETA ERABILERA. HIZKUNTZA-JARRERAK

Irakasleen pertzepzioa ikasleen hizkuntza-ezagutzaz, -erabileraz eta -jarreraz

- Soziolinguistika Klusterrak Bergaran baliatu zuen galde-sorta: <http://goo.gl/zSDG7h>

Gaitasun erlatiboari buruzko datuak

- Ikasleen hizkuntza-gaitasun erlatibora hurbiltzeko datuak, Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzak oinarri hartuta.
Tresnaren aurkezpena: <http://goo.gl/lp3YYI>
Datuak lantzeko: <http://goo.gl/zeYp5Q>

Ikasleen hizkuntza-erabilera, ikastetxean

- Ikasleei galde-sorta, *Mintzagrama* (Ulibarri.info webaren gune pribatuan, alta eskatu behar da), argibideak: <http://goo.gl/sGSRtU>

Ikasleen hizkuntza-erabilera, gelatik kanpo

- Behaketa zuzena, kale-erabileraren neurketaren metodologian oinarritua (Ulibarri.info webaren gune pribatuan, alta eskatu behar da), argibideak: <http://goo.gl/c72n6e>

Ikasleen hizkuntza-jarrerak

- Hizkuntza-jarreei buruzko galde-sorta (Hizkuntzen Portfolio Europarra, Bigarren Hezkuntzarako gida didaktikoa, 66. or.): <http://goo.gl/8WhqP1> (euskaraz) eta <http://goo.gl/oENpY9> (gaztelaniaz). Egokitzapenak: <http://goo.gl/tkMOKT>
- Hizkuntzen balioa eta egokitasunari buruzko galde-sorta, Arrue Ikerketa: <http://goo.gl/EJRMjz>
- Hizkuntza-jarreei buruzko galde-sorta (*JLG*), Urtzi Ruiz de Azua: <http://goo.gl/Nma4YV>

Ezagutza, erabilera eta jarrerak

- Ikasleentzako galde-sorta luzea eta zehatza, Soziolinguistika Klusterrak Bergaran baliatu zuena: <http://goo.gl/vfIZID>

Irakasleen hizkuntza-erabilera ikastetxean

Irakasleei galde-sorta, *Mintzagrama* (Ulibarri.info webaren gune pribatuan, alta eskatu behar da). Argibideak: <http://goo.gl/sGSRtU>

Hizkuntzaren ikaskuntza eta irakaskuntza ikastetxean

Murgiltze-programaren ezarpena analizatzeko tresna: Generalitat de Catalunya. *Eina de Diagnosi. Per reflexionar sobre l'aplicació del Programa d'Immersion Lingüística*, <http://goo.gl/7GISUo>

Edozein alderdi zehaztasunez aztertzeko: AMIA-DAFO tresna

AMIA-DAFO tresnak (Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak eta Ahuleziak) gertaerak, fenomenoak edo egoerak sakon eta zehatz aztertzeko balio du. Hizkuntza Proiektua lantzeko orduen baliagarri suerta dakiguke bai egoera bere osotasunean aztertzeko, bai bereziki interesatzen zaigun esparru edo alderdiren bat analizatzeko. Kasu honetan, analisia osatzeko egoerari aurre egiteko (proposamenak proposatu eta irtenbideka bilatze aldera) estrategien bila aritzeko (AMIA + Estrategiak).

- AMIA, prozedura eta txantiloia: <http://goo.gl/7L2OdU>
- AMIA + Estrategiak: <http://goo.gl/dL8o9k>

